

Haur txikiak dituzten gurasoen hizkuntza-bizipenak, -praktikak eta harreman-sareak

*Bilboko Alde Zaharrean eta Deustun
egindako ikerketa*

Jaime Altuna, Olatz Altuna, Josu Ozaita
2025eko apirila



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**
Euskara biziberritzeko
ikergunea

Izenburua:

Haur txikiak dituzten gurasoen hizkuntza-bizipenak, -praktikak eta harreman-sareak
Bilboko Alde Zaharrean eta Deustun egindako ikerketa

Egileak:

Jaime Altuna, Olatz Altuna, Josu Ozaita

2025eko apirila

Soziolinguistika Klusterra

Martin Ugalde Kultur Parkea
20140 Andoain
943 592 556
[https://soziolinguistika.eus/eu/
kluster@soziolinguistika.eus](https://soziolinguistika.eus/eu/kluster@soziolinguistika.eus)

Proiektuaren babesleak:

Bilboko Udala
Eusko Jaurlaritzak- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Lan hau **Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa (CC-BY-SA 4.0)** lizentziapean zabaltzen da. Lizentziaren kopia bat ikusteko, bisitatu <http://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0>

Aurkibidea

1	SARRERA	5
2	IKERKETAREN LANTALDEA	6
3	IKERKETAREN HELBURUAK	6
4	IKERKETAREN PROZEDURA ETA METODOLOGIA	6
5	IKERKETAREN FASEAK	7
5.1	Lehenengo fasea: guraso gazteen testuingurua ezagutzen	7
5.2	Bigarren fasea: familia hizkuntza politikak ezagutzen	9
5.3	Hirugarren fasea: familien arteko harremanak saretzen eta aktibatzen ..	11
5.4	Laugarren fasea: bukaerako emaitza eta aurkezpena	13
6	BILBO. ALDE ZAHARRA ETA DEUSTU. ARGAZKI OROKORRA	14
6.1	Datu demolinguistikoaren errepaso laburra	14
6.2	Testuinguru soziolinguistikoaren analisia	18
7	GURASOEN IKASKETA PROZESUAK	23
7.1	Belaunetara belauneko etena eta jarraipena	23
7.2	Gurasoen ikasketa ibilbideak eta hizkuntza-mudak	24
7.3	Ohitura aldatzea: zaila baina posible den prozesua	27
7.4	Euskaltegiak: gurasoei moldatutako ikasketa prozesuen beharra	29
8	HAURREN IKASKETA PROZESUAK, HIZKUNTZA-PRAKTIKAK ETA HIZKUNTZA- MUDAK	29
8.1	Eskola: euskararen irla	29
8.2	Haurren hizkuntza praktikak eta hizkuntza-mudak	31
9	FAMILIA HIZKUNTZA-POLITIKA	35
9.1	Hizkuntza-ideologiak	35
9.2	Liberalismo linguistikoaren diskurtsoak	38
9.3	Hizkuntza-praktikak	39
9.4	Planifikazioa eta estrategiak	45
10	ESKU-HARTZEAREN ANALISIA	51
10.1	Diseinua eta antolaketa	51
10.2	Esku-hartzea	52
10.3	Hirugarren fasearen balorazio orokorra	55
11	AZKEN GOGOETAK	56
11.1	Testuingurua gaitzeko indarguneak	57
11.2	Euskararen aldeko eraldaketa prozesuak	57
11.3	Haurren hizkuntza-ibilbideak	58
11.4	Familiaren euskararen aldeko praktikak eta estrategiak eredu	58

11.5	Eremu informaleko familia sareak.....	59
11.6	Eremu ez-formaleko plangintza eta esku-hartzeak.....	59
11.7	Ikertzen jarraitzeko beharra	60
12	ERREFERENTZIAK	61
13	ERANSKINAK.....	63
13.1	Lehen fasea: elkarrizketen gidoia	64
13.2	Lehen fasea: behaketen gidoia.....	67
13.3	Bigarren fasea: elkarrizketen gidoia.....	69
13.4	Hirugarren fasea: tailerraren diseinua	72
13.5	Hirugarren fasea: argazkiak	74
13.6	Hirugarren fasea: galdetegien emaitzen jasoketa	83
13.7	Hirugarren fasea: eskolen balorazioak	93

1 SARRERA

Gauzak horrela, guraso gazteek hizkuntza-sozializazio prozesuan paper garrantzitsua jokatzen dute eta, une honetan, euskara biziberritzearen alde ekarpen handia egin dezakete. Horretarako, beharrezkoa zaigu zer bizipen, ideia eta beharrak dituzten jakitea, horien arabera diseinatu baitaitezke eraginkorrak izango diren plangintzak. Testuinguru zehatzetan kokatutako ikerketak, beraz, funtsezkoak zaizkigu aurrerantzean garatu daitezkeen programak irudikatzeko eta diseinatzeko.

Bilbon hizkuntzen erabileraren kale-neurketak utzitako emaitzen harira, haur txikiak dituzten guraso gazteekin ikerketa egitea erabaki zuen Bilboko Udalak eta dokumentu honetan azterlan horren emaitza nagusienak jaso ditugu. Ondorengo orrietan, beraz, Bilboko guraso berrien hizkuntza-praktikak, ideiak eta bizipenak ezagutzeko egin den ikerketa parte-hartzailean egindakoa eta ondorioztatutakoa bildu dugu.

Ikerketak bi urteko iraupena izan du. 2023ko udaberrian abiatu zen eta lau fasetan garatu da. Lehen faseak bi zeregin nagusi izan zituen. Batetik, ikerketa egingo genuen guneen aukeraketarako aurre-ikerketa egin zen. Bestetik, hautatutako bi gune horien (Deustu eta Alde Zaharra) familien errealitatera hurbilpen bat egin zen, 7 elkarrizketa eta 4 behaketaren bidez, bertako dinamikak zein biztanleak ezagutzeko asmoz. Bigarren fasearen, helburua zen Alde Zaharreko eta Deustuko zenbait gurasok hizkuntzarekin duten lotura (ideiak, praktikak eta bizipenak) ezagutzea eta familietan aktibatzen diren hizkuntza-planifikazioak jasotzea. Horretarako, 7 elkarrizketa sakonak egin genituen 13 guraso gazterekin 2024ko udaberrian eta uda hasieran. Hirugarren fasearen helburua euskararen erabilera areagotzeko interbentzio eraginkor baten gakoak zein izan daitezkeen ezagutzea izan da. Horri begira, gurasoen arteko euskarazko harreman sareak sortzeko (edo indartzeko) esku-hartze programa bat proposatu zen 2024ko udazkenean Gau Beltza erritu eta ospakizunak ardatz hartuta. Azkenik, laugarren fasean, ikerketa prozesu osoan jasotako materiala antolatu, aztertu eta landu da, informazio guztiarekin eskuartean duzun txostena osatuz.

Jarraian, beraz, bi urte hauetan egindakoa laburbildu dugu. Lehen lau kapituluetan proiektuaren helburuak, prozedura eta erabilitako metodologia azaldu dira. Bostgarren eta zortzigarren kapitulu artekoek ikerketaren emaitzen analisia jasotzen dute eta, ondoren, esku-hartzearen azalpen eta azterketa bildu dugu. Azken gogoetak hamargarren kapituluan landu dira.

2 IKERKETAREN LANTALDEA

Ikerketaren Zuzendaria: Jaime Altuna Ramírez (EHUko ikerlaria eta irakaslea)

Ikerketaren koordinatzailea eta ikerlaria: Olatz Altuna Zumeta (Soziolinguistika Klusterreko ikerlaria)

Ikerlaria: Josu Ozaita Azpiroz (Antropologo ikerlaria)

3 IKERKETAREN HELBURUAK

Deustu eta Alde Zaharrean egin den ikerketa honek hiru helburu nagusi izan ditu:

1. Bilbon haur txikiak dituzten zenbait gurasok dituzten hizkuntza-ideologiak (ideiak, iritziak, diskurtsoak eta errepresentazioak) eta hizkuntza-praktikak ezagutzea egunerokotasunean eta Bilbok eskaintzen duen testuinguruan kokatuta.
2. Guraso eta familien arteko harreman-sareen berri izatea, euskararen erabilera areagotzeko aukerak identifikatu ahal izateko.
3. Eskuhartze bat egitea etorkizunari begirako interbentzioak diseinatzeko gidalerro edota gako praktiko batzuk eskuratu eta zerrendatu ahal izateko.

4 IKERKETAREN PROZEDURA ETA METODOLOGIA

Jarritako helburuak kontuan harturik eta Bilbo hiriak dituen ezaugarri sozialak eta soziolinguistikoei erreparatuta, ikerketa garatzeko Bilbo osatzen duten zortzi barrutietatik bi barrutitan aritzea erabaki zen; hain zuzen, Deustun eta Ibaiondon. Ondoren, bi gune horietan eremu zehatzagoak aukeratu ziren bertako zenbait familiarekin lana egiteko: Alde Zaharra eta Atxuri ingurua, eta Deustuko San Pedro, Erribera eta Arangoiti ingurua.

Ikerketaren ibilbidea lau fasetan antolatu zen. Etapa guztietan metodo eta teknika kualitatiboak erabili dira, ikerketaren helburuetan hartzun subjektibitatean (iritziak, usteak, irudikapenak, bizipenak, eta abar) arreta jartzea lehenetsi baitzen.

Hizkuntzaren-antropologian oinarritutako hurbiltze etnografikoaren metodologia erabiliz, ikerketa kualitatiboa egin da. Hiru izan dira erabili diren ikerketa-teknika nagusienak: behaketak, elkarriketak (banaka eta taldean) eta dinamika partehartzaileak. Baliatutako teknika horien ezaugarriak honako hauek dira:

1. **Behaketak:** Behaketaren bidez ikertu nahi den egunerokotasunaren informazioa jasotzeko aukera izan dugu. Ikertu diren hartzun testuinguru soziolinguistikora lehen hurbilketa egiteko tresna izan da.

2. Banakako elkarriketak: Elkarriketa formal irekiak izan dira, hau da, ikerketaren helburuetan oinarritutako gidoi baten bidez jaso eta egituratu dira guraso gazteek hizkuntzaren inguruan dituzten ideiak, bizipenak eta praktikak.
3. Talde-elkarriketak: Banakako elkarriketetan bezala, talde-elkarriketetan gurasoen diskurtsoak eta iritziak jaso dira, baina oraingo honetan elkartu direnek partekatu dituzten solasaldien bidez.
4. Dinamika partehartzailea: Hirugarren fasearen helburua euskarazko egitasmo baten inguruan gurasoak eta haurrak biltzea izan da. Horri begira, modu ludiko eta gozagarrian euskararekin zerikusia duten bizipenak sustatu eta partekatu dira Gau Beltza erritu eta ospakizunak ardatz hartuta. Hitzaldiak, familia tailerrak eta liburu irakurketa eta solasaldien bidez familien arteko elkar ezagutza bultzatu eta sendotzeko sareak sortzen lagundu nahi izan dugu. Era berean, burutu diren talde dinamiken saioen bidez guraso gazteei aukera eman zaie Bilbo eta euskararen arteko harremanaz gogoetatu, eztabaidatzeko eta, batez ere, ideiak eta proposamenak luzatzeko.

Lehen bi fasetan, guztira, 21 lagunekin garatu dugu ikerketa kualitatiboa, aipatutako teknikak baliatuz. Hirugarren faseko dinamiketako tailerretan 52 guraso eta 47 haur hurbildu dira eta eskoletako tailer eta topaketetan 136 haurrek parte hartu zuten. Horiek guztien ekarpena jaso da eta hariekin batera eraiki da txosten honetan jasota geratu den ezagutza guztia.

5 IKERKETAREN FASEAK

Ikerketa 2023ko udaberrian abiatu zen eta lau fasetan garatu da. Lehen fasean ikerketa zer gunetan egingo zen aukeratzeko aurre-ikerketa egin zen eta hautatutako bi gune horien familien errealitatera hurbilpen bat egin zen. Bigarren fasean, Alde Zaharreko eta Deustuko zenbait gurasok hizkuntzarekin duten lotura (ideiak, praktikak eta bizipenak) ezagutzeaz gain, familietan aktibatzen diren hizkuntza-planifikaziotara gerturatu ginen. Hirugarren fasean haur eta gurasoentzat Gau Beltzaren inguruko esku-hartze programa bat proposatu zen. Laugarren fasean, ikerketa prozesu osoan jasotako materiala antolatu, aztertu eta landu da.

Ondorengo orrietan fase bakoitzaren aurkezpena egin da ikerketa-urrats bakoitzean egindakoa zehatzago azalduz.

5.1 LEHENENGO FASEA: GURASO GAZTEEN TESTUINGURUA EZAGUTZEN

Lehen fase honen helburua hiriko errealitatera, dinamiketara eta hiztunengana hurbiltzea zen, ikerketa garatuko zen bi guneak hautatzeko eta testuinguru zehatz horien familien errealitatera ezagutzen hasteko. Esan daiteke, beraz, lehen fase honek bi etapa izan zituela.

5.1.1 Guneen aukeraketarako aurre-ikerketa

Hasierako etapa honetan bi lanketa egin ziren:

1. **Datu soziolinguistikoen azterketa:** Biztanleria eta Etxebizitzen Zentsuko eta Kale Neurketaren datuak aztertu ziren.
2. **Elkarrizketak:** hiru elkarrizketa egin genituen Bilbon bizi diren hiru pertsonarekin. Hirurak euskararekin harremanetan duten lanbideetan aritzeaz gain (administrazioan, euskalgintzan eta hezkuntzan), Bilbo hiriaren ezagutza sakona dute eta hirurak gurasoak dira. Elkarrizketak transkribatu egin ziren ondorengo analisi lanerako. Hauek dira elkarrizketatu ziren pertsonak:

1B1.1 Guraso eta euskalgintzako kidea. Gizona (2023-04-05)

1B1.2 Guraso eta irakaslea. Emakumea (2023-05-05)

1B1.3 Guraso eta euskara teknikaria (2023-05-05)

Lantaldeak bi lanketa horien bidez jasotako informazioa sakon aztertu ondoren, ikerketa Deustun eta Alde Zaharrean egitea erabaki zen.

5.1.2 Hautatutako guneen (Deustu eta Alde Zaharra) familien errealitatera hurbilpena.

Lehenik eta behin, ikerketan parte hartuko zuten gurasoen profila edo ezaugarriak definitu ziren. Guraso informatzaile horiek euskararekiko interes gutxieneko bat izatea bete beharreko ezinbesteko baldintza izatea erabaki zen.

Horrez gain, ikerketaren hastapeneko fasean, norbanako horien elkargune naturalak zedarritu ziren (eskolak, elkarteak edo antzeko eremuak). Gune horien errealitatera hurbilpen bat egin zen, bertako dinamikak zein biztanleak ezagutzeko asmoz. Horretarako erabili ziren teknikak behaketak eta elkarrizketak izan dira.

- **Behaketak:** ikerlariak Deustu eta Alde Zaharreko kaleko bizitzan murgildu ziren bertako egunerokotasuna ezagutzeko xedez. Bi eratako behaketak egin ziren: ikerlariak bakarka egindakoa batetik eta herriar batek edo bik gidatutakoa bestetik. Behaketa guztien emaitzak jaso egin ziren eguneroko batean bildutako informazioa aurrerago aztertu ahal izateko. Behaketa hauetarako aurrez diseinatutako gidoi bat erabili zen (ikusi 13.2. eranskina). Hauek dira ibilbide gidatuak egin ziguten pertsonen profila:

1AZb: Alde Zaharra. Lagun bat. Gurasoa. Euskalduna. Gizona (2023-06-27)

1Db: Deustu. Hezitzaileak. Lagun bi. Euskaldunak. Emakumeak. (2023-06-27)

- **Elkarrizketak:** gune bakoitzeko bi elkarrizketa egin ziren. Elkarrizketak auzoetako gurasoen errealitatea ongi ezagutzen duten norbanakoekin egin ziren. Elkarrizketatuak eskola, guraso elkarte edo bestelako auzoko elkartetako kideak dira edo izan dira. Elkarrizketa hauek lagundu digute Deustu eta Alde Zaharreko familien errealitatera gerturatzeko eta hurrengo faseetan kolaboratu zezakeen familiengana hurbiltzeko: gurasoen profilak hobeto definitzen eta guraso hauekin kontaktuan jartzen. Elkarrizketa hauetarako aurrez diseinatutako gidoi bat erabili zen (ikusi 13.1. eranskina). Hauek dira elkarrizketatu genituen pertsonen profila:

1AZ1.1: Alde Zaharra. Guraso eta irakaslea. Euskalduna. Gizona (2023-07-13)

1AZ1.2: Alde Zaharra. Guraso eta irakaslea. Euskalduna. Gizona (2023-07-06)

1D1.1: Deustu. Gurasoa. Gurasoa Emakumea (2023-06-27)

1D1.2: Deustu. Gurasoa. Euskalduna. Gizona (2023-07-07)

Lehen fase honetan 10 lagunek parte hartu zuten elkarrizketetan eta behaketetan: 5 emakume eta 5 gizon.

Fase hau 2023ko apirilean hasi eta 2023ko uztailean amaitu zen.

5.2 BIGARREN FASEA: FAMILIA HIZKUNTZA POLITIKAK EZAGUTZEN

Fase honen helburua zen Alde Zaharreko eta Deustuko zenbait gurasok hizkuntzarekin duten lotura (ideiak, praktikak eta bizipenak) ezagutzea eta familietan aktibatzen diren hizkuntza-planifikazioak jasotzea. Horretarako aurreko fasean jasotako informazioa aztertuta, ikerketarako interesgarriak izan zitezkeen hiru guraso profil definitu ziren:

1. PROFILA (1P): Euskaraz gaitasuna duten eta egunerokoan hitz egiten saiatzen diren gurasoak.

Lehen fasean parte hartu duten gurasoek horrelako ezaugarriak zituzten. Bigarren fasean ere ezaugarri horiek dituzten guraso batzuk elkarrizketatu genituen, baina oraingoan familia hizkuntza politikari begira arituko ginen: familia barruko hizkuntza-planifikazioa, praktikak, diskurtso eta iritziak...

2. PROFILA (2P): Euskaraz gaitasun txikia dutenak edo hizkuntza-muda egin duten gurasoak.

Profil hau oso ohikoa dela identifikatu genuenez oso gako interesgarriak eskaini ditzaketela pentsatu genuen, lagungarria ez den testuinguru soziolinguistiko batean hizkuntza-muda helduaroan egiteari lotutako aukerak eta oztopoak analizatzeko eta baita familia barruko hizkuntza-politiken inguruko bizipenak jasotzeko ere.

3. PROFILA (3P): Euskaraz dakiten gurasoak baina egunerokoan praktika handirik ez dutenak.

Gaur egun, euskaraz aritzen ez direnak baina potentzialki gerturatu daitezkeenak euskararen dinamikara. Talde honetan sartuko lirateke euskaraz ikasketak egin dituzten hiztun berriak baina egunerokoan ez dutenak euskara apenas erabiltzen: gaitasun erlatibo txikia dutelako edo nahiko ahaztua dutelako. Baita euskaraz ondo moldatzen direnak, baina egunerokoan euskaraz egiteko beharrik sentitzen ez dutenak ere. Oso zaila izan da profil honetako pertsonak lortzea eta helburua bi elkarrizketa egitea bazen ere, azkenean bakarra egin dugu.

Bigarren fase honen lehen elkarrizketak burutu ondoren, laugarren profil bat definitzea interesgarria izan zitekeela erabaki genuen:

4. PROFILA (4P): Euskal Herritik kanpoko jatorria duten eta euskaraz ez dakiten gurasoak

Lehen eta bigarren profileko gurasoekin egindako elkarrizketetan maiz aipatzen zituzten jatorri anitzeko gurasoen iritzia jakiteko interesa. Nahiz eta hasiera batean ikerketa honen xedea euskaraz dakiten gurasoak ziren, profil honekin elkarrizketa esploratzaile bat egitea erabaki genuen, aurrera begira egin daitezkeen bestelako ikerketa batzuetarako gako batzuk jaso genitzakeelako. Zehazki, Alde Zaharrean bizi diren Afrikako iparraldean jaioetako bi aita eta Venezuelan jaioetako Deustuko ama bat elkarrizketatu genituen. Profil honetako elkarrizketa gutxi izan direnez, analisirako baino kontrasterako eta aurrera begira sortu daitekeen ikerketa lerro berri baterako esplorazio gisa erabili dira.

Fase honetan talde eta banakako elkarrizketen teknikak erabili ziren:

- **Talde elkarrizketak:** gunee bakoitzeko bi talde elkarrizketa egin ziren eta guztira 10 lagun elkarrizketatu genituen. Hauek dira elkarrizketatu genituen pertsonen profila:

2AZ1P: Alde Zaharra. 2 Guraso (gizon 1+emakume 1) 1. Profila (2024-01-17)

2D1P: Deustu. 3 Guraso (gizon 1+emakume 2) 1. Profila (2023-11-22)

2D2P: Deustu. 3 Guraso (emakume 3) 2. Profila (2023-11-24)

2AZ4P: Alde Zaharra. 2 Guraso (gizon 2) 4. Profila (2024-06-12)

- **Banakako elkarrizketak:** hiru banakako elkarrizketa egin genituen bigarren fasean eta biak Alde Zaharreko gurasoekin izan ziren. Hauek dira elkarrizketatu genituen bi guraso horien profila:

2AZ2P: Alde Zaharra. Gurasoa. Emakumea. 2. Profila (2024-01-10)

2D3P: Alde Zaharra. Gurasoa. Gizona.-3. Profila (2024-02-28)

2D4P: Alde Zaharra. Gurasoa. Emakumea. 4. Profila (2024-06-19)

Elkarrizketa horietan ondorengo gaiak landu ziren aurrez diseinatutako gidoi baten bidez (ikusi 13.3. eranskina):

- Euskara Bilbon: non, norekin, zertan, nola.... erabiltzen da euskara?, hau da, euskararen presentzia eta ausentziaren mapa(k).
- Euskarari buruzko ideiak, usteak, iritzia, argudioak... Hizkuntz politikaren gaineko ezagutza, euskaletza, Euskaraldia...
- Euskararekin lotutako bizipenak eta esperientziak: norbanakoak zein kolektiboak, gurasoen ikasketa prozesuak, seme-alaben hizkuntza ibilbideak, hizkuntza-sozializazioa, hizkuntza-mudak...
- Familia hizkuntza politika: hizkuntza-ideologiak, praktikak eta estrategiak

Bigarren fase honetan 13 lagunek parte hartu zuten elkarrizketetan: 8 emakume eta 5 gizon; Deustukoak 7 eta Alde Zaharrekoak 6.

Fase hau 2023ko urria eta 2024ko ekaina bitarte garatu zen.

5.3 HIRUGARREN FASEA: familien arteko harremanak saretzen eta aktibatzen

Hirugarren fasearen helburua euskararen erabilera areagotzeko interbentzio eraginkorren gakoak zein izan daitezkeen ezagutzea da. Horri begira, familien arteko euskarazko harreman sareak sortzeko (edo indartzeko) esku-hartze programa bat proposatu zen.

Fase honetan, Alde Zaharreko eta Deustuko zenbait hiztun euskaldun elkarlanean jarri ziren eta euskarari atxikitako proposamenak zein aurreikuspenak irudikatu ziren. Zehazki, Gau Beltza erritu eta ospakizunen inguruko dinamika partehartzaileak proposatu zitzaizkien. Dinamika hauen helburuak honako hauek ziren:

1. Euskarazko egitasmo baten inguruan gurasoak eta haurrak biltzea.
2. Modu ludiko eta gozagarrian euskararekin zerikusia duten bizipenak sustatzea eta partekatzea.
3. Familien arteko elkar ezagutza bultzatzea eta sendotzea, eta horrela beraien arteko sareak sortzea giro atseginean eta euskara sustatuz.
4. Aurrerantzean euskaratik eta euskaraz garatu daitekeen ekimen baterako aukera ematea.

2024ko urrian garatu ziren hirugarren fasearekin lotutako dinamikak.

5.3.1 Zer da Gau Beltza?

Udazkenetik negurako egun gero eta ilunagoen bueltan, erritu ezberdinak egin izan dira Europa osoan. Baita Euskal Herrian ere. Urtearen heriotza, uzta bilketa, hildako senideen oroimena... barrura begirako ariketan jartzen gaitu urtaro honek. Aldi berean, iluntasunak eta heriotzaren gaiak elkar beldurtzeko jolasean aritzeko parada eman ohi digu.

Azken urteetan, harriduraz jaso ditugu garai bateko Euskal Herriko kontakizunak zeinetan kalabazak edo arbiak hustu, aurpegi itxura eman, kandela txiki bat sartu eta bide bazterretan argizatuta jartzen ziren bizilagunak beldurtzeko.

Erritual ugari mantendu dituen herria da gurea. Baina beste asko urteetan zehar galtzen joan dira, egiten zirenen ezagutza ere ia galtzeraino. Arimen Gaua edo Gau beltza horietako bat da, baina azken hamarkadan berreskuratu eta berriak sortzeko ahaleginean, herriz herri hasiak dira berriz ere udazkeneko egun ilunetako jaiak antolatzen: kalabazak hustu, trapu zaharrekin aurpegia estali, beldurra eragin... Ospakizun hauek ikuspegi komunitariotik antolatu ohi dira, aurrekontu txikiekin eta eredu jasangarriak bultzatuz (kalabaza naturalak, garaiko gaztaina erreak, trapu zaharrak moztzeko gisan...). Herri bakoitzean abiapuntu ezberdina izan du jaiak, antolatzaileen izaera anitza izan delako: euskara elkarteak, guraso taldeak, kultur etxe eta liburutegiak, gazte-lekuak... Guztiek baina, euskara izan dute ardatz, bai antolaketan eta baita ekintzetan ere. Gaua, beldurra, gozokiak, gauez lagunekin ateratzea, moztzekoak... Gazteenentzat erakargarritasun handia duten elementuak bateratzen dituzte jai hauek.

5.3.2 Eskuhartze dinamikak

Gau Beltza ospakizunen inguruko hiru ekimen proposatu ziren. Lehena, auzo bakoitzean gurasoei eta orohar interesa izan dezaketen helduei zuzendutako hitzaldi bana izan zen. Bigarrena, ikastetxeei zuzendutako liburu irakurketa eta idazlearekin topaketa. Hirugarren ekimena haur eta gurasoentzat tailerra izan zen. Hona hemen ekimen bakoitzaren azalpen laburra.



- **Hitzaldiak**

Itzalitako Kalabazen Berpiztea (Altuna & Ozaita, 2018) lan etnografikoa oinarri hartuta, Gau Beltza edo Arimen Gauaren jatorriaren berri izateaz gain, Euskal Herrian garai batean egiten zirenak ezagutzeko hitzaldiak dira. Gainera, solasaldien helburua erritual hauen berreskurapen edo berrasmatzean hasiak diren herrietako esperientziak nolakoak diren ikustea eta Bilbon halako ekimenak martxan jartzeko pentsatzen hasteko tarteak eskaintzea zen.

Bi hitzaldi eskaini ziren:

2025-10-02: Deustuko udalategian. Arratsaldeko 18:00etan. Hizlaria: Josu Ozaita.

2025-10-03: La Bolsa udalategian. Arratsaldeko 18:00etan. Hizlaria: Jaime Altuna.

- **Liburu irakurketa eta idazlearekin topaketa**

Gau Beltza (Ozaita & Larratxe, 2020) liburua irakurtzeko aukera eskaini zitzaien Deustu eta Alde Zaharreko ikastetxe guztiei eta Josu Ozaita idazlearekin elkartzeko topaketa bideratu ziren. Liburuak Gau Beltza jaiaren inguruko egungo haur talde baten bizipenak eta abenturak kontatzen ditu.

Hiru topaketa egin ziren:

2025-10-22: Mujika Eskolan. Idazlea: Josu Ozaita. 50 haur. LH 5-6.

2025-10-22: Atxuriko Eskolan. Idazlea: Josu Ozaita. 46 haur. LH 4-5.

2025-10-23: Deustuko Ikastolan. Idazlea: Josu Ozaita. 40 haur. LH 4.

- **Tailerrak familientzat**

Guraso eta haurrei zuzendutako tailer honen bidez Gau Beltza ospatzeko oinarritzekoak diren bi elementurekin jolasteko aukera izan zen. Batetik, kalabazak hustu eta aurpegi itxura eman zitzaien, ondoren, barruan kandela bat jarrita sortzen duen irudi xelebrea ikusteko. Horrez gain, aurpegiak margotzeko aukera eskaini zen. Gainera, Gau Beltza ospatzen diren lekuetako bideoak ikusi genituen.

Tailer honek galdutako ohitura bat berreskuratzeko edo birsortzeko aukera eman zigun, modu ludiko eta gozagarrian euskararekin zerikusia duten bizipenak sustatuz eta partekatuz. Horri buruz hausnartzeari tarrea ere eskaini genion, uste baitugu ekimen honek piztu dezakeela familien arteko sareak sortzeko txinparta. Tailerraren antolaketaren informazioa zehatza 13.4. eranskinean eta 9. kapituluari topa daiteke. Egin ziren tailerren argazki batzuk ere 13.5. eranskinean jaso ditugu.

Bi tailer eskaini ziren, bat Alde Zaharrean eta beste bat Deustun, baina Deustun izen ematea handia izan denez, azkenean hiru tailer egin ziren:

- **2025-10-22:** Alde Zaharra. La Bolsa Udaltegia. 5 guraso eta 6 haur
- **2025-10-23:** Deustu 1. Deustuko Udaltegia. 23 guraso eta 20 haur
- **2025-10-23:** Deustu 2. Deustuko Udaltegia. 24 guraso eta 21 haur

Tailerraren kudeaketan Deustuko Txantxiku Elkarteko aisialdi hezitzaileen laguntza izan genuen.

5.4 LAUGARREN FASEA: bukaerako emaitza eta aurkezpena

Azken fase honetan prozesu osoan jasotako materiala antolatu, aztertu eta landu da. Hori eginda, ondorioekin bildutako txosten hau osatu dugu. Azkenik, ikerketaren emaitzak aurkeztuko dira. Gaur gaurkoz aurkezpenaren formatua itxi gabe dago.

Fase hau 2025eko apirilean amaituko dugu.

6 BILBO. ALDE ZAHARRA ETA DEUSTU. ARGAZKI OROKORRA

Zalantza gutxi dago: hizkuntza baten biziberritze prozesuan haurren hizkuntza-sozializazioak garrantzi handia du. Baina Paula Kasares soziolinguistak adierazi zuen moduan «gertakari horri heldu nahi izateak gurasoek seme-alabak euskaraz hazteko edo txikitatik euskaraz jabe daitezen ahalbidetzeko izan dituzten jarrerak eta portaerak ez ezik, hiltunen inguruetako gizarte aukerak nahiz hizkuntzaren beraren egoera ere aztertzea eskatzen du» (Kasares, 2014:23). Hau da, belaunaldi berrien eta haien familia testuinguruen azterketa soziolinguistikoa egiteko, tokian tokiko eta unean uneko espazio sozialean gertatzen ari diren gizarte prozesuak eta norbanakoen bilakaerak aztertu behar dira.


Horregatik, behaketetan eta elkarriketetan jasotakoak oinarri hartuta, ikerketa lan honen emaitzak testuinguru horren azterketa eginez abiatu dugu, jarraian gurasoen eta haien seme-alaben ikasketa ibilbideen gora beherak analizatzeko. Azkenik, ikerlan honen xede zehatzean sakondu dugu: familia hizkuntza ideologietan, hizkuntza praktikan eta hizkuntza estrategietan.

6.1 DATU DEMOLINGUISTIKOEN ERREPASO LABURRA

Bilboko Alde Zaharrean eta Deustun egin den ikerketa kualitatiboan, batez ere, zenbait gurasoren ideiak, iritziak, diskurtsoak eta errepresentazioak jaso ditugu eta, horren bitartez, osatzen dituzten familien hizkuntza-praktiketara gerturatu gara. Abiapuntu gisa, hala ere, aurretik egin diren ikerketa soziolinguistikoaren datuak kontuan hartu ditugu, hiltun horiek dagokien testuinguruan kokatu ahal izateko.

Lehenik eta behin, 1. grafikoan eta taulan Bilbon 1981etik 2021era euskararen gaitasun eta kale-erabileraren bilakaera jaso dugu:

**1. Grafikoa eta Taula. EUSKARA-GAITASUNAREN ETA EUSKARAREN KALE-
ERABILERAREN BILAKAERA. BILBO, 1981-2021. (%)**




%	1986	1991	1993	1996	1997	2001	2006	2011	2016	2021
Hiztun euskaldunak	9,1	9,7	-	14,3	-	15,3	24,2	22,1	27,7	29,9
Kaleko erabilera: euskara	-	-	4,3	-	4,5	4,6	4,3	3,2	2,5	3,5

Iturria. Euskararen Adierazle Sistema eta Soziolinguistika Klusterra.

Beraz, azken datuen arabera, Bilbon % 29,9 dira hiztun euskaldunak. Nabarmentzekoa da hiztun horiek geroz eta gazteagoak direla (ikus 2. Grafikoa). Zehazki, 1986an haurren artean euskaraz hitz egiteko gai zirenak % 11,8 besterik ez ziren; gaur egun, ordea, % 81,5 dira. Hurrengo grafikoan ikus daiteke euskaldunen proportzioaren bilakaera zein izan den adin-taldearen arabera.


2. Grafikoa. EUSKALDUNEN BILAKAERA ADINAREN ARABERA. BILBO 1986-2021 (%)



Iturria: Euskararen Adierazle Sistema (<https://www.euskadi.eus/eas/>)

Ikerketa kualitatiboan, arreta guraso gazteengan eta familietan jarri dugunez, euskararen etxeko erabilerari buruzko datuak ere ekarri nahi izan ditugu. Beheko bi grafikoek erakusten digute, batetik, euskararen erabilera Bilboko etxeetan apenas aldatu dela azken hogeita hamar urteetan, eta bestetik, gaur egun hamar biztanletik bakarrak erabiltzen duela euskara etxean.

3. Grafikoa. EUSKARAREN ERABILERA ETXEAN. BILBO 1991-2021 (%)



Iturria: Euskararen Adierazle Sistema (<https://www.euskadi.eus/eas/>)

Ikerketa, Bilbo osatzen duten zortzi barrutietatik bi barrutitan egin da: Ibaiondon eta Deustun. Zehazki, bi gunehorietako eremu zehatz hauetan: Alde Zaharra eta Atxuri ingurua, eta Deustuko San Pedro, Erribera eta Arangoiti ingurua. Beraz, hiriko gunehorietako datu soziolinguistikoak ere ekarri ditugu. 4. taulan eremu bakoitzaren populazioa eta hiztun euskaldunen kopurua jaso dugu:

4. Taula. EUSKARA GAITASUNA EREMUKA. BILBO 2021.

	Populazioa	Hiztun euskaldunak	Hiztun euskaldunak %
San Pedro	19124	6496	33,96
Erribera	384	129	33,59
Arangoiti	4202	1088	25,89
Alde Zaharra	6929	2732	39,43
Atxuri	5468	1793	32,79
Iturria: Euskararen Adierazle Sistema (https://www.euskadi.eus/eas/)			

Etxeko hizkuntzari dagokionez, 5. taulan ikus dezakegu zein diren eremu bakoitzaren ehunekoak:

5. Taula. ETXEKO HIZKUNTZA EREMUKA. BILBO 2021 (%).

%	euskara	gaztelania	biak	beste bat
San Pedro	4,5	84	9	2,5
Erribera	5,2	81,8	10,2	2,8
Arangoiti	2,5	88,4	5,1	4
Alde Zaharra	6,8	77,6	11,9	3,7
Atxuri	4,7	82,1	9,1	4,1
Iturria: Euskararen Adierazle Sistema (https://www.euskadi.eus/eas/)				

Aurreko bi taula horietan ikusten den bezala, aztertutako gunehorietan euskal hiztun kopurua eta euskara etxeko hizkuntzatzat dutenen ehunekoak Bilboko datu orokorrak baino zertxobait altuagoak dira, Arangoitin izan ezik.

Kale-erabilera datuak ere aztertu ditugu, zehazki Deustuko eta Zazpi Kaleetan azken neurketan jasotakoak (Soziolinguistika Klusterra, 2021). Deustun neurtutako

euskararen erabilera %1,7 da eta Alde Zaharrean %5,3. Kasu honetan, adierazgarria da Deustuko erabilera Bilboko batez bestekotik behera egotea. Alde Zaharreko ehunekoa, aldiz, Bilbokoa baina zertxobait handiagoa da.

6.2 TESTUINGURU SOZIOLINGUISTIKOAREN ANALISIA

Datu kuantitatiboetan bezala, egin ditugun elkarrizketetan oso argi ageri da **euskararen egoera Bilbon oso ahula** dela. Bizkaiko hiriburua ez da hautematen euskaraz bizi den hiri gisa. Hala dio, elkarrizketatutako guraso batek euskararen presentziari buruz galdetzerakoan: «Ba Bilbon, [euskararen presentzia] oso eskasa da, ez dago. Oso gutxi entzuten da eta [oso gutxi] hitz egiten da» (2AZ1P:3). Egoera horrek harridura ere sortu izan du Euskal Herritik kanpo etorritako batzuei: «Ni etorri nintzenean, izan zen: "hamen ez da euskaraz erabiltzen", duela hogeitaz urte, izan zen... "leku guztietatik ni juaten naz eta lehenengo hitza beti erderaz da!"» (2D2P:4). Sentsazio hori oso orokortua dela jaso dugu ikerketan eta zenbaitzuk egoera larritasunez bizi dute:

Oso gatxa da, oso testuinguru erdalduna da, orduan horren kontra oso oso gatxa da. Aukera gitxi daukazuz. Nik neuk be Bilbon bizi nazenetik askoz be gehiago erabiltzen dot erdera. Askoz be gehiago ikusten nire burua bapaten erderaz pentsatzen, lehen inoiz ez nebana egiten (2AZ1P:6)

Neurketa soziolinguistikoei berresten dituzte jaso dugun pertzepzio orokortu hau. 2021ean egindako Hizkuntzen erabilaren kale neurketak Bilboko kaleetan jasotako elkarrizketen %3,5 soilik zen euskaraz (Soziolinguistika Klusterra, 2021). Bestalde, azken hamarkadetan euskaraz aritzeko gaitasuna duten hiztunen kopurua handitu bada ere, oraindik ez da populazioaren heren batera iristen, 5.1. grafikoa eta taulan ikus daitekeen moduan.

Euskaldunak sakabanatuta daudela eta, ondorioz, **euskal hiztun komunitate trinkorik ez** dagoela errepikatzen den ideia da: «Ze azkenean ere euskeraz zabitz iriatxuetan. Guraso batzuekin, lagun batzuekin» (2AZ1P:6). Hain zuzen ere, babesa ematen duen ekosistema baten beharraz mintzo zen Deustuko ama batek: «hizkuntza osasuntsuago egoteko ekosistema txikitxu bat. Eta hori inportantea da, es que gauz euskaldunak sakabanatuta» (2D1P:13).

Beraz, euskaraz egiteko **oztopo handiena gaztelaniaren presioa** da, testuinguru soziolinguistiko oztopatzailea delako eta baita gizarte mailan gaztelaniak hartzen duen garrantzi eta prestigioarengatik ere. Bilbon jaio, ikasketa guztiak gaztelaniaz egin eta euskaltegian euskara ikasi duen Deustuko ama batek zehatz laburbildu zuen hiru hitzekin gaztelaniaren hegemonia dela traba handiena: «Oztopoa da erdera» (2P2D:21).

6.2.1 Hiria vs herriak

Bilboko egoera soziolinguistikoa maiz Bizkaiko zenbait herrien irudiarekin konparatzen da. Hau beste ikerketetan errepikatzen den kontua da: «testuinguruari buruzko balorazioak egiten dituztenean, euren ingurukoa zelakoa den esaten dute, eta askotan testuinguru ezberdinak konparatzen dituzte» (Ortega et al, 2016: 84). Esan daiteke, **euskara herri izaerarekin lotuta** agertzen dela, edo, gutxienez, zenbait herrien izaerarekin uztartuta eta, aldiz, hiri izaera gaztelaniari lotuta

agertzen zaigu, Bilbo eta inguruko hiriak batez ere: «Barakaldon, Bilbon, Leioan, Santurtzin giroa da... nahiko herri erdaldunak dira. Beste gauza bat da Markinan bizi bazara, bai, azkenean kalera aterako zara eta dena euskaraz» (2D1P:12).

Batzuetan hiri barruko harremanak euskaraz eraikitzeke garaian ere, herri hauek duten izaera lagungarria zaie Bilbon bertan ere: «Nik Bilbon ein doten koadrilan be lagun batzuk euskaldunak gara, herri euskaldunetakoek» (1:6E).

6.2.2 Auzoak eta testuinguru lagungarriak

Hala ere, elkarrizketetan parte hartu dutenek Bilbo hiriaren baitan ere testuinguru geografiko lagungarriak eta oztopatzaileak desberdindu daitezkeela adierazi dute. Esaterako, **auzo batzuk irudi nabarmen euskaldunagoa** dute¹: «Auzoen arabera, bai egia da, Bilbo zaharrean edo Alde Zaharrean eta Deustu bertan ere eta Santutxun euskara gehiago entzuten dala beste auzo batzuetan baino» (2D1P:5).

Hain zuzen ere, ikerketa garatu diren auzoak (Deustu eta Alde Zaharra) testuinguru soziolinguistiko lagungarri gisa hautematen dira. Deustun Bilboko gainontzeko auzoetan baina euskararen presentzia handiagoa dela oso zabaldutako ideia dela jaso dugu: «Nik [egoera] Deustun Bilbon baino hobeto ikusten dut» (2D2P:4). Nortasun berezia eta herri izaera modukoa gordetzen duen sententzia nabarmena dago: «Es que herri bat da Deustu. Es ke ez dauka zerikusirik. Betidanik atera du beste gauza bat» (2D2P:10). Gainera, Euskal Herriko beste herrietatik populazioa etorri izanak eragina duela ageri zaigu. Batetik, unibertsitateko ikasle askok bertan etxebizitza alokatzen duelako eta, bestetik, garai batean ontzioletan lana egitera Bizkaiko kostaldeko herrietatik (Bermeo, Ondarroa, Lekeitio...) etorri zirelako eta haien familietan euskara mantendu delako.

Esan bezala, Alde Zaharrak ere badu gune lagungarriaren irudia, baina pertzepzio hau ez da hain argia.

*Haber yo sé que el Casco Viejo es una, bueno, es una zona donde comparado con otros barrios se habla bastante en euskera, ¿no? (...)
El movimiento que conozco del barrio, es un movimiento que reclama el barrio, no para turistas, si no para los habitantes del barrio y lo reclama el euskera. (2 AZ:1)*

Alde Zaharrean bizi den elkarrizketatutako emakume horren hitzetan turismoari lotutako galera kutsu bat nabari da eta antzera mintzo izan dira beste batzuk ere. Erabaki sozioekonomikoek hizkuntza dinamika sozialetan duten eraginaren hausnarketa honek errepikatu den ideia horren isla da:

Se está impulsando un giro del Casco Viejo hacia el turismo. Y eso va a ser siempre en detrimento del euskera. Además cuando vas a un lugar y ves que es el lugar es para el turismo, no para la gente originaria, pues, pierde encanto. Entonces yo creo que además como estrategia turística es mala. Y enfocar la identidad del barrio hacia la población que vive en ella, con todo lo que conlleva, creo que obviamente tendría un impacto muy bueno en el euskera, porque hay mucha gente euskaldun y hay mucha gente joven euskaldun. Y por otro lado, además sería a largo plazo mucho más interesante en términos económicos. Creo que hay que visibilizar a la gente que vive

¹ Hala ere, irudi hau ez dator guztiz bat Kale Neurketaren datuekin. Azken neurketaren arabera Abandon eta Begoñan euskararen kale-erabilera altuagoa da Deustun baino (Soziolinguistika Klusterra, 2021).

aquí, que vivimos aquí (...) Pero si se expulsa a la gente joven, aquí se va a dejar de hablar euskera y la vida del barrio se va ir a tomar vientos. Aquí el euskera, en el barrio, está totalmente ligado a la gente joven, claro. A que la gente joven sienta orgullo de su barrio, y tengan la oportunidad de quedarse (2 AZ:28).

Hortaz gain, auzo hauek badituzte **euskarari lotuago identifikatzen diren gune zehatzak**. Deustun San Pedro ingurua, Oskarbi (Madariaga) eta ikastola ondoko parkea dira gehien aipatu direnak. Toki fisikoez gain, "Berbaizu" eta "Txantxiku" euskaraz funtzionatzen duten talde gisa duten garrantzia nabarmendu da, baita guraso elkarteak, Gaztetxea, Jai Batzordea edo Tintigorri konpartsa ere euskarazko ekimenak antolatzen dituztelako.

Baina bi auzoetan **eskolak** dira elkarriketatu ditugun guraso guztientzat euskararekin identifikazio argien duten espazioak. Euskara aipatuta ze espazio datorkien burura galdetuta, denek berehala eskolak erantzun dute. Ikastetxeen bidez sortzen den ingurugiroak harreman euskaldunagoak sortzea ahalbidetzen du, nahiz eta geroz eta erdara gehiago entzuten den pertzepzioa ere oso zabalduta egon: «eskolan euskara LH arte entzuten da, gero erdara nagusitzen hasten da» (AZ1P).

Egin ditugun behaketetan kaleko **paisaiari** ere erreparatu izan diogu eta ondorioztatu dugu euskarak askoz presentzia handiagoa duela erakunde eta herri mugimenduetako adierazpen publikoetan (kartelak, oharrak, kale-izendegia...) arlo pribatuetako komertzio eta negozioetan baino (dendak, tabernak eta abar). Hala ere, ikerketan parte hartu duten gurasoek **saltoki eta taberna batzuetan euskaraz** egiteko aukera edukitzea oso garrantzitsua dela azpimarratu dute. Orohar, ondorioztatu dugu espazio hauek guztiak irlatxo gisa irudikatzeen badira ere, garrantzi sinboliko eta material handia dutela euskaraz auzo hauetan bizi nahi dute familientzat.

6.2.3 Beste adierazle sozialek duten garrantzia

Bilboko egoera soziolinguistikoan kategoria sozial zehatzek duten eraginari dagokionez, elkarriketetan parte hartzen dutenek **adina da gehien nabarmendu** dutena. Ohikoa da egungo hizkuntza-dinamikek adinaren arabera ezberdintzea, gazteenak euskararekin gehiago lotuz helduak eta adinekoak baino. Alde batetik, haur eta gurasoen arteko elkarrekintzak duen eragina nabarmentzen da: «40 urte baina gutxiago daukatenen artean, batez be seme-alabekin parkean eta euskaraz asko entzuten da» (2D1P:5). Bestetik, unibertsitate ikasketak egiten dituzten ikasle gazteen eragina ere azpimarratu dute; batez ere Deustun: «Hemen Deustun, klaro! ikasle pilo dago eta asko dira bizkaitarrak eta nabaritzen da asko, entzuten da asko, ambiente euskalduna da tabernetan» (2D2P:4).

Klase soziala ere zenbait elkarriketetan aipatzen den elementua da, nahiz ete, pertzepzio anitzak topatu ditugu gai hau elkarriketetan agertu denean. Ez da erabat argia den identifikazioa agertzen eta egungo zenbait debaten isla ageri zaigu. Alde Zaharreko guraso euskaldunen arteko talde-elkarriketa honen pasadizo hau, adibidez, zalantza horien adierazle da:

Emakumea: Ze azken baten euskera daukan familia batek ba sozialki edo sozioekonomikoki be bai maila bat dauka, ez danak berdina, baina apur bat lotuta dau, ez?

Gizona: Orduan, ze esango zenuke euskara dakitenak erdi mailakoak dila? Edo? Nola lotuta?

Emakumea: Hor duzu... kriston zera daukate nire lagunek...

Gizona: Debate horrekin zauz?...

Emakumea: Bai. nire lagunek esaten dabe ez garela erdi-mailakoak.

Gizona: Ze, goi-mailakoak?

Emakumea: Ez, langileak. Lanean bizitzeko ari garenak. Bai, nik esango nuke baietz...

Gizona: Ez zenuke lotuko euskara eta behe-maila, ez da?

Emakumea: Ez. zuk bai ala?

Gizona: Ez.

(2 AZ1P:4)

Zalantzak zalantza, euskaratik urrunago identifikatzen diren bi gizarte-sektore identifikatzen duenik ere bada:

La gente más de clase alta, creo que en general habla poco euskera, aunque bueno, algunos también hay euskaldunes, obviamente (...) Luego claro, hay mucha población, hay gente de fuera y muchas de esas familias tienen hijos, probablemente en mayor proporción que las autóctonas, han nacido aquí, y no hablan euskera en sus casas, ¿no? Pero en el colegio sí, en las escuelas hablan en euskera.
(2AZ2P:1)

Hitz horiek Xabier Aierdi soziologoak 2015ean hiriak eta euskara lotuz argitaratutako "Hizkuntza praktikak hiri mundu eta mundu hirietan: Anbibalentziaren presentzia" artikuluaaren planteamenduarekin bat dator. Aierdik "euskararen gizarte geografia" irudikatzen du kapital ekonomikoa, kulturala eta soziala kontuan hartuz eta ardatz horien arabera bost sektore bereizten ditu: goi klaseak ia ez luke euskarerik hurbilpenik; hiri klase ikasiko kideek erdizkako gertutasuna lukete; euskaldungoa deituriko sektorea erabateko hurbilpena luke eta ia erabatekoa behe klaseko sektorea; immigrazioaren gertutasuna ere txikia litzateke. Soziolinguistika Klusterrak 2019an egindako datu estatistikoaren azterketa orokor batek Aierdiren proposamena berretsi zuen *Sandwich efektua* izendatuz:

Errenta da, esan dugunez, soziodemografia eta soziolinguistika lotzen dituen aldagai pisuenetakoa. Euskararen erabilera errenta ertain-altuekin lotzen da. Zehazkiago, errenta handienak eta baxuenak gaztelaniarekin lotzen dira, eta tartekoak euskararekin. Sandwich efektu deitzen zaio fenomeno horri. Horren arabera, gaztelaniak presentzia handia du behe-mailako klaseetan eta goi-mailakoetan; euskararen indarra, ordea, erdi-mailako klaseetan nabarmentzen da. Interesgarria da fenomeno hau euskararen berreskurapenari begira. Erdi-mai-lako sektore horiek (irakasleak, funtzionarioak, lanpostu egonkorra duten langileak, esate baterako)

izan daitezke aktiboak, eragile nagusiak, eta gizarte dinamika indartsuenak abiaraz ditzaketenak (Sorolla et al., 2019:40)

Dena den, Aierdi berak onartzen duen bezala, «egoera hau zientifikoki aztertzeaz dago, eta ez legoke txarto sektore hauetan -klase eta azpiklaseetan- euskararekiko zer-nolako diskurtsoak eratu eta mantentzen dituzten ezagutzea», baina azterketa sakonago egin bitartean, interesgarria da Bilbon egin ditugun elkarriketetan ere Aierdiren planteamenduarekin bat datozen datuak jaso direla.

Alde Zaharreko emakume horren hitzetan nabari den bezala, klase sozialarekin batera jatorria ere eragina duen aldagai gisa identifikatzen da. Kasu horietan, dena den, eskolak duen garrantzia azpimarratzen da Euskal Herritik kanpo etorritako familia horien seme-alabak euskalduntzeko. Hain zuzen ere, behin baino gehiago azpimarratu den ideia atzeritik etorritakoek euskararekiko interes handiago adierazten dutela Bilbon jaiotako askok baino. Alde Zaharreko bi emakume hauen hitzak horren isla dira:

Nik bai ikusten dut asmo hori guraso [migrante] askogan eta batez ere igual ikasten hasi ez, baina behintzat dakien gitxia erabiltzen saiatzen direnak asko dire. Hitz batzuk, esaldi batzuk. Euskararekiko jarrera baikorra daukienak asko dira (2 AZ1P:12).

Sí que piensan que sus hijos van a tener más oportunidades (...) para ellos es un orgullo decir, pues mi hijo habla castellano, habla euskera, habla árabe, ¿sabes? Y además yo he visto actitudes más negativas hacia el euskera en gente de aquí, que en población inmigrante (2AZ2P:15).

Zalantzarik gabe, klase soziala eta jatorria intereseko adierazleak dira eta elkarriketatutako emakume hauen hitzak argi adierazten duten bezala, konplexutasun horren arabera hizkuntza-planifikazioa egitea komeniko litzateke:

Mucha gente de aquí que no le da la gana aprender (...) Y si coges el metro hacia el margen derecha, pasas zonas donde, ¿sabes? te cuesta encontrar un nombre euskaldun en un niño. A mí me parece que ahí entran muchas cuestiones de clase que no se abordan. Y entonces, claro, no hay una receta universal que valga para todos los colectivos y para todas las problemáticas (...) Y que en esa diversidad de problemas, yo creo que una es la resistencia de población vasca a aprender euskera. (2AZ2P:4).

Azken hamarkadetako **bilakaera soziopolitiko**a ere nabarmendu da ikerketan parte hartu dutenen artean. Frankismoaren diktaduraren garaian euskararekiko errepresioak familia askotan belaunez belauneko hizkuntza-jarraipena eten zuela kontatzen dute batzuk:

Aita eta ama erdaldunak dira bai. Bertokoak dira baina betidanik pues hori... amamak egiten du euskaraz baina, Francorekin etxean debekatu egin zuten euskaraz berba egitea ze ondokoak nahiko fatxak ziren eta orduan badaezpada ere (...) Eta emaztea erdalduna da. Bere familia osoa Arratia aldekoa zen baina antzeko parecido, aitite eta euskaldunak ziren, Bilbora etorri zirenean antza jipoitu zuten euskaraz hitz egiteagatik eta utzi zuten (2D1P).

Era berean, XX. mendeko azken bi hamarkadetako giro politikoak euskararen biziberritze prozesuan izan duen eragina behin baino gehiagotan nabarmendu da:

Emakumea: Nik uste dot, giro politikoak ere bere pisua zuela. Ni ez nintzen oso politikoa baina...

Gizona: Eran los 90

Emakumea: Erabaki bat hartu behar zenuen be bai zu non zeunden

(2D1P)

Garai hartako giroak euskararen alde jokatzeko zuela identifikatzen dute zenbaitek:

Hamasei urteaz erabaki nuen hori, ba igual hasi gintezan ibilaldietara joaten, gero politika be bai, ni ez nintzen hain politika zalea baina ibilaldietara joaten hasi eta hor ikusi genuen ba dibertitzeko hizkuntza bat zala o sea gazte izateko hizkuntza bat zala, kontzertuetara joateko, txosnetan egoteko... (2D1P)

Baina, era berean, zenbait identifikazio politikoek aurkako eragina zutela ere hautematen da:

Creo que la lucha armada hizo mucho daño, en ese sentido. Porque, se apropió de alguna manera del idioma y generaba bandera. (...) Y eso le hizo un flaco favor al euskera como tal. Obviamente sé que esa no era la intención (2AZ2P:4)

7 GURASOEN IKASKETA PROZESUAK

Ikerketan parte hartu duten gurasoen hizkuntza ibilbideak aztertzea lagungarria zaigu ikergai ditugun Bilboko familien testuinguru soziolinguistikoa hobeto ulertzeko. Belaunez belauneko hizkuntza prozesutik abiatuta, gurasoen ikasketa ibilbideen eta hizkuntza-mudantzen nolakotasunari gerturatu gara prozesu horietan dituzten zailtasunak eta aukerak aztertuz.

7.1 BELAUNEZ BELAUNeko ETENA ETA JARRAIPENA

Hizkuntza baten belaunez belauneko prozesua ez da lineala izaten «etenak eta berrestekamenduak, hausturak eta loturak ageri dira» (Kasares, 2014: 317). Aztertu ditugun Bilboko familietan prozesu dinamiko eta aldakor hori oso nabarmen azaldu da. Ikusi dugun bezala, XX. mendean zehar familia askotan belaunez belauneko euskara-jarraipena eten egin zen. Hori dela eta, oso ohikoa da familietako belaunaldien segidan orain guraso direnak euskara ikasi duten katebegia izatea eta haien gurasoak (egungo haurren aiton-amonak) euskaraz ez jakitea. Familia ibilbide horretan, denek aurreikusten eta espero dute une honetan haurrak diren seme-alabek euskaraz gaitasun nahikoa edukitzea. Hala adierazi zuen bigarren profileko ama honek: «nire hizkuntza da gaztelera, baina, nago hor, borrokatzen, ¿no? Oin, euskaraz egiten dugu eta nire umeak euskaldunak dira, eta, euskaldunak izango dira, o sea, hori argi daukat» (2D2P:7).

7.2 GURASOEN IKASKETA IBILBIDEAK ETA HIZKUNTZA MUDAK

Ikerketan parte hartu duten guraso asko, beraz, familiaren historian euskara berreskuratu duten belaunaldia edo ikasi duten lehen belaunaldia dira. Ikasketa prozesuei dagokionez hiru ibilbide ageri dira nagusiki:

7.2.1 Testuinguru familiar edo/eta lokalaren bidez euskara ikasitakoak

Euskararen presentzia handia duten herrietan hazi direnak txikitatik euskaraz ikasteko eta erabiltzeko aukera izan dute. Lehen profileko gurasoen artean ohikoa da. Alde Zaharreko ama honek, adibidez, familian gaztelaniaz egiten bazuten ere, Durango hazi izanak lagundu zion euskaraz egiten:

Ez naiz Bilbokoa, ni Durangon bizi izan naiz 2018 urte arte. Bilbora etorri ginela hona bizitzera lanagatik eta. Familia erdaldun batetik nator, gurasoak erdaldunak. Bueno, nire aita txikitari bai egiten zuen euskaraz baino gero, txiki txikitatik aldatu behar izan zuen bizimodua eta bizitokia eta orduan etxean erderaz egin dut beti. Baina egia da Durangon bizi izan naiz eta han ba giro euskaldunean jaio naiz, lagunekin eta bai euskaraz egiteko aukera daukat. (2D1P:1)

7.2.2 Gazte garaian euskara ikasteko eta erabiltzeko hizkuntza-muda

Lehen profileko gurasoen artean ohikoa da gazte garaian egindako hizkuntza-muda deskribatzea. Batzuk, nerabezaroan lagunartean nolabait adostutako aldaketa izan zela diote:

Nik lagunegaz gaztekeraz egiten nuen beti. Hor patioan egiten zan gaztekeraz (...) Eta ni ba igual, ez dakit ba, 16 urtegaraz edo erabaki nuen euskaraz egitea, erabaki nuen euskaraz egitea eta kuadrillan Saiok be bai erabaki zaben euskaraz egitea eta bueno, gero Itzik be bai eta tiratzen genuen besteengandik, ze danak ginen euskaldunak bai. Ez euskaldunak euskara erabiltzeko ohitura dutenek, baino euskara gaitasun majo bat geneukan eta hasi gintzezan batzuk eta ba bueno mantendu genuen. (2D1P:3)

Gehienek, ordea, euskaltegiaren bidez egin dute gaztetako muda prozesua: «aita eta ama erdaldunak dira, o sea, bertokoak dira baina betidanik [erdaraz] (...) eta nik zera, A ereduari ikasi naban (...) eta gero pues hasi nintzen 19 urtegaraz edo Euskaltegiari» (2D1P:2).

7.2.3 Gurasotasunarekin lotutako hizkuntza-muda egitea

Hizkuntza-muden fenomenoaz aztertzeko proposamena egin zuen Joan Pujolarrek une batzuk identifikatu zituen norbanakoen bizitza-zikloaren aldaketa linguistikoa egiten laguntzen dutenak (Pujolar et al. 2010; Pujolar eta Gonzalez, 2013). Une horietako batzuk bakoitzaren esperientzia biografikoarekin loturik ageri dira: bizileku berri batera aldatzea edo familia edo lagun taldean suertatu daitezkeen aldaketak, adibidez. Beste batzuk, egitura sozialarekin lotuago dagoen kointurarekin harremana dute: Haur Eskolan hastea, lan munduaren sarrera, edo gurasotasuna, esate baterako.

Hain zuzen ere, Bilbon garatu dugun ikerketa honetan gurasotasuna agertu da aldaketarako une garrantzitsu gisa, batez ere, bigarren profileko gurasoen artean «niretzako be bai oso momentu inportantea izan da umeak eduki ditugunean bai euskaraz hitz egiteko, ikastolak emon dosten aukera o sea giro hori» (2D1P:11). Ondorio bera atera zen Legutioko gurasoekin egin zen ikerketa kualitatiboan, guraso izatean euskararekiko kontzientzia areagotu egiten da (Hernández et al., 2022).

Aita eta ama izatea eta euskara, beraz, badu eskolak ematen duen euskaraz aritzeko testuinguruarekin lotura. Hala berresten du beste ama honek ere:

Rolak aldatu ditugula lehengusuarekin. Es que lehengusuak bebai darama eskolara ,o sea, alboko gelan dauka ume bat eta bebai ikastolara joan garenetik erregistroa aldatu dut guztiz ze claro normalean familian beti ikusi dut erderaz hitz egiten eta han ikusten dut euskaraz hitz egiten, orduan, aprobetxatu dut, erregistroa aldatu dugu guztiz. (2D1P:16)

Guraso izatearekin harremana duen hizkuntza-muda hau, maila ezberdinak ditu. Zenbait aita eta ama euskara ikastera edo euskara erabiltzera eramaten duen prozesua da. Beste zenbaitentzat egunerokoan helduen artean euskaraz haurrekin euskaraz egitera eramaten du, gainontzeko gizarte harremanetan gaztelania mantenduz:

[eskolan] Ikasi dute euskera baina gero etzaie burutik pasatzen helduen artean edo lagun artean euskeraz hitz egitea. Hoiek urte hoietan eta umeekin bakarrik hitz egingo dute, bakarrik euskeraz, baina hor ikusten da asmo bat. Gero zenbat irauten dun, ja, ez dakit. Hamar urte dauzkanean umeak, ze pasatzen da? Seguruenik askok ez dutela jarraituko. (2AZ:12)

Egindako elkarrizketen bidez, ondorioztatu dugu gurasotasunarekin lotutako hizkuntza-muda askotan ez dela oso iraunkorra. Haurrak txikiak direnean saiakera handiagoa agertzen da, eta seme-alabak handitu ahala gaztelania gailentzen da, batez ere, gaitasun nahikorik ez dutela nabaritzen duten gurasoen artean. Aita honek, adibidez, bikotekidearen hizkuntza-praktikak hala deskribatu zituen: «hasieran euskeraz hitz egiten zun dexente (...) errexago egiten zuen euskeraz umea txikia zanian (2AZ:11). Antzera mintzo zen Alde Zaharreko ama bat:

Yo sí creo que [hay] mucha gente que ha aprendido euskera y que habla a sus hijos euskera cuando son pequeños. Y luego cuando empiezan a tener conversaciones de más calado, sienten que no pueden, ¿no? (...) Yo creo que al final cuando los críos son más pequeños, sí que hay gente que (...) habla en euskera, pero eso, cuando son frases cortas, ordenes y tal. Pero luego cuando igual empiezan, pues que te reten con algo o que tengas que dialogar o que tengas que negociar o que tal, pues, se pasan al castellano (2AZ:22).

Izan ere, gurasotasunarekin lotutako hizkuntza-mudantza prozesuak ez dira errazak izaten; askotan gurasoek gaitasun falta sentitzen dutelako, bi ama hauen hitzetan ikus daitekeen bezala:

Emakumea 1: ni hitz egiten dut, erderaz berarekin [senarrarekin] ez dagoenean nire umia. Baina dagoenean nire umia, saiatzen dut, y... eta kostatzen dut pilo bat.

Emakumea 2: Niri ez zait ateratzen, ez zait ateratzen ...

(2D2P:8)

Eta halakoetan, seme-alabek gurasoei euskaraz ez egiteko eskatzea ohikoa bihurtzen da: «[haurrak esaten dit] ez duela nahi nik euskeraz berarekin hitz egitea. "Ez", esaten du beti, "ama, ez, erderaz mesedez"» (2D2P:7).

Azkenik, ohartarazi behar da batzuetan gurasotasuna bera euskara ikasketa prozesua uzteko motibo ere izan daitekeela: «luego, deje el euskaltegi cuando me quede embarazada de primerizo, porque ja, pues eso, no me daba para todo. Y luego estuve bastante tiempo sin volver al euskaltegi» (2AZ2P:6). Gure ikerketan halakoak ez dira gehiegi agertu, baina kontuan hartzeko egoerak direla uste dugu, Familia Hizkuntza Plangintzei begira landu nahi diren egitasmoetarako.

7.2.4 Euskara ikasteko bestelako arrazoiak

Aurreko hiru puntuetan jasotakoak dira gure ikerketan gehien atera diren ibilbideen deskribapenak. Hala ere, agertu dira euskara ikasteko beste arrazoi batzuk ere. Bigarren profileko gurasoek bi elementu nabarmendu dituzte: lagun edo bikotekide euskaldunei lotutako motibazio integratzailea eta lanari lotutako motibazio instrumentala².

Bikotekideak euskaraz jakitea oso errepikatutako motiboa dela jaso dugu: «tengo un motivo personal: que mis hijos son euskaldunes, mi pareja es euskaldun, en mi casa se habla en euskera» (2AZ2P:8). Hala ere, horrek gutxitan aldatzen du bikote hizkuntza ohitura. Elkarriketatu ditugunak diote gaztelaniaz sortutako harremana aldatzea oso zaila suertatzen zaiela.

Lan arloari lotutako motibazio instrumentalari ere aipamen batzuk jaso ditugu. Zenbait lanpostu lortzeko euskara ikasteko arrazoi gisa hautematen duten batzuk, nahiz eta, honetan ere askotan horrek ez du eguneroko hizkuntza ohiturak erabat aldatzen. Hala kontatu zigun, adibidez, Euskal Herrikan kanpo jaio eta hazi den emakume honek:

Azkenengoko bultzada euskarara sartzeko eta ikasteko profilak ateratzea [izan zen]. Eta gertatu zitzaidana da, eta egia da hau, profila lortu nuen nuen momentutik, gero eta gutxitan erabiltzen dut, lotsagatik, o sea, akatsak ez egiteko edo txarto hitz egiten badut, ba orain C1 dakot. Orduan ja ondo hitz egin behar dut, hori ja beste nibel bat da eta handik aurrera gero eta gutxitan erabiltzen dut euskaraz (2AZ2P:22)

Laburbilduz, esan daiteke testuinguru familiar edo/eta lokalaren bidez euskara ikasi ez duten gurasoen artean, bi bitzta unerekin lotutako hizkuntza-mudak nagusitzen direla: gaztaroarekin eta gurasotasunarekin lotutakoak. Bikotekide eta lanarekin zerikusia duten motibazioek ere garrantzia dute ikasketa prozesua aktibatzeke, baina, edozein kasutan, azpimarratu behar da, jasotako kontakizunetan, askotan,

² Motibazio integratzaile eta instrumentala jarrera integratzaileari eta jarrera instrumentalari egiten diote erreferentzia. Jarrera integratzaileek ikuspegi soziala eta pertsonen arteko elkarrenganako eragina islatzen dituzte. Jarrera instrumentalek hizkuntza edo aldaera horretan hitz egitearen ikuspegi pragmatikoa adierazten dute, onura ekonomikoa edo gizarte mailako promozioa, adibidez (Soziolinguistika Klusterra, 2010).

arrazoi eta motibazio horiek guztiak elkarlotuak agertzen direla eta, gainera, motibazio prozesuak dinamikoak eta aldakorrek direla jaso ahal izan dugula.

7.3 OHITURA ALDATZEA: ZAILA BAINA POSIBLE DEN PROZESUA

Ikasketa prozesuan daudenek edo egin dutenak zailtasunak aipatzen dituzte baina hizkuntza ohiturak aldatu daitezkeela ere azpimarratzen dute.

7.3.1 Lagungarriak diren elementuak eta estrategiak

Euskararen sustapenari begirako programek laguntza eskaintzen dutela jaso dugu. Adibidez, *Euskaraldia* aldaketa egiteko lagungarria suertatu zaie batzuei. Deustuko ama batek, adibidez, horrela deskribatzen zuen: «oso oso oso aukera ona da behintzat erregistro eta ohiturak horiek aldatzeko, nire ustez (...) niri lagundu dit belarri prest egitea batzuekin, o sea, euskara dakitela badakidalako ba nik euskaraz egin eta beraiek erdaraz erantzun» (2D1P:19). Hala ere, Euskaldiaren bidez gauzak mugitzen badira ere, gehienek uste dute uneko ohitura aldaketa horri eustea zaila dela:

Gizona: Gero ez da mantendu, baina hor momentu hori...

Emakumea: Kostatzen da dakienekin eustea euskeraz. Niri ere kostatzen jatala. Nik be euskara ta egin neban nire lana, eta gero ez dot mantendu holako intensidadian, euskeraz ez dakienekin edo gitxi dakienekin. Azkenian erreza da erderara pasatzia.

Gizona: Neretzat zailena da guretzat ere ja ohituaz pertsona batekin era batera hitz egiten ta gero aldatzea zaila da.

Emakumea: Baina Euskaraldiak lortu ebala, ez? Hein baten behintzat ohitura horrek apur bat. Eta gero igual nik neuk be ez det esango euregaitik bakarrik, ni neu be bueltan eon nintzala.

(2AZ1P:29)

Berbalagun moduko programek (*Gurasolagun* aipatu dute guraso batzuk) edo Korrikak ere ekarpen ona egiten dutela argi geratu da:

La korrika es muy chula. A mí me parece súper bonita, súper súper bonita. O sea, no entiendo como no hay korrikas en diferentes partes del mundo, porque me parece una idea tan buena (...) me parece que algo como la korrika para que un pueblo se sienta orgulloso de su lengua, me parece que es una cosa súper bonita. Yo he corrido la korrika cada año (...) Me parece incluso emocionante verlo (2AZ2P:17).

Inguruko laguntza ere oso beharrezko elementutzat jotzen dute:

Ni hemen Deustun daukat lagun bat eta hori, txikitatik, beti erderaz hitz egin dugu, eta bera super euskalduna da, da irakaslea. Baina ni beti erderaz. Eta ni hasterakoan berriro euskararekin konpontzen, hitz egiten apurka-apurka, (...) hasi ginen euskaraz hitz egiten elkarrekin. Eta orain bakarrik bagaude, euskeraz hitz egiten dugu.

Oso inportantea da besteen laguntza, ¿no? O sea, batez ere euskaldunberrientzat. Oso inportantea da besteen partea (2D2P:19).

Asko errepikatu da gertukoek jokatzin duten papera eta euskara ikasten ari direnentzat oso lagungarria dela beste helduek euskarari eustea eta ez aldatzea gaztelaniara:

Normalean hemen auzoan eta ikastolako gurasoak prest daude laguntzeko. Nik ez dut inoiz arazorik eduki nire akatsengatik (...) Nik beti esaten dut: ikastolako gurasoak dira barnetegiko modua euskaraz praktikatzeko eta hitz egiteko. Bai, askok hitz egiten dute euskaraz eta nahi baduzu, hitz egin dezakezu. (2D2P:9)

Izan ere, euskararekin harremana ez galtzea funtsezkotzat jotzen baitute:

Siempre he tenido amigos euskaldunes (...) ¿podría practicar un poco? Sí (...) Y luego, pues en el colegio sí que escuchaba, pues eso, muchas reuniones en euskera. (...) O sea, al final fíjate desde la primera vez que estuve en el euskaltegi, a la segunda pasaron diez años (...) Pero, pero bueno, al final es, pues eso, en esos diez años no he perdido en contacto. (2AZ2P:9)

7.3.2 Zailtasun eta oztopoak

Aipatua geratu da Bilbon egun dagoen egoera soziolinguistikoa gatz dela eta horrek, noski, mesede gutxi egiten dio gurasoen euskara ikasketa prozesuari. Horri lotuta, gizartean hizkuntza erabileraz naturalizatuta dauden arau sozialak eta mekanismoak oztopo nabarmen gisa identifikatzen dira. Horren erakusle den ohiko egoera bat agertu da egin dugun elkarrizketetan: euskaraz hitz egiten ez duen hiztun bakar bat nahikoa da euskaraz ari den talde batean hizkuntza aldatzeko: «erdaldun bat agertzen denean danok gara super eskuzabalak edo alferrak edo ez dakit zer garen» (2D1P:6). Horren aurrean, hala ere, zenbaitetan hiztun berrien agentzia erakusle gisa identifikatu daitekeen jokabideak ere agertzen dira:

Si alguna vez lo hacen, el cambiar porque estoy yo, pues les digo que no, que no cambien y ellas decían que no. Y, y bueno, depende del tema, (...) pero, ¿sabes? Yo participo les hablo, digo lo que, yo sé (...) Pero sí que intento que no tengan que cambiar por mí. (2AZ2P:25)

Hizkuntzaren aldaerei eta erregistro faltari lotutako zenbait arazo ere ageri dira. Batzuk esan nahi duten guztia euskaraz adierazteko zailtasuna aipatu izan dute. Ama batek, adibidez, euskaraz haserretzea zaila suertatzen zaiola dio: «Claro, yo luego cuando les tengo que reñir, le hago en castellano» (2AZ2P:21). Beste batek senarraren familiaren hizkera lokala eta euskaltegian ikasitakoaren arteko ezberdintasunak ikasketa prozesu hasiera zaildu egin ziola kontatu du: «[senarraren] familiarekin zeozer ezagutzeko ondo baina hasieran izan da super gogorra. *Es que* ni euskaltegian euskera, euskaraz garbi, batua eta joan nintzenean [herrira], *o sea* ez dut ulertzen ezer. Orain ja belarria daukat pixkat ohituta, baina baina lehenen aldiz...» (2D2P:2). Azkenik, gurasoak seme-alabekin euskaraz hitz egitea baina beraien artean (helduen artean) gaztelaniaz aritzeko ohitura ere oztopo gisa aipatua izan da.

7.4 EUSKALTEGIAK: GURASOEI MOLDATUTAKO IKASKETA PROZESUEN BEHARRA

Esan dugun moduan, ikerketa honetarako bigarren profil gisa klasifikatu ditugun guraso askok euskaltegian igaro dituzte ikasturte batzuk. Zalantzarik gabe, beraz, euskaltegiak euskara ikasteko espazio lagungarri gisa identifikatzen dituzte. Euskaltegiei lotutako barnetegiak maiz aipatu dira euskalduntze ibilbidearen gakotzat. Hala ere, egin ditugun zenbait elkarrizketetan helduen euskara irakaskuntza sistemaren inguruan zalantza eta kritika batzuk ere jaso ditugu.

Elkarrizketatutako hitzun berri batek ikasketa sistema tituluak lortzeari begira antolatua dagoela adierazi zuen: «Oso txarto dago montatua balio dago gu ikasteko, indarra emateko, baina ez euskara mantentzeko»(2D2P:5). Enpresen lanarekin bat egin ditzakeen euskalduntzeko planak proposatu zituen beste batek:

Me apunté al euskaltegi, porque en mi trabajo había un programa de euskalización, entonces, podía ...[hacer] el programa de dos horas al día, una hora la ponía yo y otra hora ponía el trabajo (...) Y bueno, al final, sí que, me hubiera me hubiera gustado mucho poder seguir (...) Yo creo que tanto para empezar como luego para avanzar, o sea, tendrían que liberar a la gente y poder hacer trincos, porque avanzas mucho (2AZ2P:5)

Era berean, gurasoei eta jatorri anitza duten helduei egokitutako ikasketa ibilbideen falta hautematen dute:

La población inmigrante, en general, [tiene] unas condiciones de vida jodidas. Entonces, no tienen la capacidad para apuntarse a euskera, no tienen la disponibilidad y no tienen, porque de primeras tienes que adelantar una cantidad de dinero que te piden (2AZ2P:15)

8 HAURREN IKASKETA PROZESUAK, HIZKUNTZA-PRAKTIKAK ETA HIZKUNTZA-MUDAK

Gurasoen hizkuntza ibilbideak aztertu ondoren, haurren ikasketa prozesuak eta hizkuntza praktikak arakatzea dagokigu orain. Euskararen ikasketa prozesua, batez ere, eskolarekin lotuta ageri zaigu, baita, hein handi batean familiarekin ere, ikerketan parte hartu duten gurasoek seme-alabak euskaraz ikasteko motibazioa agertu baitute. Eskola eta familia eremuetatik at, euskaraz aritzeko zailtasun handiak dituztela jaso dugu. Ondorengo ataletan, beraz, aztertu ditugun auzo eta familien seme-alaben euskararen-sozializazioarekin lotuta dauden alderdiak laburbilduko ditugu.

8.1 ESKOLA: EUSKARAREN IRLA

Elkarrizketatu ditugun gurasoek eskola identifikatzen dute seme-alabek euskaraz egiteko duten espazio sozial nagusitzat eta batzuk ia espazio bakartzat ere. Deustuko aita honek adibidez hala zioen: «Nireak eskolarekin lotuta, kanpoan ez dauka loturarik» (2D1P). Gurasoek eskolak euskararen irlak direla adierazi dute, nahiz eta

batzuen ustez, hezkuntza espazio horietan ere haurrek ez dute nahiko luketen bezain beste euskara erabiltzen : «eskolan ba gitxi entzuten da. Bilbokin alderatuta, entzuten dozu. Irla bat izan leike. Baina gero ja umiak... »(2AZ1P:3).

Izan ere, euskararen artxipielagoa osatzen duten eskola horietan haurrek askotan euskaraz ez dutela hitz egiten eta, batzuetan, irakasleei ere gaztelaniaz zuzentzen zatzaizkiela kezka delako ikusi dugu. Alde Zaharreko gurasoen arteko elkarriketaren une batean hala adierazi zuten bi guraso hauek:

Gizona: [irakasle batek] esaten zun lehen lortu zutela irakasleei euskeraz egitea. Eta irakasle bat agertzen zanian ere irakasleek euskeraz hitz egiten zutela ta hori gero fan dala galtzen (...) [orain] seguru nago irakasleei zuzenean gaztelaraz eiten dietela...

Emakumea: Askok, asko, bai. Eta ezkutuan, pilo bat. Irakasleei be bai. (2AZ1P:5).

Irakasleekin duten hizkuntza harremanaz gain, eskola barruko beste zenbait langilek euskaraz ez jakiteak lagungarri ez dela aipatu da ere. Jangelako begiraleen adibideaz mintzo zen ama bat:

Muchas no saben euskera, eso es un problema. Porque si por un lado estas guiando a los niños en la escuela sobre todo euskaldun, y cuando llega al jantoki que son dos horas de siete, o sea, todo lo que recibe son mayoritariamente gritos en castellano. Pues claro, eso hace un flaco favor(2AZ2P:10).

Baina oztopoak dauden arren, eskolak jarraitzen du izaten haurrak euskaraz bizitzeko duten ekosistema nagusia eta gune hori tarte batez desagertzen denean, opor garaian esaterako, euskara ere, hein handi batean, desagertzen da: «Euskara da ikastolako hizkuntza. Oporrak badaude, udan: "no, no, udan ezin da euskaraz hitz egin (...) Oporretan gaudenez... y digo yo "ez, ez dut sinisten, ez dut sinisten"» (2D2P:7).

Bestalde, izan ditugun solasaldietan agerian geratu dira egungo hezkuntza sistemaren inguruan euskal gizartean dauden erronkak eta eztabaidak. Batetik, azken urteetan zenbait ikastetxe publikoek euskarak presentzia handiago duten eredu aldaketaren alde egindako lana oso positibotzat hartzen dela ikusi dugu. Alde Zaharreko Mujika Eskola da horren adibide:

Hay más familias euskaldunes que han apostado por Mujika (...) Entonces, claro, eso está cambiando también la realidad lingüística de las gelas, ¿no? Y eso ha quedado también (...) los niños ven y sienten mucho más euskera, hablan más euskera (2AZ2P:25).

Baina bestetik, eskola eremua euskararen irla gisa izendatu bada ere, gurasoen diskurtsoetan nabari da auzo bakoitzean eskola batzuk gehiago identifikatuak izaten direla euskararekin beste batzuk baino. Deustun, adibidez, Deustuko Ikastola (ikastetxe publikoa) euskarari lotuago dagoen espazio gisa behin baino gehiagotan aipatua izan da.

Hezkuntza formalari lotuta bada eztabaida sortzen duen beste gai bat: eskola publikoa eta itunpekoaren arteko bereizketa. Alde Zaharreko ama batek, adibidez, euskararen inguruko kezka adierazi zuen gai honi lotuta:

Pasas una mañana por la zona del Arenal y está llena de autobuses (...) pero al final te está quedando dos mundos, (...) que sí que sí, tu hijo va a seguir hablando en euskera, pero va a seguir yendo a una sociedad en la que siguen siendo una minoría. ¿Qué queremos, que sea una mayoría o seguir siendo una minoría? (...) O sea, si el objetivo es una normalización lingüística, y tú de hecho estas llevando a tus hijos a una ikastola, porque quieres esa normalización lingüística estas mirándolo a corto plazo, y esa mirada a corto plazo está dinamitando a largo plazo. Porque a largo plazo va a ser, que la presencia del euskera en la escuela pública vasca va a ser menor de la que debería ser. (2AZ2P:12).

Gurasoek hautematen dituzten kontu horietan guztietan, beraz, euskararen auziak presentzia duela ondorioztatu dezakegu.

8.2 HAURREN HIZKUNTZA-PRAKTIKAK ETA HIZKUNTZA-MUDAK

Soziolinguistikan eta Hizkuntza-Antropologian azken hamarkadetan garatu izan den hizkuntza-sozializazioaren paradigmaren arabera, haurren hizkuntza-ikasketa prozesua orain arte azaldu izan den baino modu konplexuagoan aztertu behar da, norbanakoen komunikazio praktikak testuinguruan kokaturik eta hainbat faktoreren ondorio diren praktika gisa ulertuz. Hitzekin egiten dena ez dator bat faktore linguistiko bakarrarekin, hiztunek metatzen duten bizi-esperientzia bakoitzarekin baizik (Blommaert, 2010).

Oinarri hori kontuan hartuta, esan dezakegu hizkuntza-praktikak oso dinamikoak direla eta hiztunek txikitatik erabakitzen eta moldatzen dituztela beraien hitz egiteko moduak. Adierazi bezala, ikerketan parte hartu duten familien haurren euskarazko bizi-esperientziak eskolatik eta zenbait kasutan familiaratik pasatzen dira. Eredu ez-formala eta eremu informala, ordea, gaztelaniari oso lotuta dago. Alde Zaharreko gurasoek zioten haurrak txikiak direlarik euskaraz aritzen direla oro har, baina gerora lagun taldean erdara nagusitzen dela. Deustuko ama hau antzera mintzo zen seme-alaben lagunarteko hizkuntza dinamiken inguruan galdetuta: "Ba lagunak arabera. Bere lagunak ohitura badaukate euskeraz hitz egiten, beraz, euskaraz erabiltzen du. Eta gero badauzka beste lagunak normalean erderaz erabiltzen dutela eta eurekin erderaz» (2D2P:13). Baina euskaraz aritzeko joera dutenen artean ere, urteak pasa ahala geroz eta gehiago gerturatzen dira gaztelaniara. Hain zuzen ere, ikerketa honetan oso agerian geratu den kontua da, euskaraz mintzo diren haurren artean iristen dela une bat hizkuntza-mudatzat har dezakeguna.

Hizkuntza-muda gaiari buruz egin ditugun beste ikerketetan ondorioztatu izan dugu aldaketa prozesu metagarria, negoziatua, irekia eta dinamikoa dela (Altuna, 2023). Mudak ez dira bat batean gertatzen diren aldaketak, askotan nerabezaroan gauzatzen badira ere, haurtzarotik datozen transformazioak dira eta ez da prozesu lineala izaten, aurrera-atzera egiten den bide gora-beheratsua izan ohi da. Hain zuzen ere, Deustuko eta Alde Zaharreko gurasoekin egindako ikerketan, argi geratu da aldaketa prozesua nerabezaroa baino askoz lehenago abiatzen dela:

Igual txikiagoa zenean ez zen konturatzen eta modu naturalean egiten zuen [berba euskaraz] eta gero 3 urterekin edo 4 urterekin, hori helduen hizkuntza da [gaztelania] eta bestea da eskolan komunikatzeko [euskara] irakasleekin edo ikasteko hizkuntza eta orduan, erdarara jotzen du (2D1P:18)

Hain zuzen ere, euskara etxeko hizkuntzatzat duten familietan ohikoa da gaztelaniarantz aldaketa prozesua eskolarekin lotzea. Atxuri eskolako ama batek honela azaldu zigun:

Lehenengo mailara heltzen direnetik euren artean ja erderaz egiten dabe. Txikitxuekin batez behintzat ba gehitxuago, eta talde batzuk bereziki euskaldunagoak dira, baina gero.(...) Bai, sei zazpi urtera ja erderara eiten dabe giro hori eta listo(...) Guk etxian ez dugu egiten erderaz. Orduan, hasieran euskera bakarrik daukie eta gero ja erdera menperatzen hasten direnian, ja zabaltzen dabe eta erderaz bakarrik (2AZ1P:4).

Deskribatutako egoera hori paradoxikoa ere bada; euskararen irla den eskola eremua gaztelaniara salto egiteko espazio gisa identifikatzen baitute. Deustuko aita eta ama hauek ere antzera berba egin zuten:

Ni haur hezkuntzan ikusten nitun oso euskaldunak eta gero bapatean, derrepente, aldatu egin zuten (2D1P:23)

Badago edade bat, eta hasi dira ja erderaz. Ze klaro, nireak ez zekien, ikastolara joan arte ez zekiten erderaz. O sea, hori, bitxia da (2D2P:20)

Adinkideen harremanen zabalpenak ere eragin handia duen faktore gisa agertu zaigu:

Guri pasatzen dakena da, adin horretan ez dakiela erderaz ondino, edo ez direla gai elkarrizketa bat ondo mantentzeko. Eta ja behin menperatzen hasten direnean ba asko zabaltzen da harreman sarea, ze aukera gehiau daukiez. Hasieran daukie justo. Ez dinot ez dabela jolasten bestiekin baina ja hizkuntza behar dan ezeretarako batez be gabiz ume euskaldunekin hasieran, ze ez dakie erderaz, behintzat etxetik (...) guk etxian guk ez dugu egiten erderaz. Orduan, hasieran euskera bakarrik daukie eta gero ja erdera menperatzen hasiten direnian ja zabaltzen dabe eta ja erderara bakarrik (2AZ1P:4).

Hala ere, ez da erraza adin bat zehaztea aldaketa une zehatz gisa, ezta espazio sozial bati leporatzea ere, esan dugun moduan hizkuntza-mudarena prozesu konplexua baita. Guraso batzuk seme-alaben artean desberdintasunak aipatzen dituzte eta diferentzien deskribapen horietan faktore anitzen eragina ikus daiteke:

Entre mis hijos, por ejemplo, tienen actitudes diferentes en el euskera. Mi hijo mayor, es súper euskaldun. Ha hecho, le encanta Alicante, pero, cuando volvemos ja abrimos la puerta del coche y sale aquí. Siempre dice, por fin puedo hablar en mi idioma, así que bueno. (...) curiosamente la pequeña, sus mejores amigas son de familias euskaldunes, y ella tiene el complejo de no hablarlo bien (2AZ1P:20).

Besteak beste, hauek dira hizkuntza-muda egiteko identifikatu ditugun elkarlotuta dauden arrazoi nagusienak:

- **Adinkideen harremanak:** sarea zabaldu ahala euskararen presentzia gutxitzeko joera dago.

- **Gaitasun falta:** adinean gora egin ahala hizkuntza errejistro desberdinetan aritzeko beharra handitzen da eta haur askok ez dute nahikorik gaitasuna sentitzen euskaraz aritzeko.
- **Hizkuntzaren prestigioa:** haurrek hautematen dute bizi diren testuinguru sozialean prestigioa duen hizkuntza hegemonikoa gaztelania dela.

Hizkuntza aldaketaren abiapuntuan, beraz, arrazoi edo motibazio diferenteak daude eta bizipen biografikoek eta elkarrekintzek baldintzatzen duten prozesu negoziatua da. Baina bada nahiko argia den kontu bat: nerabearora iristerakoan denek esanguratsuak diren hizkuntza-mudak egiten dituztela, ama honek argi laburbiltzen duen moduan nerabearoan (eta helduaroan) gaztelaniaz egitea "guay delako": «Gure alabaren kuadrilla euskaldunak dira. Baina klaro, ja es guay, erderaz hitz egitea da guaia»(2AZ2P:20).

Honen guztiaren aurrean, seme-alabek euskaraz egitea nahi duten Bilboko gurasoek larritasunaren eta zailtasunaren kontzientzia argia dute. Badakite unerren bat iritsiko dela non haurrek gaztelaniaz berba egingo duten nagusiki. Horren aurrean, hizkuntza-muda ahalik eta beranduen izatea saiatzen dira:

Kurtso horretan dakate talde bat, super guay, o sea, danak euskaldunak. Eta jarraitzen dute parkean. A ver, a ver, momentuz bagoaz agoantatzen, bagoaz agoantatzen (2D2P:7)

Erronka gisa hartzen dutela ere nabaritu dugu, baina batzuetan jarritako espektatibak jaitsi beharrean daudela konturatzen dira: gurasotasuna erronkaz betea dagoelako eta ezinezkoa zaielako denera iristea:

Saiatu naiz esigentzia bajatzen ze, azkenen, lehen bai pentsatzen nuen egin behar dugu euskaraz. Be bai la maternidad badauzka erronka pila bat eta euskararena niretzat ez da izan garrantzitsuenetarikoa ze oso gogorra da ama izatea (2D1P:2).

Goiko lerroetara ekarri ditugun gurasoen hitzetan sentimendu ezkorrak nabari daitezke: amorrua, etsipena, ustekabea eta pena. Zenbaitetan erruduntasuna ere agertu da, haiek ere ez dutelako betetzen proposatutakoa eta zailtasuna dutelako beti euskaraz hitz egiteko eta horrek seme-alaben aurrean kontraesana sortzen dielako. Ikus ditzagun sentimendu horiek adierazten duten jasotako esaldi batzuk:

Amorrua

Txikitan gehiago egiten zidan euskaraz eta orain amorru izugarria ematen dit dena erdera egiten dit (2D1P:3).

Ditu zortzi, eta da ikastolan, bai, ateratzen da eta kuadrila guztia parkean erderaz, eta ni nago denbora guztian "jo, euskeraz, chico, venga euskeraz chico, eukeraz". Yo soy la petarda, de turno. Es decir, jo, mesedez ta eta da rabia, da rabia, inpotentzia, bai bai (2D2P:6).

Mina

Neretzat mingarriena da batez be lehen harreman euskalduna [zutela], euskeraz harremanetzen zirenekin be, gero ja, nahiz eta talde txikian egon, erderara jotzen dabela (2AZ1P:6)

Bai. Mingarriena izango ja seme-alabak beraien artean hasten direnean... (2AZ1P:6)

Etsipena

Alde horretatik desesperatu egiten naiz askotan. Saiatu, saiatu naiz, gero lortu ja...(2D1P:3).

Ezustea

«Go!azenekin flipatzen nago, o sea, asko gustatzen zaio bai eta dena ulertzen du baina gero esaten du: "aita esta es June, este es no se quien". Joder, baina euskaraz ikusten ari zara-eta. Te tiene que costar más erregistroa aldatzea» (2D1P:19).

Erruduntasuna

«Sentitzen nintzen pixkat errudun erdaraz hitz egiteagatik» (2D1P:2).

«Gatxa da, oso gatxa da jarrera etengabeko euskara» (2D1P:3).

Hala ere, dena ez da desesperantza, eta **itxaropena** ere agertu zaigu. Guraso batzuk espero dute gazteetan euskaraz hitz egitera itzuliko direla:

Emakumea: Nik uste dot eta nere esperantzia da guk erein ditugun hazitxo honek gero bere...

Gizona: Bai, nik ere uste dot baietz.

Emakumea: Nik uste dot gure seme-alabek gaztetan eingo dabela; kontzientzia hori hor dau. Orduan, eingo dabela euren aldaketaren bat, ze askotan ikusten dot nerabazarotik hor ja apur bat sartutakoen, ez? Ba batzuk, ze nik ikusten dodaz hemen kuadrillatxo batzuk gaztiekin eta euskeraz egiten dabenak gazteek. Ordun ba eingo daue barrero, ez?...

Gizona: Bai, nik uste dut baietz, gero ja aukeratzen dutenean. (2AZ1P:22).

Izan ere, hizkuntza-mudak hiztunaren izaera malgua erakusten digu: hizkuntza erregistroa espazioan zehar aldatzeaz gain (eremu batetik bestera) denboran ere eraldatu egin daitekeela. Joan Pujolar eta Maite Puigdevallék diotenez, bizitza eta gizartea etengabe ari dira aldatzen eta hiztunok hizkuntza ere erabiltzen dugu baliabide gisa aldaketa horiei aurre egiteko (2015). Muda horren isla litzateke: hiztuna errealtate horren parte izan nahi eta behar duela erakusten digu (ibid.:168).

9 FAMILIAKO HIZKUNTZA-POLITIKA

Euskal Herriko soziolinguistikan familia eta hizkuntza lotzerakoan “familia bidezko transmisioaz” hitz egitea ohikoagoa izan bada ere, ikerlan honetan “Familia hizkuntz politika” (FHP) izendapena erabili dugu. Kontzeptu horren baitan (“Family Language Policy” (FLP) ingelesez), azken bi hamarkadetan azterketa eta hausnarketa lan-ildo interesgarria garatu da munduan zehar eta baita Euskal Herrian ere³. Lan horiek oinarri interesgarria eskaini digute Bilbon egin dugun ikerketa honetarako.

Familia hizkuntza-politika haurrekin ze hizkuntza(k) erabiliko diren erabakitzeari egiten dio erreferentzia (Smith-Christmas, 2014 apud Hernández, 2015). Zehatzago esanda, FHP da familiaren baitan hizkuntzaz hartzen diren erabakiak. Hau da, familia kideek hizkuntzari lotutako erabaki esplizitu zein inplizituak sartuko lirateke FHPan (García-Ruiz, 2023). Horrek esan nahi du «gurasoak ez direla protagonista bakarrak, bertan biltzen diren hiztun guztiak baizik, denek parte hartzen dutelako eta denek eragina dutelako hizkuntz politika zehatz bat finkatzeko eta bultzatzeko garaian» (Hernández, 2015).

Maite García Ruizek jaso zuen moduan (2023) hiru osagai nabarmentzen dituzte FHP-ren eremuan aritzen diren ikerlari gehienek: ideologia, kudeaketa eta praktikak. Hiru esparru horiek erabili ditugu, ikerketan parte hartu duten familien FHP aztertzeko.

9.1 HIZKUNTZA-IDEOLOGIAK

Hizkuntza-ideologiak pertsonen hizkuntzei, hizkerei edo horien erabilerei buruz dituzten ideiak eta egiten dituzten balorazioak dira (Altuna, 2023). Munduko edozein tokitan ohikoa da hizkuntzaz ideia edo sinesmen sorta bat edukitzea: halako hizkuntza zaila dela irudituko zaie batzuei, beste hori ez dela oso erabilgarria uste izango dute beste batzuek, edo norberaren hizkera ederrena dela sinetsiko dute beste askok. Hala, hizkuntza gutxituak dauden testuinguruetan hausnarketarako, gogoeta kritikorako eta baita kontrajarriak diren ideietarako aukera handiago sortu ohi da.

Ikerketan parte hartu duten familietako hizkuntza-ideologiak aztertzeko galdera hauetatik abiatu gara: zer pentsatzen dute familia kideek hizkuntzaren inguruan? Zein irudi proiektatzen dira familia eremutik hizkuntzaren inguruan? Zein mezu edo diskurtso nagusitzen dira hizkuntzaren inguruan?

³ Besteak beste, Paula Kasares, Maite García-Ruiz, Ibon Manterola, Anik Nandi edo Anne Egaña ari dira azken urteetan Familia Hizkuntza Politika arloan ikerketa interesgarriak egiten.

Euskal Herrian egin diren beste ikerketa batzuetan oinarrituta (Altuna, 2023) honako eskema hau erabili dugu jaso ditugun diskurtso eta errepresentazioak laburbiltzeko:



9.1.1 Euskararen aldeko errepresentazioak: zaugarritasuna eta nortasuna

Elkarriketatu ditugun pertsonen artean zaugarritasunaren ideia agertu da. Euskara hizkuntza "txiki" gisa identifikatzen da eta, beraz, "zaindu" beharra azpimarratzen da. Hala dio Deustuko ama honek «hau hizkuntza txikia da, hizkuntza hau zaindu behar duguna da, danon artean» (2D1P:20). Gainera, kontserbazio ardura hau "maitasunarekin" lotzen da: «nire ustez, hizkuntzaren motibazioa barru barrutik eta bihotzetik atera egin behar da; maite behar duzu hizkuntza eta horren inguruko mundua, eta hori ez badago, zaila da mantentzea» (2D1P:5).

Espero izatekoa den bezala, beste gutxitutako hizkuntzak dauden testuinguruetatik etorritakoek zaugarritasunaren diskurtsoarekin bat egiten dute. Hau da, euskara ikasteko ahalegina egiten dute eta jarrera aktiboagoa agertu dute etxeko hizkuntza euskara ere izan dadin eta seme-alabek haien jatorrizko lurraldearen hizkuntza ikas dezaten. Alacanten jaio eta hazi den Alde Zaharreko ama honek, adibidez, hala zioen:

No hay una apuesta institucional por el valenciano. Y, es algo que en el sur de Alicante se va perdiendo. También por el turismo se va perdiendo. Y para mi es una pena, ¿no? Yo a veces pongo música en catalán y [mis hijos] saben perfectamente qué es el catalán, y hay palabras que tenemos internadas porque son muy bonitas (2AZ2P:17)

Baina, bestalde, guraso batzuk ez dute horrelako pentsamoldearekin lotutako motibazio nahikorik dagoenik:

Jenderen artean motibazio gutxi dago (...)Nik uste [dut], hizkuntzaren motibazioa, barru barrutik eta bihotzetik atera egin behar da, maite behar duzu hizkuntza eta horren inguruko mundua, eta hori ez bada holan, zaila da mantentzea. (2D2P:5)

Hizkuntza eta identitatea lotzen duten diskurtsoak ere jaso ditugu, batzuetan txikitasunarekin harremanetan eta ondorengo belaunaldiei begira:

Nik batzuetan pentsatzen dut horiek be esango dabela; nire gurasoek esaten zuten: "Gu herri txikia gara eta euskara da gure hizkuntza eta egingo dugu aurrera". Eta hori da modua, o sea, gauzak beste modu batean egiteko aukera polita. Herri txiki izateaz... ba gero igual zeozer geratzen zaie [seme-alabei], modu positiboan, ez? Igual, hori vintage... gustatzen jakie. (2D1P:20)

Beste batzuetan harrotasun sentimenduarekin harremana du, baita ikasketa prozesuan daudenen artean ere, eta halakoetan ere seme-alaben belaunaldiei begirako diskurtsoa nabari da:

Yo siento, por ejemplo, orgullo. Pues, cuándo mis, estamos fuera de aquí, mis hijos me hablan en euskera. Cuando mi familia se da cuenta de que puedo, que puedo entenderles, que a mí me pueden hablar en euskera y les entiendo. (2AZ2P:16)

Hala ere, jaso dugunaren arabera, nahiko orokortutako pertzepzioa da azken hamarkadetan euskararen inguruko diskurtsuetan identitaterekin edo "gutasunarekin" lotutako ideiak apaldu direla eta motibazio instrumentalak gailendu direla. Duela 8 urte euskaltegi bateko irakaslea den gizon honek, adibidez, hala kontatu zigun:

Nik EGA atera nuen duela 25 urte eta gogoratzen dut euskaltegira joaten ginen guztiok, edo behintzat gehienok, joaten ginela euskara ikastera gure hizkuntza zelako eta ondo pasatzera, afariak, sagardotegiak, poteo, ligatzera... (...) Gero, etorri zen titulitis, bai? eta nire ustez, euskaraz dakien jendearen kopurua handiagoa da, baina euskaraz egiten duen edo egin nahi duen kopurua jaitsi egin da. Alde batetik, askok pentsatzen dutelako batez ere administrazio publikoan: "atera behar dut, eskatzen didate, behartzen naute hau ateratzera", eta orduan ja behin profila lortuta ez dute zer ikusirik euskararekin eta hori nik nabaritzen dut nire ikasleetan (...) Inork ez du esaten ba "jo, ba hemen nago euskara ikasi nahi dudalako, gure hizkuntza da eta Euskal Herrian euskaraz" (2D1P:8)

Diskurtso horren harira, guraso batzuk kezka agertu dute seme-alaben belaunaldian pentsamolde horrek izan dezakeen eraginaz. Izan ere, ez dute gustuko haurtzaroan euskara soilik eskolari atxikitzea:

Gizona: Falta zaie gaur egun hori [nortasunari lotzea], ez dute. Lotzen dute euskara mundu akademikoarekin, baita ikastolako umeek ere ze, claro, ikastolan nola dena ikasten duten euskaraz, euskara da ikasteko eta irakasleekin hitz egiteko. Baina kanpoan egoteko eta gure artean egoteko erdaraz egingo dugu, bai?, batez be umeak.

Emakumea: Hori umeak. Eta gero oposaketak ateratzeko: oso instrumentalak. (2D1P:12)

Deustun "militantziaren" beharraz mintzo ziren euskaraz jakitetik erabiltzera salto egiteko:

Ni beldur naiz umeek daukiez gaitasunak orain, gure etxean adibidez eta euren lagunek, eta beldur naz militantzia puntu hori barik salto egingo [ote] duten hitz egitera (...) Eduki behar duzu puntutxo bat, militantzia (...) Nire semeek daukie nik neukan euskara maila baina askoz be hobea baina, ez dago pil-pilean hor lehengo moduen; posizio bat hartu behar zenuela, "beitu ni hamen nago eta ni euskaragaz aurrera egingo dut ni euskalduna naz". (2D1P:9)

Horregatik, uste dute norbanakoen jarrera eta atxikimendua garrantzitsua dela:

Emakumea 1: Jo, es ke nik uste dut ez baduzu nahi... ez baduzu nahi, nahiz eta euskaldunak izan. Nik ezagutzen ditut euskaldun pilo, bai, txikitatik euskeraz hitz egiten eta ez dute hitz egiten. Eta badakite, eta ulertzen dute, eta ez dute nahi (...) O sea, txikitatik ikastola batean eta gero ez dakite euskeraz hitz egiten, ez dute nahi. Baina es ke hori oso tristea da. Eta oposaketak atera eta gero ezta egun on ere ez. (...) plaza publiko batzuetan. Niretzat oso tristea da hori. Jo behintzat, no sé. Pixkatxo bat... "egun on".

Emakumea 2: Es que ni ados nago. Uste dut bakoitzaren jarrera dela. (2D1P:18)

9.1.2 Liberalismo linguistikoaren diskurtsoak

Aurreko atalean ikusi ditugun hizkuntza-ideologiak "euskararen alde" arrazoitzeko bideak dira, baina ezin dugu albo batera utzi, gizartean oso txertatuak dauden bestelako hizkuntza-ideologia batzuk. Azken urteetan *liberalismo linguistikoaren ideologia* deituriko diskurtsoa indar handia hartzen ari da. Ideia hau egungo sistema neoliberalaren baitan indar handiagoa duen beste adar ideologikorekin batera dator: hizkuntza-indibidualizazioa. Egiturazko baldintzei erreparatu gabe, hizkuntzak erabiltzeko askatasun indibidualaren aldarria litzateke eta marko ideologiko horrek badu oihartzuna egin ditugun elkarrizketetan. Deustuko guraso batek, adibidez, hala zioen: «Euskararena ikusten dut garrantzitsua, baina nahi dut be bai transmititu, ba hori, ba irtetzeen bazaio erderaz ba erderaz» (2D1P:2).

Hizkuntzen erabilera aukera indibiduala izan behar duela nahiko zabalduta dagoen ideia da eta marko liberal horretan, beraz, indibiduoa da, aukera librearen bidez, axola duena. Hizkuntza ezberdinak hizkuntza-merkatuaren produktu bihurtzen dira eta hiztunak kontsumitzaile eskubideak dituzten subjektutzat hartzen dira.

Bestalde, elebakartasunaren ideologiaren baitan, euskararen aurkako diskurtsoak ez dituztela sentitzen adierazi dute elkarrizketatutako guztiek. Adierazgarria egin zaigu, horri buruz hitz egiterakoan askok migratuen kolektiboari erreferentzia egin diotela azpimarratzeko eskoletako jatorri anitzeko gurasoen artean euskararekiko jarrera ona nabaritzen dutela. Lehenago aipatu dugun moduan (ikusi 25. orrialdea), Alde Zaharreko elkarrizketetan oso agerikoa izan da iritzia hau.

Baina ideia horri lotuta, batek baino gehiagok honako banaketa hau egin digu: kanpotik etorritakoek euskararekiko errespetua adierazten duten bezala, bertako askoren jarreraren utzikeria nabaritzen dutela: «Nik gehiena ikusi dodana da kanpotik eta etorritakoak gogoz edo errespetuz eta gero Bilbo bertakoak utzikieran...» (2AZ1P:27). Kanpoan jaiotako ama baten ustez hori da euskararen biziberritze prozesuan oinarritzko arazo bat: «hay mucha gente de aquí que no le da la gana aprender (...) yo creo que algo muy de base es la resistencia de población vasca a

aprender euskera» (2AZ2P:18). Egon da, jarrera hori askoren familia hizkuntza plangintzarekin lotu duenik ere:

Ez, kontrakoa ez. Baina nik igual gehien, garrantzi gutxi ematea, lehenengo mailara ekarriko nuke hori. Nik, hemengo guraso artean da gehien ikusten dodana da beraientzat, berez, ez dala garrantzitsua. Adibidez, ume denak hiru urte dauzkatenetik doaz ingelesa ikastera baina, euskera? (2AZ1P:13)

Bilbon egindako azterketa honetan –eta beste tokietan adierazi izan dugun bezala (Altuna, 2023; 2024)–, beraz, gurasoen artean hizkuntza-ideologia ezberdinak zirkulazioan daudela ikusi dugu. Zaila izaten da ideia horien araberrako profilak bereiztea, gehienetan, kontraesankorrak suertatu daitezkeen zenbait diskurtso batera agertu daitezkeelako. Hala ere, atal hau amaitzeko bi gurasoren artean elkarriketa batean eraiki zuten sailkapenarekin itxi nahi dugu, zehatza izan gabe ere, Bilbon (eta Euskal Herrian, orohar) euskararekiko hautematen diren jarreraren erakusle baita:

Gizona: Nik denetarik ikusten dot, azkenean militantea naiz eta orduan euskararen alde egingo dut: “euskara, euskara, euskara eta euskara”. Beste batzuk, nahiz eta euskaldunak ez izan euskaltzaleak direnak eta gero ba hori, Korrikalagun eta ez dakit zer, eta beti joaten dira ibilaldietara, eta, bueno, “euskara babestu behar dugulako, nahiz eta guk ez jakin; igual guk ez dakigu baina semea edo alaba ikastolara apuntatu dugu”. Gero besteak, hirugarren sektorea, ba “euskara ez dakit zer terroristen hizkuntza eta, gainera, euskaraz ez baldin badakizu ez duzu inoiz lanik lortuko, eta hori guztiz diskriminatorioa da ez dakigunontzat”. Eta gero erdiko multzo handi bat: “euskara no me interfieren en la vida eta ez nago ez kontra eta ez alde”; horiek ere multzo handia dira...

Emakumea: Bai bueno, egia da nik administrazio publikoan egiten dudanez, ba egia da los extremos ez? Egia da igual nire lankide pare bi bai badaudela pixka bat haserre (...) Edo bebai hori, inposatutako gauza dela edo horrelako iritziak badaude baina, ez dira gehienak. Eta gero, bai, nik badauzkat lankide pila bat berriak kanpotarrak eta euskara ikasten dauzenak eta askotan datoz gure bila edo saiatzen dira nirekin hitz egiten euskaraz (2D1P:7).

Hizkuntza-ideologiek errealitatean eragiteko duten gaitasuna ere azpimarratzeko moduko kontua da. Hizkuntza-ideologia askotan elementu abstraktu soil gisa irudikatzen da, errealitatean eta praktikan duen boterea eta eragina gutxietsiz. Baina hizkuntza-ideologia balorazio, iritzi, uste eta diskurtsoez haratago doa errealitatean eragiteko indarra handia du eta ondoren ikusiko ditugun familien hizkuntza-praktikekin eta hizkuntza-kudeaketarekin harreman zuzena dute.

9.2 HIZKUNTZA-PRAKTIKAK

Praktika da Familiako Hizkuntza Politikaren bigarren osagaia. Kasu honetan hitzunez hizkuntzarekin egiten duenari egiten zaio erreferentzia eta mota honetako galderei lotuta dago (Hernández, 2015): Zer egiten du familiak hizkuntzarekin? Zer erabilera mota dauka? Zein erabilera bultzatzen du? Zein erabilera ematen da helduen artean? Zeintzuk umeen artean? Eta helduen eta umeen artean?

FHPren osagai hau aztertzeko hiru azpiatal bereizi ditugu: etxea, eremu ez-formala eta eremu informala.

9.2.1 Etxeko hizkuntza-praktikak

“Bilbo. Mapa soziolinguistikoa 2021” dokumentuan jasotako datu estatistikoaren arabera:

«Bilbon bi gurasoak euskaldunak dituztenen % 61k euskara soilik jaso du etxean; (...) Euskara eta erdara batera jasotzen dutenen ehunekoa 18,7 puntuko da. Aldiz, erdara soilik jasotzen dutenena, %20 (...) Beste kasuan, bi gurasoetatik bat soilik denean euskalduna, euskararik jaso ez dutenen ehunekoa 63 puntuko da, eta beraz, ia bi herenek du lehen hizkuntza erdara. Kasu horretan, ia heren batek (%32,5) jaso du euskara etxean erdararekin batera, eta % 4,5ek euskara bakarrik (Eusko Jaurlaritza, 2023).

Datu estatistiko horiek bat egiten dute gure ikerketa kualitatiboan jasotakoarekin. Elkarrizketatu ditugun gurasoen artean ohikoa da etxeko hizkuntza-praktikan gaztelania gailentzen dela esatea: «ni normalean, erderaz erabiltzen dut, eta gero eta gutxiago, lehen gehiago euskeraz erabili nuen. Eta nire senarra beti euskeraz hitz egiten du, seme-alabarekin, bera bai» (2D2P:7). Izan ere, aztertu ditugun kasu gehienetan gurasoren batek ez daki euskaraz edo nahiko gaitasunik ez du eta horrek etxeko hizkuntza baldintzatzen du:

En casa la verdad es que cuando estoy yo con ellos hablamos en castellano. (...) Con mi pareja pues sí que hablamos, el habla en euskera, los crios les hablan siempre en euskera, el mayor siempre le contesta en euskera, la pequeña le contesta en casa en castellano (2AZ2P:20).

Bikotetan guraso izan aurretik harreman hizkuntza zein zen garrantzia duela adierazten dute zenbaitek. Halakoetan saiakera egin arren, bikotekideen arteko ohitura aldatzea zaila dela uste dute:

Umeak badaude, beti euskaraz, umeak ez badaude, ohituragatik, batzutan euskaraz, batzutan erderaz. Nik beti esaten det, mesedez, zu jarraitu euskaraz, eske ni nahi gabe, pentsatu barik nago erderaz hitz egiten, eske, klaro, eske txikitatik ezagutzen dugu elkar ordun oso zaila da niretzat (2D2P:7).

Bi gurasoz osatutako familietan biek euskaraz dakitenean etxean euskaraz egiteko joera handiagoa da:

Guk euskeraz bai. Nik eiten dut euskeraz nire gurasoen etxien. Euskeraz bakarrik; pentsatuz gero, ze beste hizkuntza bat ez zait ateratzen. Baina [bikotekidearen] etxian erderaz ein da beti eta ordun... Gero umiekin ba beti euskeraz (2AZ1P:11).

Hala ere, adibide horretan ikusten den moduan, halako kasuetan ere zaila da familia-nuklearretik haratago euskarari eustea. Aiton-amonak edo/eta beste senide batzuk euskaldunak ez izatea ohikoa da eta horrek ere eragiten du familia hizkuntza-praktiketan. Esan daiteke, beraz, oso gutxi direla familia-harreman guzti-guztiak euskara hutsez dituztenak.

9.2.2 Eremu informala: haur-guraso hizkuntza praktikak kalean

Haurrek gurasoekiko dituzten elkarrekintzak ez dira etxe barruan soilik gertatzen. Umeak kaleko, parkeko edo bestelako aisialdi-jardueretako hizkuntza-praktiken bidez ere hizkuntzan sozializatzen dira. Horiei buruz galdetuta, zenbait kontu interesgarri agertu zaizkigu.

Aurretik aipatua geratu den moduan, argi geratu da eskolei lotutako kale-espazio batzuk euskaraz aritzeko lagungarriak direla. Deustun, esaterako, ikastola ondoko parkean gurasoak euskaraz egiteko gune gisa agertu zaigu. Alde Zaharrean antzera gertatzen zen eskolen jolas-tokiekin, nahiz eta COVID-19 pandemia ondoren espazio horien erabilera debekatu zen eta beste toki batzuetara mugitu behar izan zuten, Plaza Barrira adibidez.

Jolas eta solas librerako egunerokoan erabiltzen diren espazio horien inguruan bi auzoetan agertu zaigu beste elementu esanguratsu bat: ohikoa da kafetegiak edo tabernak dauden guneak izatea. Horrek zalantza sortzen dio zenbait gurasori: alkoholaren kultura.

Horrek baditu inplikazio komunitario eta kulturalak, Alde Zaharreko ama honek argi identifikatzen dituenak:

Antes nos juntábamos mucho en la escuela (...) Era mucho más fácil. Porque al final, con la gente era mucho más fácil, le voy a recoger a los críos y me quedo un rato [en el patio], que coja a los críos y vaya a la Plaza Nueva que está llena de bares. Para familias musulmanes, algunas van, pero para muchas no es lugar (...) Porque claro, en la escuela no entra alcohol. Entonces siempre se llevaba agua, cogían las jarras del jantoki y se bebía agua, y entonces era un sitio mucho más abierto y mucho más inclusivo (2AZ1P:32)

Bestalde, ikerketan parte hartu dutenek guraso gazteen euskararen gaitasuna elementu lagungarri gisa identifikatu dute. Bigarren profileko Deustuko ama honek hala zioen parkean gurasoen artean somatzen dituen hizkuntza-praktikei buruz:

Badaude kuadrilak euskaldunak direnak, edo garena. Eta beste batzuk ez. Baina nik uste jende gazteak badaki euskeraz egiten (...) guraso gazteak. Eta euskaldunak dira gehienak. Eta, gainera, igual ume txikiekin daude berriro euskararekin, ¿no?. Eta haiek dakite, nik ez dut eduki zorte hori, baina haiek dakite. Daukate oinarria, bai, eta hemen nabaritzen da (2D2P:11).

Dena den, gurasoek argi dute Bilboko eremu informalean gaztelania nagusitzen dela: «a día de hoy tú te vas a los patios y los críos están jugando en castellano, mezclando, meten palabras [en euskera] pero mayoritariamente están jugando en castellano» (2AZ1P:11).

Euskal Herrian zehar azken urteetan egin diren ikerketa soziolinguistikoetan jaso izan den moduan (Altuna, 2018; Martínez de Luna, 2022) hemen ere baieztatu da nolabaiteko hizkuntza-arau bat: haur eta helduen arteko solasaldietan euskaraz egin behar da, baina haurren arteko elkarriketetan edo gurasoen artekoetan gaztelaniaz. Hau da, belaunaldi arteko harreman bertikaletan euskaraz egiteko joera dago eta berdinen arteko harreman horizontaletan erdaraz. Izan ere, Kale Neurketen datuek hala diote: adinkideen arteko elkarriketetan euskararen erabilera dezente txikiagoa

da. Bilboko datuei begira ere nahiko argi ikusten da hori. Haurren (2-14 urte) euskararen kale erabilera %7,6 da, baina haurren arteko erabilera datua %3,8 da. Hau da, haurrak euren artean hitz egiten dutenean euskaraz gutxiago erabiltzen dute. Nagusien arteko datua hare txikiagoa da: %1,7. Haurren eta nagusien arteko datua, ordea, %8,6 da (Soziolinguistika Klusterra, 2022).

Deustuko ama batek hala laburbildu zuen ohiko egoera hori « umeak hor dauz jolasten eta gurasoek esaten dienean: "Jan ezazu platanoa mesedez, como te iba diciendo..." » (2D2P:5).

9.2.3 Eremu ez-formala: antolatutako aisialdi-jarduerak

Eremu ez-formalak antolatutako esparruari egiten dio erreferentzia, zehazki, helduek sortutako eta kudeatutako jarduerak eta azpiegiturei. Horren barruan sartzen dira aisialdi taldeen jarduerak, kirola, jaietan antolatutakoak, ikus-entzunezkoak eta arte adierazpenekin lotutakoak (musika, margoketa...).

Eremu honetan ere euskararen presentzia handiagoa da **eskolek antolatzen dituzten jardueretan** eta elkarriketetan parte hartu dutenek guraso elkarteetan lana azpimarratu dute. Alde Zaharrean, adibidez, Atxuri Eskolako gurasoek hala zioten: «Gure eskolan, bai. Eskeintzen dana euskeraz da» (2AZ1P:24) eta Mujika eskolan ere gauza bera da: «hemos hecho la apuesta que todas las actividades extra escolares tienen que ser en euskera (...) y a veces cuesta, o sea, especialistas en yoga infantil en euskera, hacemos un montón de cosas y que sea todo en euskera» (2AZ2P:10).

Jarduera asko antolatzen dituzte eta zenbaitetan zailtasunak dituzte euskaraz aritu daitezkeen hezitzaileak topatzen. Bestalde, batzuetan guraso elkartearen baitan euskara batzordeak antolatzen dira eta hauek ere oso talde dinamikoak dira. Atxurin adibidez, gurasoen euskara batzordeak kultura eta folklorearekin loturiko ekimenak antolatzen ditu (Santa Ageda, Kultur Astea...), euskarari lotutako jaiak (Korrika, Euskararen Eguna...) eta tailerrak (euskara tailerrak gurasoentzat eta begiraleentzat) eta baita euskarazko jolas eta kantutakoak ere:

Soka festa eitten dogu ekainean ta ataraten dogu soka pilo bat eta lantzen dira kantak euskeraz soka saltoaenak, baino euskeraz. Ez da izan behar beti "Al pasar la barca" ta horrek. Eta gero ja sokatira eiten da ta, jolasak soka inguruan, baina euskerara landuta. (2AZ1P:32).

Jaso dugunaren arabera, argi dago aipatutako guraso elkarte horien guztien helburuetako bat aisialdiko jarduerak euskaraz antolatzea dela: «euskera eta ondo pasatzea apurtxo bat lotzeko» (2AZ1P:2). Hala ere, talde hauen dinamika barrutik ezagutzen dutenek neke sentsazioa adierazi dute:

Gauza pilo bat egiten du ...[Guraso Elkartearen] euskara batzordeak, baina gehien bat biziraun, ze ez gara asko. Eta eutsi egin beharko. Nik urte pilo bat daramat hor. Eta, bai, ez da erreza izaten. Ba azkenian nekea sortzen da, ez da erreza gauzak aurrera ateraten (2AZ1P:2)

Kirolari dagokionez, jaso dugun pertzepzio nagusia da esparru horretan orohar euskarak toki txikiagoa duela. Berrirori ere, eskolek antolatutako kirol jardueretan

euskara gehiago zaintzen dela diote, baina hala ere, Deustuko ama honek adierazi bezala, eremu honetan oztopo nabarmenak daude:

Ikastolan, bai [euskaraz], ikastolan printzipioz, bai. Baina, ez dago ondo landuta euskaraz izan daiten. Nik uste dut erraza dala, ze denak dira ikasle ohiak eta pentsetan dut ondo landu ezker euegaz... Baina, batzutan, jario falta bat dekie euskaldun horiek. Hor dabilz igual saskin, entrenatzen saskin, umeak patioan eta egiten dabe gaztelera pila bat. Igual erreztasun falta, edo proiektu falta, ez? Apur bet landutea euegaz ze garrantzitsua dan erreferente horiek euskaldunak izatea (2D1P:21)

Halakoetan entrenatzaileak euskaraz jakiteak garrantzia du. Atxurin, adibidez, irizpide argia da hori: «Saskibaloia, futbola ta hori suposatzen baita ere dala taldian eta euskeraz. Ta baldintzak: ba datozen entrenatzaileak euskeraz hitz egin behar dute. Haurren artien erderaz eiten dabe baina, bai, monitoreak saiatzen dira» (2AZ1P:7).

Baina, hala ere, «erreferenteak gaztelaniatik izaten dira» (2D1P:21) azpimarratzen dute eta eskolatik kanpoko kirol talde gehienek euskaraz ez dutela funtzionatzen ere, futbola, karate edo igeriketa klubak adibideak aipatuz.

Bilboko Udalak antolatutako kirol ikastaroei dagokionez, behin baino gehiagotan agertu da haur txikiaren igeriketan ikasteko ikastaroak. Gurasoek azpimarratzen dute euskaraz edo gaztelaniaz egiteko aukera ematen dela eta horrek laguntzen duela haur eta gurasoak elkartzen den espazio horretan euskarazko burbuila moduko bat sortzen: «Umea oso txikia zenean joaten ginan igerilekura ta zentrura, Azkuna zentrura, eta pilo bat entzuten genun [euskara]. Gurasoak ume oso txiki hitz egiten. Harrituta...» (2AZ1P:3).

Kirolari lotutako azken kontu bat ere seinalatu dute Deustuko gurasoek: hizkuntzaren aldagaia ez dela soilik hurrekin kontuan hartu behar, helduei zuzendutako kirol jarduerak ere euskaraz izateko aukera ematea garrantzia duela. Hala zioen ama hauek:

Emakume 1: Pentsatu, adibidez, igual nahi dugula kirola egin, ez? Adibidez, gurasok, umeak daukiezenean ja urte batzuk. Danok nahi dugu kirola egiten hasi edo zeozer, ez? Adibidez, ni dantzan hasi naz aurtan. Ba, joe! justu gure dantza andereñoa euskalduna da eta dago euskaldun pila bat. A ver, klaseak gaztelaraz da, baina egotea aukera apuntatzen zarenean-edo: Spinning edo gimnasio edo ez dakit, horrelako aktibitate bat euskaraz egitea oso ondo legoke.

Emakume 2: Gurasoei begira... bueno! helduei begirako holako eskaintza...

Emakume 1: Bai, claro! (2D1P:23)

Ikus-entzunezkoen gaia egin ditugun elkarrizketa guztietan azaldu da. Gurasoek uste dute telebistak, filmak edota musikak garrantzia handia dutela. Telebistan gaztelaniaz eta ingelesez dagoen eskaintzak sekulako itzala egiten dio euskarazkoari: «aukera asko, baina denak dira gaztelaraz (...) *You Tube, Disney...* eta hor orduak sartu egunero. Ta horrek asko eitten du» (2AZ1P:7). Hain zuzen ere, gurasoek ikus-entzunezkoek haurren hizkuntza dinamiketan duten eragina ikusten dute euskarazko

proiektu arrakastatsuen bidez. Egin ditugun ia elkarrizketa guztietan etengabe agertu dira horren adibide diren bi izen: Go!azen telesaila eta ETS musika taldea:

No se pierde Go!azen, es muy guay. Y la música... La música le gusta también en euskera. Cuando vamos en el coche, puede pasar de cosas más, yo que sé, cosas más infantiles. O sea, pide Su Ta Gar, Zea Mays... (2AZ2P:20).

Gero dauz hori, Go!azen, ETS eta honek, indarra daukienak eta gazteek arituko doazenak euskeraz. Niretzat hor indargunea ...[dago]. Azkenian lotzia gozamina euskerakin (...) Neskatilak bederatzieta etxera. Barikuetan bederatzieta etxian egon nahi dabe Go!azen ikusteko (...) Eta ETS euskeraz da eta beitu zelako milaka [ikusle] zelan mugitzen dabezen. (...) Eta behintzat euskeraz abesten dabe... (2AZ1P:8).

Adibidez, Go!azen. O sea, badaude saio batzuk que oso interesgarriak dira, ondo daude gainera, eta euskaraz dira. Eta engantxatzen dira eta orduan ondo dago: Go!azen, bestea futbolarena...Irabazi arte! Edo musikako bat, (...) baina, claro, nahiz eta eskaintza handia egon, pues ez dago asko. Ta kostatzen zaie, klaro. Netflixen gehiago dago duda barik (...) Musika oso inportantea da ere. Talde berriak euskeraz abestea-eta nabaritzen da asko. ETS daude denbora guztian entzuten. (2D2P:13).

Irratia eta on-line erreferenteak ere aipatu dituzte, baina ez hainbeste, ziur aski seme-alaben adinarengatik ez dutelako hautematen horrenbesteko eragina dutenik. Hala ere, horretan ere gaztelaniaren nagusitasuna hasi dira nabaritzen:

Emakumea 1: Eta gero hazten direnean...

Emakumea 2: Hori da, eta da guaja. Eta hasten dira Youtuben no se que, eta da dena erderaz.

Emakumea 1: Hasi dira euskarazko Youtuberrak gehiago.

Emakumea 3: Ni keitzaten ari naiz irratia eta zuek, YouTube. Influencers, euskarazko influencers behar dira

Emakumea 4: Claro, agertzen direnak interneten denak neskak erderaz hitz egiten. Eta azkenean, haiek egiten dute haien moduan, eta da erderaz. Eta batzutan gero nik "Zergatik hitz egiten duzu erderaz?"; "Ama, por que erderaz da". (2D2P:20)

Literaturarekin lotutakoak ez dira hainbeste agertu, baina zenbait literatur-generoetan euskarazko argitalpenen eskaintza murrizta dela nabaritzen zuten guraso batzuk; Alde Zaharreko honek, adibidez: «irakurtzeko adibidez ba komikiak eta gustatzen zaizkie. Baina bukatu dira. Euskeraz oingo komikiak dira lau eta amaitu dira. Eta ja dena da gazteleraz. Lehen saiatzen zan hori bilatzen hor ba harrien azpian baina ez dago» (2AZ1P:7).

Kultur ikuskizunek eta jaiek ere garrantzia dutela jakitun dira. Auzoetako jaiak dira gehien aipatu direnak, eta euskararekin lotura dutela diote, batez ere Deustun: «jai batzordea oso euskalduna da eta orduan igartzen da, antolatzen dituzten kontzertuak eta egiten dituzten gauzak» (2D1P:28). Baina baita Atxurin ere,

Atxurigorri auzo elkarteak eta auzoko jai batzordea ere euskarazko ekimenak antolatzen baitituzte. Bestalde, Bilboko Udalak haur eta familiei zuzendutako euskarazko ikuskizunak antolatzen badituzte ere, «bai, umeei zuzendutako gauzak euskeraz eiten ari dira»(2AZ1P:25), guraso batzuk uste dute auzoetan eskaintza handiagoa izateaz gain programazioak jarraikortasuna eduki beharko lukeela:

Igual egin liteke, ez dakit, ba hilean baten euskal taldeen kontzertua, auzoko tabernetan ez dakit, ez? Eta horrekin igual iten dau bultzatu, euskaldunak eta euskal zaleak batzea (...) edo antzerki gehiago parkean, ez dakit. Imaginatu zapatuan hamabietan, ba antzerkia dago hor Itsasadar ondoko parkean edo San Pedron. Dekozula aterpetute antzerkitxo bat euskaraz eta da leku bet biltzeko, ez? Leku bet taldea egin eta hurbildu ahal izateko. Baina nik uste, horrek ondo funtzionatzen dutela be bai oso periodikoak direnean eta errepikatzen direnean (2D1P:24)

Azkenik, haurrei zuzendutako jarduerak antolatzen dituzten **aisialdi taldeen** garrantziaz ere aritu dira gurasoak. Alde Zaharreko emakume batek argi bereizten zuen eremu horretan Deusturen aldean Alde Zaharrak duen gabezia:

Niretzat beste zerbait da ez daudela aisialdi talderik euskeraz Alde Zahar baten eta Deustun bai. Deustun daukie Txantxiku ta talde hori... Berbaizu. Baina hemen ez dau gaztientzako ezer... (2AZ1P:8).

Izan ere, Deustuko elkarrizketa guztietan Txantxiku aisialdi taldearen garrantzia azpimarratu dute bestelako taldeekin batera (Gazte Alai, dantza taldea, erraldioen konpartsa...).

Eremu informalean eta eremu ez-formalean aipatutako elementu guztiek haur-kultura osatzen dute. Haur-kultura garai eta espazio zehatz bateko haurrek partekatzen dituzten sinboloak eta balore-sistema da eta Alde Zaharreko aita honek laburbildu zuen bezala haur-kulturan hizkuntzak ere garrantzi handia du:

Gero lagunekin ikusi duzu ez dakit zer edo azkenengo ez dakit zer: Pokemonen ez dakit zer historia. Gaztelaraz ikusi dute ta gaztelaraz hitz egiten dute horri buruz (...) hori da beren mundua. Hola gauzak eta gero ba futbola edo ez dakit zer. Eta hori be ikusiko dute gaztelaraz, telebistan edo... (AZ1P:23)

Haur "mundu" hori euskaraz eraikitzeak sekulako garrantzia du eta elkarrizketatu ditugun gurasoek argi dute eremu guztietan (etxekoan, informalean eta ez-formalean) euskaraz aritzeko aukera handiak izatea beharrezkoa dela, testuinguru soziolinguistikoa lagungarria izan ez arren, haurrek ikasitako hizkuntza hori ez galtzeko:

Erabiltzen ez bada ez dago ezer egiterik (...) gure umeak, (...) nahiz eta euskaldunak izan, erabiltzen ez babadute... [euskara] badakite eta daukate oinarria, baina posiblea da gero, nagusietan, erabiltzen ez badute, galtzea (2D1P:5)

9.3 PLANIFIKAZIOA ETA ESTRATEGIAK

Aurreko orrietan agerian utzi nahi izan dugun bezala, familiek erabakitzen dituzten hizkuntz politikak oso baldintzatuak daude testuinguruarengatik. Beraz, FHP oso

dinamikoa eta konplexua da eta gizarte faktore anitzek eragiten dute: hizkuntzekiko dauden arau sozialak, lan munduko errealtatea eta espektatibak, ideologiak, hezkuntza sistema, hizkuntzen ikasketa prozesuak eta abar. Hala ere, familiak seme-alabek zein hizkuntzak ikastea eta erabiltzea nahi duten erabakitze gaitasun, ahalmen eta agentzia dute, baita helburu hori lortzeko estrategiak abiatzeko ere.

Familia Hizkuntza Politikaren hirugarren osagaiari, beraz, erreparatu behar diogu: planifikazio eta estrategien esparrua. Kasu honetan hizkuntza baten inguruan sortzen den dinamika edo hizkuntza bat baino gehiago daudenean egiten diren aukeraketei egiten zaie erreferentzia (Hernández, 2015). Horri begira, egin daitezkeen galderak honako hauek izan daitezke: Familian, zein hizkuntz arau daude? Negoziatzen dira? Eta nola? Zer egiten du familia bere hizkuntza mantentzeko eta sustatzeko? Zein da kide bakoitzaren zeregina hizkuntz garapenean? Nolako ahalegin egiten da hizkuntza bat mantentzeko, edo bigarren hizkuntza bat sustatzeko? Zein estrategia planteatzen dira? Ba al du familia hizkuntzarekiko helbururik?

Dagoeneko, ikerketan jasotako puntu garrantzitsuenak biltzen duen dokumentu honetan, parte hartu duten familien hizkuntza-kudeaketaren berri izan dugu eta galdera horiek guztien erantzunetara gerturatu gara. Jarraian, beraz, batez ere erabiltzen dituzten estrategiak laburbilduko ditugu.

Hasteko esan behar da, gurasoek adierazi digute hizkuntzaren planifikazioari buruz hitz egin izan dutela. Batzuk negoziatu dute bikote harremaneko hizkuntza eta, ikusi dugun moduan, ohiturak aldatzea zaila suertatzen bazaie ere, zenbait kasutan bikotekideen artean euskaraz aritzeko saiakera egin dute (ikusi 6.3. atala). Baina, zalantzarik gabe, familia-hizkuntzari buruzko erabaki kontzienteena gurasotasunari lotuta agertzen zaigu (ikusi 6.2. atala). Aztertu ditugun familia gehienen helburua da seme-alabek euskara ikastea eta erabiltzea. Gaztelania ere, noski, baina badakite xede horretarako ez dutela planifikazio handirik behar, bizi diren gizarte egiturak hori bermatuko baitu.

Hala ere, beti ez dago hasieratik hitz eginda. Batzuetan adostasun argirik ez dago «ba, guk, nik hasieran argi neukan seme-alabarekin katalana erabiltzea, nire senarra ez zen ados, bera zen: "berdin da zein hizkuntza erabiliko dugun" eta azkenean, hasi ginen erderaz hitz egiten» (2D2P:8); eta, askotan, erabakitakoa moldatzen da denbora pasa ahala: «etxean guk pentsatu dugu bera bai ala bai euskeraz (...) eta nik esan dot "orduan nik hitz egingo dut ingelesez umearekin eta ni hasi naiz ingelesez" (...) eta *claro*, nik aldatu dut segituan (...) eta etxean ja dana euskeraz» (2D2P:9).

Jarraian, hortaz, euskarari lotutako helburua lortze aldera, ikerketan parte hartu dutenen kontakizunetatik zerrendatu daitezkeen estrategia nagusienak bildu ditugu.

9.3.1 Euskaraz hitz egitea haurrekin

Logikoa den bezala, estrategia nagusia, ahal den heinean familia hizkuntza euskara izatea da. Gurasoek euskarari lotutako helburua lortzeko etxean eragitea garrantzitsua dela uste dute. Deustuko ama honek, esaterako, oso argi dauka: «oso inportantea da etxean hastea. Etxian egiten badugu euskeraz, gurasoek badute ohitura bat, gero kalean umeentzat errezago izango da (...) eta nik uste dut gure esku dagoela» (2D1P:25). Testuingurua ez denez lagungarria, etxea babesleku gisa eraiki nahi dute: «nik babestu nahi dut etxea, erraztasun hori edukitzeko, o sea, gure ideia da erraztasuna mantendu dezaten (...) binkulazio edo goxotasun hori, etxekoa» (2D1P:20)

Bi guraso dauden familietan biak euskaldunak izateak laguntzen du, nahiz eta, horrelakoetan ere batzuk estrategia honi eusteko zailtasunaz mintzo dira: «guk hitz egiten ze, *claro*, [bikotekidea] eta nire artean saiatzen gara euskaraz hitz egiten (...) eta orduan saiatzen gara, baina, be bai gaztelerara jotzen dut [seme-alabekin]. Nik uste, hori be bai, ni azkenean erdalduna naiz, erdaldun zaharra» (2D1P:4).

Baina, bikote harremanetan gurasoetako batek euskaraz nahiko gaitasunik ez edukitzea ohikoa da eta halakoetan dakien gurasoak seme-alabekin euskaraz hitz egitea adostua izaten dute eta ez dakienak hori sustatzen du: «nire kasuan emazteak esan zidan hori "zuk egin alabari euskaraz, bai, beti" (...) emazteak beti dino "zuk egin euskaraz"» (2D1P:14). Horrez gain, gaitasun nahikorik ez duten gurasoek zenbait modu aktibatzen dituzte euskararekiko gertutasuna adieraziz edo dakiten gutxi hori haurrei transmititzen saiatuz euskararekiko jarrera baikorra erakusteko. Estrategia horren parte da, adibidez, jarduera zehatz batzuk euskarari lotzea: «ni beti saiatu izan naiz euskaraz, *o sea*, ipuinak euskaraz, *o sea*, gauza batzuk baditugu oso argi euskaraz direla eta nik uste dut badakiela bereizten» (2D1P:20). Edo etxeko une bereziak euskaraz garatzen saiatzea:

A veces, por ejemplo el último cambio de ropa de armarios, le dije "venga vamos a hacerlo en euskera (...) esto, esto me viene pequeño, esto me viene grande, esto es rosa no sé qué, esta bolsa es para tal, esta otra bolsa es para no sé qué, esto guardamos para el año que viene". Y todo eso lo decimos las dos en euskera y muy bien (2AZ1P:21).

Halako adibideren bidez, ikusten da zenbait familietan saiakera handia egiten dela euskaraz etxean bere tokia eduki dezan: «etxean saiatzen naiz euskaraz egiten, batez be umearekin baina egia da, nire bikoteak euskara maite du, euskara ulertzen du baina, kostatzen zaio gehiago euskaraz hitz egitea, saiatzen da pilo bat» (2D1P:20). Hala ere, aipatua geratu den bezala, seme-alabak handitu ahala, estrategia hau praktikara eramatea geroz eta zailagoa dela ere hautematen da.

9.3.2 Euskaraz egingo duen eskola batean matrikulatzea

Antzeko testuinguruetako familiekin egin diren beste ikerketetan bezala, Bilbon egindako azterlan honetan ere gurasoek estrategia nagusi moduan ikusten dute: «eskola eremua ere euskararentzako eremu oso garrantzitsua da profil guztietako gurasoentzat» (García-Ruiz, 2023:282). Zehazki, eskolari lotuta aktibatzen den estrategia nagusia eskolaren aukeraketarekin lotuta dago. Ikerketan parte hartu duten guraso gehienek modu kontzientean eramaten dituzte haurrak euskarazko ereduak duten ikastetxetara. Hau da, euskara eta euskaraz ikasteko nahia oso argia da.

Eskolaren aukeraketarena seme-alabak jaiotzen direnetik buruan bueltaka duten gaia da. Erabakian beste aldagai batzuk ere eragina badute ere (etxetik gertu egotea, adibidez), zenbait gurasorentzat hizkuntzarena garrantzia duen elementua da. Ama batek, adibidez, ikerketa moduko bat egin zuela kontatu zigun:

Nik lehenengo umea euki baino lehen, beno, jaio zanian, eta eskolakin pentsatzen hasten zarenian, ein neban halako ikerketa bat: parke hori, beste parkea... Eta euskeraz entzuten bazen, umien artian euskeraz zebiltzela entzuten baneban, hurbiltzen nintzen ta galdetzen notzien ze eskolatakoak ziren (2AZ1P:15).

Deustuko gurasoek nabarmendu dute ikastolak nolabaiteko bermea ematen diela haurren euskalduntze prozesuan, nahiz eta, sorpresarik eraman duenik ere bada:

Gure esperientzia izan zan. Apuntatu genduzan Deustuko ikastolan, ikusten genuelako giroa nahiko euskalduna zala. Eta niretzako sorpresa handia izan zan, ze etxean euskaraz egiten gendun eta hasi gintzezan umea eramaten ikastolara eta etortzen zan, ez hainbeste gaztelaraz hitz egiten, euskaraz txarto hitz egiten [baizik] (2D1P:5)

Hala ere, ikastola euskararen “*minimundutxo*” gisa irudikatzen dute, eta horrek ez die soilik balio seme-alabak euskararekin harremana eduki dezaten, baita gurasoen arteko harremanak euskaraz eraikitzeke ere: «dago minimundutxu bat ikastolaren inguruan, (...) orduan horrek niri eman doste aukera eduki ahal izateko lagunak euskaldunak» (2D1P:6).

9.3.3 Eremu ez-formal eta informala euskaraz bizitzeko aukera ematea

Seme-alabak euskaraz funtzionatzen duen eskola batean matrikulatzea, beraz, gurasoek erabiltzen duten estrategia garrantzitsu bat da. Hala ere, azken urteetan behin eta berriro azpimarratzen den moduan, argi dago euskararen biziberritze prozesu osoa ezin dela utzi eskolaren bizkar gainean. Elkarriketatu ditugun gurasoek oso argi dute hori horrela dela eta paradoxa moduko bat ere agertzen zaigu: batetik, eskolak laguntzen du giro euskalduna sortzen, baina, era berean, euskara mundu akademikoarekin lotuta geratzen da. Zenbait gurasorentzat harreman hori arazotsua da: «[gu gazte ginenean] Ibilaldietara joaten hasi zen asuntza, eta hor ikusi genuen ba dibertitzeko hizkuntza bat zala, o sea, gazte izateko hizkuntza bat zala; Falta zaie gaur egun hori, lotzen dute euskara mundu akademikoarekin» (2D1P:12).

Horregatik, gurasoek aktibatzen duten beste estrategia bat euskara ludikotasunarekin lotzea da. Seme-alabek eremu ez-formala eta informala euskaraz bizitzeko aukera edukitzeari garrantzia ematen diote. Esparru zabal horren baitan bi dira gehien aipatu diren elementu garrantzitsuak: (1) Familien artean osatzen diren taldeak eta aisialdi plan informalak eta (2) Eremu ez formaleko jarduerak.

(1) Familien artean osatzen diren taldeak eta aisialdi plan informalak

Aurreko bi estrategiekin batera, hau izan da elkarriketa askotan agertu den elementu esanguratsu bat. Haurrak eskolan hasten direnean, ohikoa da gurasoen artean harreman berriak sortzea. Batzuetan eskolako taldeen arabera elkartzen dira familiak eskolaz kanpoko eremu informaletan, beste batzuetan parkeetan osatzen dira lagun talde berri hauek. Alde Zaharrean, adibidez, Atxuriko parke bat eta Plaza Barria dira gehien aipatzen diren aisialdi espazio horiek: «en la plaza nueva, es el lugar así donde todo el mundo peregrina al salir» (2AZ1P:23).

Talde informal hauen sortze prozesua ez da beti modu berean gertatzen, zenbait gurasok erraza izan dela aipatu dute, baina badago bestelako esperientzia izan duenik ere: «zaila egiten zait (...) pixkanaka-pixkanaka [noa], bai, ikusten dut taldetxoak daudela eginda *ja* pixka bat» (2D1P:6).

Hizkuntzari dagokionez, aniztasun handia dagoela jaso ahal izan dugu eta, taldearen arabera, errealitate linguistikoa aldatu egiten da. Hizkuntzak badu eragina talde hauen eraketan, guraso batzuentzat garrantzitsua delako eskolatik kanpo seme-alabek euskaraz arituko den testuinguru bat edukitzea. Deustuko ama honek,

esaterako, beretzat garrantzitsua izan zela aitortu zigun: «euskarak pisu handia eduki zuen. Iikusi nuen] kuadrilla bat ondoan esaten nuena "jo zelako jende majoa" eta hasi nintzen horrela (...) eta horrela hasi gintzezan kuadrilla osatzen» (2D1P:15). Baina hizkuntzarena ez da erabat determinantea den osagaia eta ikusten da badela zoriaren kontua ere: «zorte euki dut ia danak euskaldunak direla, eta batez ere ikastolako kuadrilla, dira danak, danak igual bat izan ezik, euskaldunak, eta egiten dugu euskaraz» (2D2P:3).

Talde hauen hizkuntza praktikak ere anitzak dira. Orokorrean hizkuntza nahasketa ematen da, baina askotan gaztelania gailentzen da. Kasu batzuetan euskaraz ez dakien pertsona bat nahikoa da taldeko hizkuntza aldatzeko (euskaratik gaztelaniara), beste batzuetan, ordea, erdaldunak ulertzen duela ziurtatuz gero euskarazko elkarrizketak mantentzeko apustua egiten da. Elkarrizketetan parte hartzen duten hiztun kopuruak eragina du euskararen erabileran eta taldea handitu ahala gaztelaniaz aritzeko aukerak handitzen dira: «guk binaka asko-asko egiten dugu euskaraz eta taldeka ba igual bazauz kuadrillitan holan, ba elkarrizketa amankomuna baldin bada ba, egiten dozu gaztelaniaz» (2D1P:15).

Jaso dugunaren arabera, hizkuntzarena ez da adosten edo hitz egiten den kontu bat «ez, baina militantzia dago danon aldetik» (2D1P:17). Hala ere, elkarrizketatu ditugun guraso gehienek diote talde hauen hizkuntza praktikak ahal den heinean euskaraz izateak garrantzitsua dela, horren bidez, haurrek euskara eskolatik kanpo erabiltzen den hizkuntza dela ikusi dezaketelako. Onurak, gainera, ez dira soilik txikientzat, guraso batzuk ere talde hauetan euskaraz aritzeko aukera izateak lagungarria dela diote:

Eduki dut zorte on bat. O sea, es que hor egunero hitz egiten dut euskeraz. (...) O sea, ta jendea badaki nik ez dudala hitz egiten super perfektu baina nik galdu dut lotsa horrexegatik eta orain super ondo, moldatzen dira nirekin: hau da nire euskaltegi»(2D2P:9).

Parkeak edo plazak dira talde hauek elkartzeko guneak eta aste barruko arratsaldeak elkarrekin egoteko uneak. Elkarrizketetan, askok aipatu dute plan horren elementu garrantzitsu bat: tabernak. Esan dugun bezala, Plaza Barriko terrazak edo San Pedroko tabernak elkargune bihurtzen dira, batez ere, ostiraletan: «barikuero barikuero *imperdonablea* da, barikuero elkartzen gara, bai, gurasok edateko eta umeak hortik egoteko» (2D1P:16). Horrek zalantzak sortzen die batzuei, alkoholaren inguruan eraikitako aisialdi eredua delako. Hain zuzen ere, aita batek aisialdi horren definizio zehatza eskaini zigun: «ostiraletan, Atxuriko plazan, nahasten dira bi aisialdiak: "alkoholarena eta gusanitoena"» (2AZ1P:19).

Hala ere, aste barruko plan horiek askotan aste buru edo opor garaietara zabaltzen dira. Familien arteko harremanak estu direnean, asteburuetan mendira edo beste herri batzuetara joaten dira, haurrak txikiak direnean askotan gurasoek bilatzen dutelako haurrak ondo pasatzea beste haurrekin batera:

Multzoa baldin badago ondo pasatzen dute. Orduan, gu behintzat elkartu gara ba giroa dagoen lekuan. Daude planak ba hor, ta gutxi baina zertxobait egin dugu baita ere hola pixkat mendira ta hor irteeratxo batzuk. Gehiena da bazkariak(...) Eta hala oso jende desberdina. Oraingoan moldatzen gera oso ondo, batez ere umeentzat plana delako ta guretzat ere (2AZ1P:21)

Horrelakoetan hizkuntzaren irizpidea presente dagoela ikusi dugu, besteak beste, guraso askok aipatu dutelako ohiko plan horietako bat "herri euskaldunetara" joatea delako.

Baina familiek osatzen dituzten talde eta plan hauek dinamikotasun handia dute. Orohar, haurrak txikiak direnean sortzen dira, denbora pasa ahala talde txikiagotan banatzen dira eta adin batetik aurrera desagertzeko joera dute. Eskolaz kanpokoek eta kirolak familien artean harremanetan egoteko modu hau aldatzen dute. Alde Zaharreko aita batek hala azaltzen du aste barruko planen aldaketa: «bestea da hori, eskolaz kanpokoak. Ja adin honetan egunero daukate zerbait. Batzuk, gehienek ingelesa, ez dakit zer, musika, futbola»(2AZ1P:18). Eta Deustuko ama honek antzera zioen asteburuko planei buruz: «asteburuetan garai batean egiten genituen plan gehiago, baina orain gure hiru mutilak futbolariak dira orduan asteburua hartzen dau; hiru partidu dauzkagu eta orduen horrek hartzen dau» (2D1P:15).

Edozein kasutan, osatzen diren talde hauek hizkuntza kontuetan garrantzitsuak direla uste dugu, ikusi dugunaren arabera etxeko dinamikatik at, beste familia batzuekin batera, sare zabalago batean txertatuta egoteak hizkuntza-planifikazio eraginkorragoa sortzen lagundu baitezake.

(2) Eremu ez formaleko jarduerak

Eremu ez-formalari dagokionez, gurasoek estrategia ezberdinak erabiltzen dituzte, haurrak ahalik eta gehien euskaraz aritzeko. Aisialdian, eta batez ere eredu formaletik kanpo, euskararekin loturiko ekintzetan izen-ematen dute (dalekuak euskaraz, ipuin-kontalariak, dantza, musika eta bestelako eskolaz kanpoko ekintzetan): udalekuak edo zera, Haurkide, Gabonkide, *todo los kides habidos y por haber*, apuntatzen dut, Txantxikun ere apuntatu nuen pasa den urtean» (2D1P:3)

Lehenago aipatua geratu den bezala, ipuinak euskaraz kontatzea edo telebista euskaraz jartzea ere ohiko estrategia da, nahiz eta, eskaintza oso mugatua dela adierazten dute eta haurrak adina gora joan ahala geroz eta zailago suertatzen zaie: «jarri izan dizkiet marrazki bizidunak euskaraz, baina gero ja egia da gaur egun, oso arin egiten dutela salto haurtzarotik, nerabezarora eta ia-ia ez dagoela» (2D1P:19). Musika euskaraz entzutea ere estrategiatzat jotzen dute, adibidez, Ene Kantak, Pirritx eta Porrotx, ETS bezalako taldeak...

Gurasoak, ahal den heinean, eskaintza euskalduna zabaltzen saiatzen dira haurrei eta Bilbon euskarazko jarduerak daudenean, gurasoak haien artean harremanetan jartzen dira horren berri emateko eta horrelako eremu euskaldunak erabiltzeko. Izan ere, guraso batzuentzat oso garrantzitsua da euskara eta euskal kultura lotzea, uste baitute euskarazko erreferente kulturalak edukitzeak haur- eta gazte-kultura euskaraz sortzeko baliagarria dela, euskaraz bizitzeko «motibazio kulturala, bai, kultura batera hurbiltzea» (2D1P:9) beharrezkoa ikusten dutelako.

Eremu ez-formalari lotuta, esanda geratu den moduan, guraso guztiek azpimarratu dute euskara ondo pasatzearekin lotzea berebiziko garrantzia duela. Horregatik, behin eta berriro aisialdiko mota guztietako jardueren euskarazko eskaintza handitzeko beharra aldarrikatu dute.

9.3.4 Bestelako estrategia batzuk

Aipatutako estrategia horiez gain, egindako ikerketan agertu dira beste batzuk ere. Jaso dugunaren arabera, familiek aktibatzen dituzten bestelako tresna hauek ez dira

hain ohikoak edo ez daude hain zabaldua, baina uste dugu zerrendatzea interesgarria dela.

- Seme-alabekin hizkuntzei eta haien egoera soziolinguistikari buruz hitz egitea.
- Seme-alabei lehen hitza euskaraz egitearen garrantzia transmititzea.
- Egoera sozial gehienetan gurasoek euskarari eustea.
- Artak euskaraz eskaintzen duten zerbitzuetara joatea (dendak, tabernak, eta abar).

Izan ere, estrategia nagusietan bezala, hauetan ere familia agente aktibo gisa agertzen zaigu. Horrek erakusten digu etxetik eta gertuko testuingurutatik kanpo familiak potentzialitatea duela eta eragin dezakeela, barrura begira ez ezik kanpora begira ere.

10 ESKU-HARTZEAREN ANALISIA

Proiektu honen lehen eta bigarren faseetan, batez ere, ikerketari begirako lanak egin genituen. Bilboko zenbait guraso gazteren hizkuntza-praktikak, ideiak eta bizipenak ezagutu nahi genituen eta ikerketa garatu den bi gunetako familien arteko harreman-sareen berri jaso genuen, euskararen erabilera areagotzeko aukerak identifikatu ahal izateko. Lan horren guztiaren emaitzak eta ondorioak aurreko ataletan jasota geratu da (5., 6. eta 7. kapituluetan).

Hirugarren faseak, ordea, pausu bat haratago ematea zuen helburu: eskuhartze bat diseinatzea eta martxan jartzea, etorkizunari begirako interbentzioak diseinatzeko gidalerro edota gako praktikoa batzuk eskuratu eta zerrendatu ahal izateko. Horretan aritu ginen 2024ko udaberrian (eskuhartzea diseinatzeko eta planifikatzeko) eta 2024ko udazkenean (eskuhartzeko ekimen guztiak egiten).

Datozen orrietan, beraz, hirugarren fase honi dagokion analisia eta balorazioa laburbildu dugu.

10.1 DISEINUA ETA ANTOLAKETA

Esku-hartzearen helburu nagusia euskarazko egitasmo baten inguruan gurasoak eta haurrak biltzea zen. Proposamena zehaztu aurretik, egin genituen elkarrizketetan oso argi azaldu zen gurasoek modu ludiko eta gozagarrian euskararekin zerikusia duten bizipenak sustatzea eta partekatzea oso beharrezkotzat jotzen zutela. Bestalde, aurrerantzean euskaratik eta euskaraz garatu zitekeen ekimen bat izatea jarritako beste helburua zen.

Gauzak horrela, eta zenbait aukera aztertu ondoren, Gau Beltza erritu eta ospakizunen inguruko ekimenak antolatzea erabaki zen. Batetik, uste dugulako aipatutako helburu horiekin bat datorren jaia delako. Bestetik, azken urteetan Euskal Herriko txoko askotan arrakastaz zabaltzen ari den ospakizuna delako. Eta, azkenik, ikerketa taldeko bi kidek gaian eskarmentua dugulako.

Gau Beltzari lotuta hiru ekimen eskaini ziren Deustun eta Alde Zaharrean:

- **Hitzaldiak:** auzo bakoitzean gurasoei eta orohar interesa izan dezaketen helduei zuzendutako hitzaldi bana izan zen.

- **Liburu irakurketa eta idazlearekin topaketa:** ikastetxeei zuzendutakoa Lehen Hezkuntzako haurrekin Gau Beltza gaia lantzeko
- **Haur eta gurasoentzat tailerra:** Gau Beltza ospatzeko oinarritzakoak diren elementurekin jolasteko eta elkarrekin Gau Beltza zer den eta nola ospatu daitekeen ezagutzeko.

10.2 ESKU-HARTZEA

Hona hemen ekimen bakoitzari buruzko azalpen eta balorazio txiki bat:

10.2.1 Hitzaldiak

Hitzaldi hauen bidez hiru helburu bilatzen dira: Gau Beltza edo Arimen Gauaren jatorriaren berri izatea, Euskal Herrian garai batean egiten zirenak ezagutzea eta gaur egun ospakizun hauek nola garatzen diren ikustea. *Itzalitako Kalabazen Bepiztea* (Altuna & Ozaita, 2018) lan etnografikoa oinarri hartuta, erritual hauen berreskurapen edo berrasmatzean hasiak diren herrietako esperientziak nolakoak diren ikusten da.

Deustun eta Alde Zaharrean hitzaldi bana eskaini zen:

2025-10-02: Deustuko udaltegian. Hizlaria: Josu Ozaita.

2025-10-03: La Bolsa udaltegian. Hizlaria: Jaime Altuna.

Hala ere, ekimenak ez zuen arrakastarik izan. Deustun entzule bakarra agertu zen eta Alde Zaharrean inor ez zen hurbildu. Hitzaldiek, beraz, ez zuten nahikorik interesik sortu. Beharbada zabalkundea ez zen ona izan edo ez genuen tokia eta orduarekin asmatu.

10.2.2 Liburu irakurketa eta idazlearekin topaketa

Deustu eta Alde Zaharreko ikastetxe guztiei *Gau Beltza* (Ozaita & Larratxe, 2020) izenburua duen liburua irakurtzeko eta liburu horren idazlea den Josu Ozaitarekin elkartzeko aukera eskaini zitzaion. Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako liburuak Gau Beltza jaiaren inguruko egungo haur talde baten bizipenak eta abenturak kontatzen ditu. Hauxe da liburuaren sinopsia:



Anari amorratua dago, etxean ez baita giro: Halloween ospatu nahiko luke, baina amak ezetz dio, jai arrotza dela eta ez duela balio onik sustatzen. Bere inguruan giroa txartzen denean, Anarik itsasoa du ihesbide; bertan lortzen du bakea, surfa lagun. Azkenaldian maiz itsasoratzen da. Ez du etsiko, ordea, eta eskolako lan baten ondorioz, aitonak kontatuko dio umetan haiek ere ospatzen zutela antzeko egun bat, eta kalabazak lapurtzen, apaintzen eta herriko hainbat txokotan uzten zituztela. Auzoak beldurtzeko bihurrikeria bat zen. Anarik irrikaz lotuko ditu hariak, eta lagunekin batera gaurkotuko dute arbasoen ohitura bat: Gau beltza.

Ekimen honen berri zuzena eman zitzaion ikastetxeei. Horretarako, bilera bat egin genuen, 2024ko apirilaren

17an, Bilboko Udaleko euskara teknikariarekin batera eta bertan egiteko asmoa genituen jardueren berri eman zen. Horrez gain, Deustu eta Alde Zaharreko ikastetxe guztiei proposamenaren informazioa zabaldu zitzaion 2024ko maiatzean. Hiru eskoek eman zuten izena: Mujika Eskola, Atxuri eta Deustuko Ikastola.

Josu Ozaita idazlearekin topaketa hauek egin ziren:

2025-10-22: Mujika Eskolan. 50 haur. LH 5-6.

2025-10-22: Atxuriko Eskolan. 46 haur. LH 4-5.

2025-10-23: Deustuko Ikastolan. 40 haur. LH 4.

Topaketak hiru helburu zituen:

- Gau Beltza ohitura ezagutu eta hari buruz informazio zehatza zabaltzea
- Ospakizun hau aisialdian praktikan jartzeko oinarria eskaintzea.
- Euskarazko literaturarekin aurrez aurreko harremana edukitzea.

Xede horiek bete ziren eta ekimena oso arrakastatsua izan zen. Idazlea bi geletan egon zen eskola bakoitzean. Argazki eta bideo laburrak lagun, Gau Beltzaren inguruko ikerketa azaldu zuen modu hurbilean. Ostera, ikasleekin tertulian aritu zen euren galdera eta esperientziak jasoaz. Honekin batera, idazketaren inguruan eta liburu egiteko prozesuari buruz hitz egin zuten. Ekimenak Gau Beltza gaia lantzeko aukera eman zuen ahozkoatasuna landuz eta oso giro ona sortu zen. Azpimarratu nahi dugu, topaketen bidez, Gau Beltza ospakizunei lotuta antolatu daitezkeen ekimenetan ikasleak parte aktiboa izatea sustatu zela.

10.2.3 Tailerrak familientzat

Urria amaieran antolatu genituen tailerrek arrakasta handia izan zuten. Guztira 100 lagunek parte hartu zuten eta jendetsuenak Deustukoak izan ziren. Hasiera batean, auzo bakoitzean tailer bana antolatu bazen ere, Deustuko izen-ematea ikusita eta inor kanpoan ez uzteko, bi tailer antolatzea erabaki genuen:

- 2025-10-22: Alde Zaharra. La Bolsa Udaltegia. 5 guraso eta 6 haur
- 2025-10-23: Deustu 1. Deustuko Udaltegia. 23 guraso eta 20 haur
- 2025-10-23: Deustu 2. Deustuko Udaltegia. 24 guraso eta 21 haur

Guraso eta haurrei zuzendutako tailer hauetan Gau Beltza ospatzeko oinarritzkoak diren elementurekin jolasteko aukera izateaz gain, festa egiten diren lekuetako bideoak ikusi genituen. Lau txoko antolatu genituen eta familia guztiek eduki zuten txoko guztietatik pasatzeko aukera:

- Kalabazen txokoa
- Ikus-entzunezkoen txokoa
- Makillaje eta margoketa txokoa

- Hausnarketa txokoa

Tailerra merienda batekin amaitu genuen, etorritako guztiei elkarrekin egoteko tarte lasai bat eskainiz.



Tailerraren kudeaketan Deustuko Txantxiku Elkarteko aisialdi taldeko hezitzaileen laguntza izan genuen. Haiek arduratu ziren makillajearen txokoaz eta oso lan txukuna egin zuen. Alderdi hau azpimarratu nahi dugu, eragile sozial honek Deustun aisialdiko jarduerak euskaraz antolatzen lan handia egiten duelako eta aurrera begira sortu daitekeen edozein ekintza antolaketan kolaboratu dezakeen elkarte delako.

Familiei eskainitako tailerren oso balorazio ona egin dugu. Antolatutako guztia primeran atera zen. Alde Zaharrean jende kopurua handia izan ez bazen ere, oso giro lasaia eta polita sortu zen. Deustuko tailerrak oso arrakastatsuak izan ziren. Esan dezakegu, beraz, ideia ona izan zela lortu genuelako familiak elkartzea euskararen aterkipean eta honek giro bat sortzen du.

Tailerrak babesgune gisa funtzionatu zuten⁴, hau da, euskararen erabilera eroso baterako baldintzak sortu eta garatu genituen eta oso ondo baloratzen dugu hori: euskararen aterkipean (euskaraz egitea espero den espazioa) baina aukera utziz bestelako hizkuntzetarako edo euskaraz gaizki egiteko ere (epaiketarik ez). Haur eta gurasoak elkarrekin ondo pasa zuten euskaraz. Familiek bazekiten euskaraz saiatu behar zutela, baina ez zegoen presiorik, giro eroso bat sortu zen. Haur eta gurasoak ondo pasatzen ikusi genituen, elkarrekin eta euskaraz. Aste barruko momentutxoa izan zen, bestelako giro batean, interesa sortzen duen gai baten bueltan (Gau Beltza) eta oso modu ludikoan. Babesgune txiki bat, euskararen burbuila bat⁵.

⁴ Babesgune kontzeptuaz ulertzen duguna BAT Soziolinguistika Aldizkarian argitaratutako artikulu honetan jasota dago: "Babesguneak euskal hiztun gazteak aktibatzeak aukera" (Hernández, Iñarra eta Altuna, 2021)

⁵ Tailerren argazki batzuk 13.5 eranskinean bildu ditugu.

10.3 HIRUGARREN FASEAREN BALORAZIO OROKORRA

Oro har, hirugarren fasean esku-hartze polit bat garatzea lortu dugula uste dugu. Haur eta guraso askok parte hartu dute eta iruditzen zaigu aurrerantzean Gau Beltza auzo hauetan antolatzeko (edo beste modu batean garatzeko) aletxoia utzi dugula.

Bestalde, agerian geratu da halako ekimenak auzoko eragileekin batera antolatzea komeni dela. Eskolek bultzada handia eman diote gure proposamenari eta Txantxiku aisialdi taldearen partehartzea oso interesgarria izan da. Beharbada, aurrera begira, auzoetako eragile gehiagorekin lotura egitea interesgarria izan daiteke, nahiz eta horretarako zailtasunak nabaritu ditugu. Jai batzordeekin eta guraso elkarteekin harremanetan egon gara, baina esku-hartzearen zabalpena egiteaz aparte ezin izan dute modu aktiboagoan parte hartu.

Antolaketari dagokionez, lana ondo egin dela uste dugu. Hirugarren fase honek lan handi samarra eskatzen zuen jarduera ezberdinak prestatu behar zirelako (hitzaldia, tailerra eta idazlea eskolan). Familien tailerrek eskatu du antolaketa lan handiena, helduak eta haurrak elkartzen duen jarduera bat eta denentzat erakargarria izango dena antolatzeak konplexua baita. Gainera, erakunde eta pertsona anitzekin koordinatu behar izan dugu ekimen hauek guztiak egiteko (udala, bi auzotako eskolak, kultur ekipamenduak eta Txantxiku aisialdi taldea) eta horrek ere konplexutasuna ekartzen du. Garaiz lanean hasi izanak asko lagundu du.

Beraz, antolaketaz arduratu garenok Deustun eta Alde Zaharrean garatu zen esku-hartzearen balorazio ona egin dugu eta parte hartu duten familiek ere mezu bera helarazi digute. Hala jasota geratu da tailerretako *Hausnarketa Txokoan* haur eta gurasoei pasatako galdetegiak emaitzetan. Bertan, Gau Beltza ospakizunen inguruan galdetzen zitzairen eta argi geratu da euskaratik eta euskaraz bideratu daitekeen jaia dela. Jarraian, emaitza horien laburpena egin dugu eta eranskinetan galdetegiak gidioak eta erantzunen zerrenda osoa irakur daitezke (13.6 eranskina)

1. ZER GUSTATZEN ZAIZUN GEHIEN GAU BELTZATIK?

Haurrek esan dutenaren arabera, Gau Beltzatik gehien gustatzen zaiena moxorrotzea eta gozokiak jatea da, dibertigarria iruditzen zaie etxez etxe gozokiak eskatzen joatea. Gurasoak, berriz, haurrak hain pozik ikusteaz pozten dira eta haur zein helduek aipatu dute Gau Beltza lagunekin, familiarekin, auzokideekin elkartzeko aukera paregabea dela eta sortzen den giroa, euskalduna, atsegin dutela.

2. ZER GUSTATZEN ZAIZUN GUTXIEN GAU BELTZATIK?

Haurrek iluntasuna eta sustoak aipatu dituzte gutxien gustatzen zaizkien elementu gisa, beldurra pasatzen baitute eta nahiz eta haur batzuek beldurrarekin jolastea gogoko duten badira beldurra sentitzea gogoko ez duten haurrak ere eta Gau Beltzaz horrenbeste gozatzen ez dutenak. Guraso batzuek ere haurrek pasatzen duten beldurra aipatu dute bai eta haiek duten kezka bat ere; guraso batzuk haurrak etxez etxe joateaz kezkatzen dira. Bestetik, beste guraso batzuek Halloweenekin duen lotura kritikatu dute. Kanpoko ohiturak kopiatzen ari garela uste dute, gure ohiturak galduz, eta Estatu Batuetan bezala, kontsumora bideratzen dela.

3. ZEIN EKINTZA GUSTATZEN ZAIGU GURE AUZOKO GAU BELTZAN BARNERATZEKO?

Hainbat eta hainbat ekintza aipatu dira: Hala nola, ipuin kontalaria, ginkana, kalabazak apaindu eta piztea, beldurraren pasabidea, beldurren erreketak, mozorro tailerra, aurpegi margoketa, herrian zehar etxez etxe janaria eskatzea, merienda herrikoia, gaztainak erretzea, txokolatada, kalejira eta dantzak.

4. 2025 URTEA. NOLAKO GAU BELTZA IRUDIKATZEN DUGU GURE AUZOAN? NOLA GUSTATUKO LITZAIGUKE OSPATZEA?

“Kaleak okupatzea” diote. Kaleak beldurrez apaintzea gustatuko litzaieke, musika eta kalejira beldurgarriekin. Guzti-guztiek parte hartzea nahiko lukete, auzokide, denda zein tabernek. Denak mozorrotuta agertzea eta festa giroa sortzea. Gaztainak erretzea, txokolatada bat egitea eta tailer ezberdinak antolatzea. Euskal musika eta euskal dantzak egotea garrantzitsua dela uste dute; dantzak San Pedro plazan egin daitezkeela aipatu dute. Eguneko zein gaueko egitaraua egotea proposatu da: egunean zehar haurrentzako jolasak, ipuin kontalaria eta kalejira eta gauean akelarrea. Badira Gau Beltza parrandara bideratu nahiko luketenak ere eta erromeria edo kontzertuak gehitzea proposatu dutenak. Auzo afari bat egitea ere ideia ona iruditzen zaie. Bestetik, ospakizuna hirigunean egin beharrean mendi aldera joatea ere proposatu da, Gau Beltza naturan eta iluntasunean ospatzeko.

5. ZERGATIK ANTOLATU GAU BELTZA GURE AUZOAN?

“Euskal erroetatik abiatuz auzo giroa eraikitzeke baliagarria izan daitekeelako”, “ondo pasatzeko” eta “herriko jendea ezagutzeko”.

6. ZURE USTEZ, NOLA EDO ZERTAN PARTE HARTU DEZAKETE GURASOEK GAU BELTZAREN ANTOLAKETAN?

Denean laguntzeko prest daude batzuk, hasieratik amaierara arte, guztia antolatzeko prest erakutsi dira gurasoetako batzuk. Beste batzuek desfile bat edo antzerki dibertigarri bat antolatzea lehen pausoa izan daitekeela aipatu dute edota txoko ezberdinak antolatzea (aurpegi margoketa, mozorro eta kalabaza tailerrak, txokolatea egitea eta banatzea...). Mozorrotzea, pertsonaien paperak antzeztea eta umeei istorioak kontatzea ere haiek bete ditzaketen lanak direla uste dute. Halaber, transmisioa elementu garrantzitsua dela aipatu dute eta horretan, guraso bezala, paper garrantzitsua jokatzen dutela; seme-alabei transmisioa egiteko ardura dutela, alegia. “Seme-alabekin kalera irtetea mozorrotuta eta lagunei esatea ideia denak batera irtetzeko, urtetik urtera ohitura hau handitzen joan dadin”. Azkenik, auzoko Gau Beltzaren inguruko ipuin bat idatzi eta zabaltzeko ideia ere mahaigaineratu da, transmisioa bideratzeko tresna gisa.

11 AZKEN GOGOETAK

Ruper Ordorikak “inork ez zidan esan euskaldun izatea zein nekeza den” abesten du eta, bai, Bilbon egin dugun ikerketa honetan neke eta etsipen zantzu batzuk topatu ditugu. “Bilbon gatxa” da entzun dugu elkarriketatuen ahotan eta, aita honen hitzek ondo laburbiltzen duten bezala, gurasoei zaila suertatzen zaie seme-alabak euskaraz haztea: «gustatuko litzaidake alabaren koadrilatik hasita, (...) koadrila guzti horiek euskaraz entzutea (...) gustatuko litzaidake *total* euskalduna izatea baino badakit hori nahiko gatxa izango dela».

Baina etsipenean erori gabe, ikerlan honetan aritu garenok kontu leunak ere jarri nahi genituzke. Jarraian, beraz, ikerketan topatu ditugun hizkuntzaren kudeaketari begirako elementu adierazgarriak zerrendatzeaz gain, jorra daitezkeen hainbat lan-ildo proposatuko ditugu⁶.

11.1 TESTUINGURU GAITZEKO INDARGUNEAK

Bilboko egoera soziolinguistikoak ez du euskaraz bizitzeko hautua egiten laguntzen. Ikerketan parte hartu dutenek nabarmendu dute euskararen espazioak irlatxoak direla eta euskal hiztunak sakabanatuak daudela. Ondorioz, gaitza da hizkuntza-komunitate trinkoa osatzen. Hala ere, oztopoak oztopo, lagungarriak diren hainbat elementu identifikatu dira:

- Eskolak dira euskararekin gehien identifikatzen diren espazio sozialak.
⇒ Horien lana aitortu eta orain arte egin duten horri eusteko eta hobetzeko lanean jarraitu beharko da.
- Bilbo hiriaren baitan testuinguru geografiko lagungarriak eta oztopatzaileak hautematen dira. Auzo batzuek irudi nabarmen euskaldunagoa dute, eta Deustu eta Alde Zaharra testuinguru soziolinguistiko lagungarri gisa hautematen dira.
⇒ Lagungarria den iruditeria indartu beharko litzateke eta baldintza sozioekonomikoei adi egon, iruditeria hori alda ez dadin.
- Bilbon bertan, beste inora begiratu gabe, ereduak eta erreferenteak daude. Alde Zaharrean eta Deustun euskararen aldeko diskurtso eta praktikak dituzten hiztunak eta familiak daude. Hiztun horiek zalantza handiak dituzte, baita emozio kontrajarriak ere, eta tarteka etsipen sentsazioa gailentzen da. Baina aktiboak diren hiztunak eta familiak dira eta seme-alabak euskaraz sozializatzen jarraitzeko prest daude.
⇒ Garrantzitsua da hiztun eta familia hauei arreta berezia eta espezifikoa eskaintzea.
- "Artxipelagoa" osatzeko baliabideak jartzen hasi beharko genuke. "Euskararen irlatxoak" isolatuak egon ordez, inguruko uharteekin etengabeko harremana sustatu beharko litzateke, hartara batasuna eta osotasuna lortzeko.
⇒ Saretzearen beharra: oso sakabanatuta dagoen hiztun komunitatea trinkotzen duen espazioak eraikitzea beharrezkoa da.

11.2 EUSKARAREN ALDEKO ERALDAKETA PROZESUAK

Gurasotasuna hizkuntza-mudarako aldi garrantzitsu gisa ageri zaigu. Hala ere, eraldaketa prozesuan oztopo asko identifikatzen dira, eta askotan ez da izaten prozesu iraunkorra: haurrak txikiak direnean familia-hizkuntza euskarara aldatzeko saiakera handiagoa agertzen da, baina seme-alabak handitu ahala gatzelania gailentzen da.

- Eraldaketa prozesu hauek eman daitezen eta iraun dezaten, laguntzeko estrategiak aktibatu beharko lirateke. Nola?
⇒ Eraldaketa prozesuen pizgarriak diren motibazioak kontuan hartuz eta indartuz: lagunei, familiari edo bikotekide euskaldunei lotutako motibazio integratzaileak, lanari lotutako motibazio instrumentalak...

⁶ Gezien bidez adierazi dira.

- ⇒ Euskararen sustapena helburu duten programen bidez: *Euskaraldia, Berbalagun...*
- ⇒ Euskaltegien bidez: gurasoei moldatutako ikasketa planak antolatuz, adibidez, seme-alabak eskolaz kanpoko jardueretan dauden bitartean, euskarazko eskolak eskainiz.
- ⇒ Aldaketa posiblea dela erakustea ere interesgarria da, baita, modu batean edo bestean, hiztun horien garrantzia aitortzea eta jokabide horien egokitasunaz eta potentzialtasunaz hausnartzea ere.

11.3 HAURREN HIZKUNTZA-IBILBIDEAK

Haurren ikasketa prozesua gorabeheratsua da. Euskararen praktikari begira, lagungarria den espazio nagusia eskola da, eta aztertu ditugun familiek ere ahalegin handia egiten dute haur hauek euskara ikas eta erabil dezaten. Hortik kanpo zailagoa da eta familiek nahiko onartuta dute poliki-poliki, adinean aurrera egin ahala, eremu informaleko hizkuntza nagusia gaztelania bihurtuko dela.

Prozesu horretan, testuinguruak eskaintzen (ez) dituen baldintza soziolinguistikoaz gain, beste elementu batzuek ere garrantzia dutela jabetu gara. Baditugu, beraz, eremu lokaletik eragiteko eta eraldatzeko elementu zehatz batzuk:

- Adinkideen harremanak: lagun eta ezagunen sarea, eta beraien arteko aktibitateak, zabaldu ahala euskararen presentzia gutxitzeko joera dago.
 - ⇒ Haur eta nerabeek adinkideekin egin ditzaketen kalitatezko jarduerak euskaraz eskaini (ludotekak, gazte-lokalak, kirol jarduerak...)
- Gaitasun falta: adinean gora egin ahala hizkuntza-erregistro desberdinetan aritzeko beharra handitzen da, eta haur asko ez dira gai sentitzen euskaraz aritzeko.
 - ⇒ Eskolen euskalduntze prozesua indartu eta eremu ez-formaleko jardueretan hizkuntza gaitasunari eta erabilerari begirako plangintza zehatzak diseinatu.
- Hizkuntzaren prestigioa: haurrek hautematen dute bizi diren testuinguru sozialean prestigioa duen hizkuntza hegemonikoa gaztelania dela.
 - ⇒ Euskararen prestigioa soziala handitu, besteak beste, eremu ez-formala eta helduen mundua euskalduntzeko plangintzak areagotuz, gazte-kultura euskaraz sortzeko baliabideak eskainiz eta haur eta nerabeen erreferente euskaldunak bistaratuz.

11.4 FAMILIEN EUSKARAREN ALDEKO PRAKTIKAK ETA ESTRATEGIAK EREDU

“Familia mailako Hizkuntza Politika (FHP)” lan ildoari jarraituz, ikerlan honetan familia irudikatu dugu hizkuntza-politikarako esparru gisa. Izan ere, gure egungo gizarte antolaketan familiaren esku geratzen dira, besteak beste, hizkuntza-sozializazioari atxikitako betebeharrak nagusiak (Hernández, 2015): batetik, hizkuntza irakastea eta bestetik, hizkuntzaren bitartez gauzatu beharreko sozializazioa. Analisisian ikusi dugun bezala, hizkuntza-sozializazio prozesuan familia bakoitzak bere hizkuntza-politika garatzen du eta honek hizkuntza-ideologia, -praktika eta -kudeaketa kontuan hartzen ditu.

Familiek erabakitzen dituzten hizkuntza-politikak zeharo baldintzatzen ditu testuinguruak. Beraz, FHP oso dinamikoa eta konplexua da. Hala ere, seme-alabek

zein hizkuntza ikasi eta, hein batean, erabiliko duten erabakitzeko gaitasuna, ahalmena eta agentzia dute familiek, baita helburu hori lortzeko estrategiak abiatzeko ere. Hauek dira ikerketan jaso ditugun estrategia nagusiak:

- Euskaraz egitea hurrekin
- Euskaraz egingo duen eskola batean matrikulatzea
- Eredu ez-formalean eta informalean euskaraz bizitzeko aukera ematea

Gurasoekin egindako beste ikerketetan ikusi den bezala (Hernández et al., 2022), familiek aktibatzen dituzten plangintzak eremu pribatutzat hartzen badira ere, eremu publikoan eragiten dute eta, alderantziz, eremu publikoko politikek familietan eragina dute. Beraz, makro eta mikro mailako hizkuntza-politikak lerrokatzea behar-beharrezkoa dugu (García-Ruiz:2023):

- ⇒ Hizkuntza-politiken diseinuan eta inplementazioan gurasoak gainerako agenteekin elkarlanean eta elkarerraginean aritzeko aukerak eskaini.
- ⇒ Eredu informalerako eta eremu ez-formalerako proposamenak landu (ondorengo bi puntuetan horri begirako ildo batzuk aipatu ditugu).

11.5 EREMU INFORMALEKO FAMILIA SAREAK

Hizkuntza-praktikei begira, familien artean osatzen diren taldeak eta aisialdi plan informalek garrantzitsuak direla ondorioztatu dugu. Ikerketan jaso dugunaren arabera, etxeko dinamikatik at, beste familia batzuekin batera sare zabalago batean txertatuta egoteak hizkuntza-planifikazio eraginkorragoa sortzen lagundu dezake: euskaraz (ere) funtzionatu dezaketen ekosistemak osatzen dituzte.

- Hiztun eta familia aktibo hauek giltzarriak dira, norbere familietan ez ezik inguruan ere eragiten dutelako: hizkuntza-dinamikak aldatzeko gaitasuna dute. Hiztun horiek lortzen dute beste herritarrek beraiekin euskaraz hitz egitea, eta horrela inguruko hizkuntza-ohituretan nabarmen eragiten dute.
 - ⇒ Hizkuntza praktika hauek herrian duten eragina ikusarazteko ekimenak pentsatu.
 - ⇒ Eredu informalean euskaraz aritzeko familia sareak sortzeko baliabideak sortu.

11.6 EREMU EZ-FORMALEKO PLANGINTZA ETA ESKU-HARTZEAK

Beste ikerlanetan ikusi den moduan, eremu ez-formalak hizkuntza-mudak ahalbidetzen edo saihesten eduki dezakeen papera garrantzitsua da (Eusko Jaurlaritza, 2018; Altuna, 2023). Espazio oso garrantzitsua izan daiteke haurtzaro eta nerabezaroan, eskola eremuan zailak izan daitezkeen lanketa batzuk bertan egiteko. Euskararen biziberritze prozesuan eskolak hartu duen zentralitateak familiaren ardura desitxuratu egin du (Hernández et al., 2022), eta Bilbon ere ardura lagatze horren zantzuak topatu ditugu. Baina, era berean, nahiko orokortuta dago "hezkuntzak bakarrik ezin du" ideia eta, era batera edo bestera, familia gehienek uste dute eskola ez dela seme-alabengan euskara sustatzeko eremu bakarra. Horri jarraituz, Bilbon egin dugun ikerketan parte hartu duten guraso guztiek aisiaren garrantzia azpimarratu dute. Izan ere, euskara ondo pasatzearekin lotzeak berebiziko garrantzia du. Hori dela eta, batetik, euskaraz diren eskolaz kanpoko jarduerak bilatzen eta eskatzen dituzte, eta, bestetik, aisialdian mota guztietako jardueren euskarazko eskaintza handitzeko beharra aldarrikatzen dute.

Eremu ez-formalaren hizkuntza-plangintzari begira, hiru gako hauek kontuan har daitezkeela uste dugu:

- ⇒ Hirugarren espazioa: hizkuntza kontuetan, eremu ez-formala oso baliagarria da haur eta nerabeek kontrajarritzat hartzen dituzten eskolaren (formaltasun) eta kalearen (informaltasun) arteko zubia egiteko (Altuna, 2023).
- ⇒ Babesguneak: babesgunea eraikitzeak esan nahi du gune horretan euskarak tokiak izan dezan baldintzak sortzen eta garatzen direla. Hitzunek euskara eroso erabiltzea ahalbidetzen du babesguneak, eta hori lagungarria da hizkuntza-muda gertatu ahal izateko edo, gutxienez, erabateko muda gerta ez dadin laguntzeko (Hernández et al., 2021).
- ⇒ Inklusioa: familien egoera sozioekonomikoari arreta jarri behar zaio eta haur guztiek parte hartzeko aukera bermatu behar da (antolatzaileei lagunduz, familiak laguntzeko sistemak aktibatuz...)

Azkenik, Alde Zaharrean eta Deustuko proiektuaren 3. fasean garatu dugun esku-hartzetik ondorioztatu dugunaren arabera, aurreko hiru gako horiez gain, familiei zuzendutako **esku-hartze espezifikoak antolatze**ko alderdi hauek garrantzitsuak direla uste dugu:

- ⇒ Auzoko eragileekin batera garatzea komeni da: eskola, guraso elkarteak, jai batzordeak, bestelako elkarteak...
- ⇒ Praktika zehatzetan oinarritu behar dira (garatu dugun proiektuan praktika zehatza Gau Beltza izan da). Hau da, parte hartuko dutenek jarduera bat elkarrekin garatzeko interesa sortzea komeni da eta elkarrekintza horretatik sortuko dira gauzak egiteko moduak, harremanak eta baita hizkuntza-praktikak ere.
- ⇒ Harreman-sareak sortzeko baliabideak jarri: gurasoak antolaketan laguntzeko aukera, haien kabuz ekimen berriak antolatze baliabideak...

11.7 IKERTZEN JARRAITZEKO BEHARRA

Alde Zaharrean eta Deustun egindako ikerketa honek hainbat elementu adierazgarri eta lan-ildo utzi dizkigu. Ikerketa eta esku-hartzea uztartzeak oso emaitza interesgarriak utzi dizkigu, eta Bilboko familiaren esparruan euskara biziberritzen jarraitzeko gako batzuk identifikatu ditugu. Baina ikertzen jarraitzea beharrezkoa da, oraindik alderdi asko esploratzeko baitaude. Besteak beste, familia mailako hizkuntza politikan sakontzeko ikerketa berriak egin beharko lirateke hiriko auzo gehiagotan eta askotariko familia-ereduekin: familia gehiagorekin, profil anitzeko hiztun eta familiekin (jatorria, klase soziala, familia-motak edota bestelako gizarte kategoriak kontuan hartuta), euskaratik urrunago sentitzen diren edo motibazio handirik ez duten familiekin...

Lehen urratsak eman ditugu, baina bidea zabalik geratzen da ibilbide berrietarako. Izan ere, bidea egitea nekeza izan arren, gustuko aldapan nekerik ez!

12 ERREFERENTZIAK

- Altuna, Olatz (2018). "Hizkuntzen erabileraren kale neurketa. Euskal Herria, 2016. Emaita nagusien txostena". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 106: 177-196.
- Altuna, Jaime (2023). "Hizkuntzaren funanbulistak. Hizkuntza-sozializazioa kirol eremuan adin eta generoan ardaztuta". [Doktorego Tesia. UPV/EHU].
- Blommaert, Jan (2010). *The Sociolinguistics of Globalization*. University Press.
- García-Ruíz, Maite (2023). Testuinguru erdalduneko D ereduko ikastola bateko gurasoen familia hizkuntza-politika eleaniztunak. [Doktorego Tesia. UPV/EHU].
- Eusko Jaurlaritza (2018). *EAEko ikasleen euskararen erabilera eskola-giroan (2011-2015) Arrue proiektua*. Eusko Jaurlaritza.
- Hernández, Jone Miren (2015). "Familia hizkuntz politika: transmisioa ulertzeko eredu berri baten bila". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 94: 47-62.
- Hernandez, Jone; Iñarra, Maialen eta Altuna, Jaime (2021) "Babesguneak: euskal hiztun gazteak aktibatzeak aukera" in *BAT soziolinguistika aldizkaria*, 120:47-72.
- Hernández, Jone Miren; Ozaita, Josu eta Altuna, Olatz (2022) Euskara Legutioko moldera. Hiztunen arteko harremanak saretzen eta aktibatzen. *Soziolinguistika Klusterra*.
- Joly, Lionel eta Uranga, Belen (2010). "Hizkuntza-ideologia eta hizkuntza-jarrerak". In Arkaitz Zarraga (koord.). *Soziolinguistika Eskuliburua* (185-230). Eusko Jaurlaritza eta Soziolinguistika Klusterra.
- Martínez de Luna, Iñaki (2022) "Zer erakusten du adinak kale erabileran?". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 125: 11-135.
- Sorolla, Natxo; Altuna, Olatz eta Larrea, Imanol (2019). Euskararen erabilerarekin lotura duten faktoreak. *Soziolinguistika Klusterra*.
- Soziolinguistika Klusterra (2021). *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Bilbo, 2021*. Soziolinguistika Klusterra.
- Ortega, Ane; Amorrortu, Estibaliz; Goirigolzarri, Jone eta Urla, Jacqueline (2016). *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Deustuko Unibertsitatea.
- Ozaita, Josu eta Larratxe, Joseba (2018). *Gau Beltza*. Txalaparta.
- Ozaita, Josu eta Altuna, Jaime (2018) Itzalitako kalabazen berpiztea. Arimen Gau, Halloween eta Gau Beltzaren haur-ospakizunen ikerketa etnografikoa. Eibarko Udala eta Udako Euskal Unibertsitatea.
- Pujolar, Joan eta Isaac González (2013). "Linguistic 'Mudes' and the De-ethnicization of Language Choice in Catalonia". *International Journal of Bilingual Education and Bilingualism*, 16(2), 138-152.

Pujolar, Joan, González, Isaac eta Martínez, Roger (2010b). "Les mudes lingüístiques dels joves catalans". *Llengua i ús. Revista Técnica de Política Lingüística*, 48, 65-75.

13 ERANSKINAK

13.1 LEHEN FASEA: ELKARRIZKETEN GIDOIA

Elkarrizketa	Elkarrizketatuaren datuak
Tokia:	Izen-abizenak:
Eguna:	
Denbora:	
Elkarrizketa nork egin du:	Adina:

1. DATU OROKORRAK

Non bizi zara? Beti ingurune berean bizi izan zara?

Zein da zure lanbidea? Non lan egiten duzu?

Zer jardueretan parte hartzen duzu? Aisialdia (kirola, kultura...)? Gizarte gaiak (herri mugimenduak...)?

Seme-alabarik dituzu? Zer adinekoak?

2. HIZKUNTZAREN INGURUKO KOKAPENA

(galdera guztietan egoera orokorrari buruz eta Bilboko egoerari buruz galdetu)

Nola ikusten duzu hizkuntzaren egoera oro har? Eta Bilbon?

Zer ahulezia ikusten dituzu? Eta indarguneak?

Euskara biziberritu behar dela uste duzu? Zergatik?

Euskararen biziberritze prozesuari buruzko balorazioa?

Zein da egoera hobetzeko egin beharrekoa? Zein dira lehentasunak?

3. BILBOKO GUNE ZEHATZAK

(Kokatu elkarrizketatuaren testuinguruan)

Deskribatu gune horretako hizkuntza-praktika orokorrak

Egunerokoan gurasoak non mugitzen dira? Non elkartzen dira?

Zer aukera daude testuinguru horretan hurrei begira?

- Eremu formalean: eskola motak, hizkuntza akademiak...
- Eremu ez-formalean: musika, kirola, dantza, udalekuak...
- Eremu informalean: parkeak, plazak, kaleak...

Nolakoak dira hizkuntza-praktikak eremu horietako bakoitzean?

Identifikatuko zenuke espazioren bat edo batzuk euskararekin?

4. IKERKETARI BEGIRA*

Zuri zer interesatuko litzaizuke jakitea gurasoen hizkuntza-praktikak, bizipenak eta ideologiei lotuta?

Eta zer gustatuko litzaizuke aktibatzea?

Identifikatuko zenuke guraso -gune/-talde/-ekimenen bat interesa eduki dezakeena honelako ikerketan parte hartzeko?

Identifikatuko zenuke guneren bat interesgarria izan daitekeena aurrera begirako interbentzioa(k) diseinatzeko?

Aurreko puntuan aipatu duzun hurrei zuzendutako jardueretako (eremu formal, ez-formal eta informalean) bat interesgarria izan daitekeela uste al duzu?

Galdetu Deustu, Zazpi Kale eta Otxarkoagan aurre-identifikatu ditugun gunei buruz.

* Puntu honetan gogorarazi beharko genuke zein diren bilatzen ditugun gurasoen profilaren eta gunearen ezaugarriak:

Bilbon euskararekiko gutxiengo motibazioa duten gurasoak topa ditzakegun gunek zein izan daitezkeen identifikatzea. Lehen baldintza hori beteta, honako ezaugarriren bat (edo gehiago) betetzen dituzten gurasoak izan daitezke:

1. Hurrekin euskaraz hitz egiten ahalegintzen diren gurasoak
2. Euskarazko gaitasun handiegirik eduki ez arren seme-alabek euskara erabil dezaten saiatzen diren gurasoak

3. Hizkuntza-muda kontzientea egin duten gurasoak
4. Euskara ikasten ari diren gurasoak
5. Eskolako gune batean parte hartzen duten gurasoak
7. Euskararen aldeko edo auzoko herri mugimendu batean parte hartzen duten gurasoak

Gune geografikoaz haratago (barrutia, auzoa...) espazio sozial bat bilatzen ari gara: eskola baten inguruan mugitzen diren gurasoak, aisialdiko ekimen batean elkartzen direnak, kultur jarduera zehatzetara joaten direnak, elkarteren bateko kideak direnak...

13.2 LEHEN FASEA: BEHAKETEN GIDOIA

Behaketaren datuak	Behaketarako datuak	laguntzailearen
Gunea:	Izen-abizenak:	
Eguna:		
Denbora:		
Behaketa nork egin du:	Adina:	

1.- Behaketarako laguntzailearen deskribapen orokorra

2.- Gunearen deskribapen orokorra

- Nolakoa da tokia?
- Espazioaren banaketa nolakoa da? Merkataritza? Ostalaritza? Parkeak? Plazak? Kaleak? Errepideak? Oinezkoentzat tokiak?
- Nor ibiltzen da espazio horietan? Adina? Generoa? Jatorria? Turistak? Aldagai sozio-ekonomikoa?
- Zer baliabide eskaintzen ditu tokiak guraso eta haurrentzat? Elkartzeko kalean? Elkartzeko beste guneak? Erakargarriak al dira?
- Zertan aritzen dira hor gurasoak? Eta haurrak? Zer adinekoak? Generoa (amak/aitak, aiton/amonak, haur neskak/mutilak...)
- Espazio eskusiboak dira (haurrentzat bakarrik) edo konpartituak (gazteekin, helduekin...)?
- Espazioen erabilera berdina da astean zehar edo asteburuan?
(*). Arreta berezia jarri eskola inguruetako espazioei

3.- Hizkuntz paisaia: ibilbidean zehar saiaturako gara bidean topatzen ditugun hizkuntz elementuei erreparatu

- Ze hizkuntza daude auzoan? Zeintzuk erabiltzen dituzte? (adina, generoa, jatorria...)
- Auzoko hizkuntza banaketa: ba al daude hizkuntzaren araberrako espazioen banaketa?
- Euskararekin identifikatzen diren espazioak, zeintzuk dira? Non daude? Zeintzuk egoten dira bertan?
- Kalean zehar goazela entzuten diren elkarrizketak: gaztelera, euskaraz, zeintzuk hizkuntz batean, zeintzuk bestean...
- Paisaiari erreparatu: kartelak, errotuluak...

4.- Gurasoen erreallitatearen lehen hurbilketa: ibilbidean zehar saiaturako gara jasotzen auzoko gurasoen profil ezberdinen inguruko informazioa.

- Ze guraso mota ikusten ditugu? Adina, genero, estilo, klase soziala...
- Ikastetxeen artean ezberdintasunik nabari da? Parke edo plazen artean?
- Gurasoen hizkuntza-praktikak zertxobait behatu: hizkuntzak, hitz egiteko moduak, ahotsak...

- Haurren errealitatearen deskribapen txiki bat ere egin, batez ere, hizkuntza-praktikei erreparatuz.

5.- Gurasoen elkarguneak zein izan daitezkeen identifikatzen hasi: ibilbidean zehar bigarren fasean parte hartu dezaketen gurasoen elkargune posibleak.

13.3 BIGARREN FASEA: ELKARRIZKETEN GIDOIA

Elkarrizketa	Elkarrizketatuen datuak
Tokia:	Profila: 1 ☐ 2 ☐ 3 ☐
Eguna:	
Denbora:	Izen-abizenak-adina-seme alabak (kopurua+adina)
Elkarrizketa nork egin du:	

2. DATU OROKORRAK

Norberaren aurkezpen laburra egiteko eskatuko diegu: non bizi diren, beti ingurune berean bizi izan ote diren, lanbideak, zer jardueretan parte hartzen duten, aisialdian (kirola, kultura...), gizarte gaietan (herri mugimenduak...)

3. HIZKUNTZAREN INGURUKO KOKAPENA

Atal honen galderak lehen fasean ere jorratu ditugu, baina labur bada ere, oraingoan berriz informazio orokorra eta guraso hauen bizipen eta hausnarketak jasotzea interesatzen zaigu.

- Nola ikusten duzu hizkuntzaren egoera oro har? eta Bilbon? eta auzoan?
- Zer ahulezia ikusten dituzu? eta indarguneak?
- Euskararekiko kontzientzia eta motibazioak (emozioak, ideologiak...)
- Euskara biziberritu behar dela uste duzu? Zergatik?
- Euskararen biziberritze prozesuari buruzko balorazioa?
- Zein da egoera hobetzeko egin beharrekoa? Zein dira lehentasunak?

4. FAMILIEN eta HAURREN HIZKUNTZA PRAKTIKAK

1.1. Familia hizkuntza -planifikazioa eta -politika

Puntu honetan elkarrizketan parte hartzen duten familien barruko hizkuntza-planifikazioa nolakoa den jasotzea interesatzen zaigun. Puntu hauei buruz galdetu beharko genieke:

- Familiako kideen hizkuntza gaitasuna
- Egunerokotasunean familia barruko hizkuntza-praktikak
- Familiako kideen hizkuntza ohiturak/joerak
- Osatzen duten familian hizkuntzarekiko hartu dituzten erabakiak
- Erabaki horien zergatiak
- Planifikazio horren emaitzak / balorazioa
- Familiako kide helduen hizkuntza-mudak egon ote diren / arrazoiak / deskribapena

- Hizkuntza dinamiketan aldaketak egiteko faktoreak edo uneak (Haurdunaldia, eskolaren aukeraketa, kuadrilla aldaketa...)

1.2. Familien lagun taldeen osaketa eta dinamikak

Hemen interesatzen zaigu jakitea zer dinamika linguistikoak sortzen dira seme-alabak dituzten beste familiekin egiten dituzten planetan: beste familiekin noiz eta nola elkartzen diren, sortzen diren kuadrillak eta, batez ere, talde hauen hizkuntza-dinamikak:

- Egunerokotasunean beste familiekin elkartzeko uneak eta guneak
- Familien lagun taldeen sortzeko prozesuak eta dinamikak
- Talde horien hizkuntza-praktikak: haurren artea, helduen artean, haur-helduak...
- Talde horietan hizkuntzarekiko hartu dituzten erabakiak / zergatiak
- Euskaraz egiteko erabiltzen ote dituzten estrategiak
- Hartutako erabaki horien emaitzak / balorazioa
- Hizkuntza erabaki horiek hartzeko sortzen diren zalantzak (euskaraz ez dakitenekiko, gaitasun txikia dutenekiko...)

1.3. Haurren hizkuntza mudak

Puntu honetan Bilbon haurrak euskaraz bizitzeko dituzten aukeren eta oztopoen inguruko informazioa eta hausnarketak jasoko ditugu.

- Egunerokotasunean hurrek euskaraz egiteko dituzten aukerak eta oztopoak (non, noiz, norekin...)
- Gurasoek erabiltzen dituzten estrategiak euskaraz ahalik eta gehien egiteko (erabiltzen badituzte)
- Mudak edo aldaketak gertatzen badira, noiz, nola, zergatik gertatzen diren
- Muden nolakotasuna: erabatekoa, kode-aldaketa...

3.4. Eremu ez-formala eta informala

Hemen, lehen fasean bezala, gune bakoitzean zer aukera dituzten eta eremu bakoitzean dauden hizkuntza-dinamikak jasotzea interesatzen zaigu:

- Egunerokoan gurasoak non mugitzen dira? Non elkartzen dira?
- Zer aukera daude auzoan eta Bilbon hurrei begira?
 - Eremu ez-formalean: musika, kirola, dantza, udalekuak...
 - Eremu informalean: parkeak, plazak, kaleak...
- Nolakoak dira hizkuntza-praktikak eremu horietako bakoitzean?
- Identifikatuko zenuke espazioren bat edo batzuk euskararekin?

5. IKERKETAREN HIRUGARREN FASEARI BEGIRA

Hirugarren faseari begirako ideien jasoketa litzateke azken puntu hau:

- Zuei zer interesatuko litzaizuke aktibatzea gurasoen eta familien hizkuntza-praktikei begira?
- Identifikatuko zenukete guraso -gune/-talde/-ekimenen bat interesa eduki dezakeena horrelako eskuhartze dinamikan parte hartzeko?

- Identifikatuko zenuke guneren bat interesgarria izan daitekeena aurrera begirako interbentzioa(k) diseinatzeko?
- Aurreko puntuan aipatu duzun haurrei zuzendutako jardueretako (eremu formal, ez-formal eta informalean) bat interesgarria izan daitekeela uste al duzu?

13.4 HIRUGARREN FASEA: TAILERRAREN DISEINUA



Gela atontzeko tailerra hasi baino orubete lehenago elkartuko gara.

Sarrera

- Partaide guztiak batera
- 5 minutuko azalpen orokorra emango zaie tailerraren nondik norakoak kontatuz

Tailerrak

- Hiru taldetan
- 15 minutu tailer bakoitzean

KALABAZA TAILERRA

- 3-4 kalabaza handi eta beste 3-4 txiki hustu ahal izango dira denon artean
- Beste 3 kalabaza prozesua erakusteko

BIDEOAK

- Gau beltza gaur egun nola ospatzen den erakusteko
- Bi herritako bideoak (Baliarrain eta Erreterria) eta Topaguneko bideoa

MAKILLAJE TAILERRA

- Gau Beltzarako egokiak izan daitezkeen aurpegi margoketarako diseinu batzuk eskaini
- Paretan irudi batzuk eredu gisa
- Gau Beltzarekin lotutako marrazki batzuk margotzeko ere eskaini
- Arduradunak: Txantxikuko begiraleak

Hausnarketa txokoa

- Partaide guztiak berriz elkartuko ditugu
- Horman paper handi bat jarrita egongo da eta post-itak banatuko ditugu
- Galdera hauek luzatuko dizkiegu:
 1. ZERGATIK ANTOLATU GAU BELTZA GURE AUZOAN?
 2. ZER GUSTATZEN ZAIGU GEHIEN (+) GAU BELTZETIK, ETA ZER GUTXIEN (-) ?
 3. ZEIN EKINTZA GUSTATZEN ZAIGU GURE AUZOKO GAU BELTZEAN BARNERATZEKO?
 4. NOLA ANTOLATU GAU BELTZA GURE AUZOAN? Antolaketa ideia... (taldeak, pertsonak, espazioak). "2025 URTEA: NOLAKO GAU BELTZA IRUDIKATZEN DUGU DATORREN URTEAN, EDO, NOLAKOA IZATEA GUSTATUKO LITZAIGUKE? ZEIN EGITARAUUA? ZEIN BALORAZIO HURRENGO EGUNEAN?".

Merienda

- Partaideei zerbait jateko eta edateko eskainiko diegu

Amaiera

- Partaide guztiei eskerrak eman eta gero Xanguli Manguli erreztatzen amaituko da tailerra

13.5 HIRUGARREN FASEA: ARGAZKIAK

2025-10-22: Alde Zaharra. La Bolsa Udaltegia.



2025-10-22: Alde Zaharra. La Bolsa Udaltegian.



The image shows a brown corkboard with several colorful sticky notes and cards. The notes contain text in Basque and Spanish, some with drawings of faces, a pumpkin, and mathematical symbols like a plus and minus sign. The notes are arranged in a somewhat organized manner, with some overlapping.

Key elements visible on the board include:

- A large white card at the top left with the text: "ZER GUSTATZEN ZAIZUN GEHIEN GAU BELTZATIK" and a plus sign (+) in a circle.
- A large white card at the top right with the text: "ZER GUSTATZEN ZAIZUN GUTXIEN GAU BELTZATIK" and a minus sign (-) in a circle.
- A drawing of a jack-o'-lantern (pumpkin) on the right side.
- Several smaller, colorful sticky notes (yellow, orange, blue, green, purple) with various text and drawings, including faces, a heart, and a pumpkin.
- A small blue heart-shaped sticker at the bottom right.



2025-10-23: Deustu. Deustuko Udaltegian.













13.6 HIRUGARREN FASEA: GALDETEGIEN EMAITZEN JASOKETA

ALDE ZAHARRA

ZER GUSTATZEN ZAIZU GEHIEN GAU BELTZATIK?

- Ohitura eta kultura ezberdinen arteko parekotasunak.
- Lagunekin egon eta txutxeak eskatu.
- Mozorrotzea.
- Auzokideak kalean elkartzea.

ZER GUSTATZEN ZAIZUN GUTXIEN GAU BELTZATIK.

- Heriotza beldurrarekin lotzea.
- Dena gustatzen zait!
- Beldurrezko istorioak
- Sustoak
- Saria ziria egitea eta gaztainak erretzea
- Halloween-ekin egiten den lotura (Kontsumismoarekin lotura)

ZEIN EKINTZA GUSTATZEN ZAIGU GURE AUZOKO GAU BELTZAN BARNERATZEKO?

- Ipuin kontalaria
- Gaztainak erre
- Ikasi gaztainak erretzen
- Yinkana bat, gauez sustoekin bidean.
- "Puxka bila", afari-merendola herrikoia egiteko.

2025 URTEA. NOLAKO GAU BELTZA IRUDIKATZEN DUGU GURE AUZOAN? NOLA
GUSTATUKO LITZAIGUKE OSPATZEA?

- Suziriak, gaztainak eta tinbre guztietan txirrina jo txutxeak emateko.

- Auzokide + denda + tabernek parte hartzea. Kaleak okupatzen. Gaztain erre, musika eta kalejira beldurgarriekin.

ZERGATIK ANTOLATU GAU BELTZA GURE AUZOAN?

- Dibertigarria izango liteke
- Tradizioa berreskuratu
- Dibertigarria da
- Poztasuna eta mozorrotzen garelako
- Mozorrotzeko
- Euskal erroetatik abiatuz auzo-giroa eraikitzeko baliogarria izan daitekeelako

DEUSTU

ZERGATIK ANTOLATU GAU BELTZA GURE AUZOAN?

- Oso dibertigarria delako (x2)
- Ondo pasatzeko
- Ondo pasatzeko eta herriko jendea ezagutzeko
- Ondo pasatzeko, txutxeak edukitzeko, dena...
- Ondo pasa
- Dibertitzeko
- ?

ZER GUSTATZEN ZAIZUN GEHIEN GAU BELTZATIK.

- Atea jo eta gozokiak hartu!
- Txutxeak eta mozorroak (x2)
- Mozorroak (x2)
- Mozorrotzea (x2)
- Aurpegia margotzea gustatu zait
- Txutxeak eta truko trato
- Ondo pasatzea
- Dena
- Sorgina
- ?

ZER GUSTATZEN ZAIZUN GUTXIEN GAU BELTZATIK.

- Iluntasuna eta beldurra
- Iluntasuna
- Mozorroak
- Sustoak
- Ezer (x2)

- Kalabaza

ZEIN EKINTZA GUSTATZEN ZAIGU GURE AUZOKO GAU BELTZAN BARNERATZEKO?

- Herrietatik janaria eskatu

2025 URTEA. NOLAKO GAU BELTZA IRUDIKATZEN DUGU GURE AUZOAN? NOLA GUSTATUKO LITZAIGUKE OSPATZEA?

- Mozorro batekin eta lagunekin
- Txokolatada
- Txokolatada egotea beldurrezko musikarekin
- Urte guztien berdin

DEUSTU GURASOAK

ZER GUSTATZEN ZAIZU GEHIEN (+) GAU BELTZATIK?

- Umean pozik ikustea truko-trato egiten
- Umeak izan dodazan arte ez dut ospatu, orain gustokoan dodana euren ilusioa da
- Mozorroak. Jendeak prestatzen du oso ondo, oso beldurgarriak.
- Mozorrotzea (ume baten erantzuna)
- "Beldurrak" kentzeko era amankomun batean mozorrotuta ibiltzea.
- Deustu mailan zerbait polita antolatzen dala.
- Mozorroak
- Bildurra jolasteko erabiltzea
- Naturaren zikloek gure ospakizunetan duten eragina.
- Galdutako ohiturak berreskuratu behar ditugula
- Giroa, harremanak, beldurrekin bukatzeko, tradizioa, euskal kultura berreskuratu
- Sortzen den euskaldun giroa eta umeen poza
- Que los niños se reúnan y puedan aprender y disfrutar
- Giroa, umeak mozorrotuta eta pozik ikustea
- Mozorroak
- Aitzinean egiten zituzten gauzak berreskuratu
- Beldurrak erre
- Elkarrekin (lagunekin, familiarekin, auzokoekin...) egoteko ospakizuna dela. Elkartzeko aukera/aitzakia da.
- Parranda giroa
- Que sea una actividad/tradición a celebrar en el barrio o pueblo
- Disfraces y parranda
- Mozorroak eta aurpegia margotzea
- Bere tradizioa, historia

- Ume eta familia arteko giroa

ZER GUSTATZEN ZAIZU GUTXIEN (-) GAU BELTZATIK?

- Oheratzea
- Orain arte Amerikako ohitura bat zala uste nebala
- Oso azkar pasatzen dela
- Suzko zezena (ume baten erantzuna)
- Jende gehiegi egotea eta sua
- Ume batzuk ezezagunen etxeetara joaten direla
- Estatu Batuetako jai moderno eta kontsumora bideratuekin duela lotura
- Kanpoko ohiturak kopiazen ditugula eta gureak galtzen ditugu
- Halloween kontzeptuarekin konparatua izatea
- Los sustos
- Miedo
- Haren inguruan egindako marketinga
- Umeak beldurtzea
- Berandu dela
- Umeak dendetara joaten direnean txutxeak eskatzera
- Halloweenen ohiturak
- Atzeritik etorri diren beste ospakizun edo tradizioak bezala, gauzak erosteko beharra
- Zentzubako mozerroak ikustea
- Ir por las casas pidiendo comida
- Algunos txikis pasan miedo
- Batzutan lar "iluna" dela eta umeentzako beldurgarria izan daitekeela
- Ezebez! Tradizioak beti ongi etorriak dira
- Beste herri batzuetatik etorritakoaren inguruko marketing guztia

ZEIN EKINTZA GUSTATZEN ZAIZU GURE AUZOKO GAU BELTZEAN BARNERATZEKO?

- Umeei gehien gustatzen zaiena, txokolatada
- Mozorrotzea, umeei gozokiak banatzen
- Musika egotea
- Beldurraren labirintoa (ume baten erantzuna)
- Mozorrotzea, auzoa apaintzea, etxez etxe joatea, beldurra pastia
- Bildurraren ibilbidea
- Iluntasunean kalabazak piztea
- Beldurren erreketak! Sua falta!
- Umeei gehien gustatzen zaiena, txokolatada
- Mozorro Transmisioa elementu garrantzitsua dela aipatu dute eta horretan, guraso bezala, paper garrantzitsua jokatzeko dutela; seme-alabei transmisioa egiteko ardura dutela, alegia.
- mozorrotzea, umeei gozokiak banatzen
- Musika egotea
- Beldurraren labirintoa (ume baten erantzuna)
- Mozorrotzea, auzoa apaintzea, etxez etxe joatea, beldurra pastia
- Bildurraren ibilbidea
- Iluntasunean kalabazak piztea
- Beldurren erreketak! Sua falta! Herri izarra ezin bermatzea
- Denok mozorrotzea / umeentzako ekintza desberdinak egitea (margolanak, mozorrotzea... musikarekin gehitzea eta euskaldun giroa handitzea)
- Crear disfraces con cosas recicladas
- Vaciar calabazas y pintarlas
- Umeei tailer ezberdinak antolatzea
- Txokolatada
- Ume txikientzako tailerrak (3-5 urte)
- Dantzak
- Pinta caras

- Tailerrak ume txikiekin
- Kalejirak. Oiartzunen eta Oreretan egiten dituzten bezala.
- Ipuin kontalariak.
- Argi guztiak itzali eta kaleak kandlekin eta kalabazekin argizatzea. Eta denok batera paseo bat ematea.
- Kalabazekin jolastea.
- La quema de los miedos y la merendola
- Kalejira
- Musika
- Pasakallesa mozorroekin eta kalabazak ustutzea kandlekin betetzeko. Eta ipuin kontalariak egotea ambientatzen
- Umeentzako jolasak, familia arteko ekintzak...
- Kalabazak hustu eta kandelak barruan jarri. Dantza egitea plazan.

“2025 URTE: NOLAKO GAU BELTZA IRUDIKATZEN DUGU DATORREN URTEAN, EDO, NOLAKOA IZATEA GUSTATUKO LITZAIGUKE? ZEIN EGITARAU?”

- Gauzak haurrentzako
- Gau beltza tailerrak
- Euskal musika, kalejira, auzo afaria, dantza, mozorroak
- Kalabaza askodun kalejira handi bategaz
- Mendialdean nonbaiten egitea ekintza. “Iluntasunean”. Arangoitik gora adibidez. Iusurako orturen baten landatu daitezke kalabazak hile batzuk lehenago.
- Herriko jai bat ospatu eta ez banakako ekintza bezela. Desfileren bat antolatzen adibidez
- Herri txikiko bideoa erreproduzituko nuke “tal cual”
- Urtean zehar informatzea auzoan gau beltzari buruz jendeak ezagutu dezan eta parte hartu dezan. Mozorro desberdinekin (beldur puntua emanez eta umeak gozatzen)
- Música y pintura
- Tailer ezberdinekin eta festa giroa kalean zehar. San Pedro plazan dantzak antolatuz.

- Umeentzako tailer sorgin dantzak, txokolatada, kalejira eta pinta caras.
- Ume txikientzako
- Bideoetan ikusi duguna
- Mozorroak, kalabazak egin, merendola, auzoan zehar pasea argi guztiak itzalita, kandlekin eta pelikula bat ikusi auzoko udategian edo ipuin kontaketa bat.
- Parranda giroa, erromeria edo kontzertuak eta denok gau beltzez moztortuta egotea.
- Algún desfile, quemar los miedos, disfraces
- Antzinako ohiturak berreskuratzea
- Eguneko egitaraua: Umeentzako jolasak, ipuin kontalaria, kalejirak.
- Gabeko egitaraua: Akelarreak, kalejirak
- San Pedro plazan euskal dantzak, musika kalean eta moztorro tailerrak

ZURE USTEZ, NOLA EDO ZERTAN PARTE HARTU DEZAKETE GURASOEK GAU BELTZAREN ANTOLAKETAN?

- Elkarren artean laguntza behar dutenei ematea
- Gure artean antolatuz umeek goza dezaten
- Mozorroekin
- Mozorroekin ikastaroa
- Denetan: Prestakuntzatik amaieraraino
- Ibilbidearen gune jakin batzuk dekoratuz. Esaterako , ikastolakoak Jon Arrospideko zati peatonalizatua.
- Hiri batean zaila da baina uste dut desfile antzeko bat antolatzea lehen pausoa izan deikeela parte hartze handia lortzeko
- Gurasoen borondatean dagoena. Lan bakoitzentzako beti prest egongo den norbait bati egongo da. Gogoak behar dira.
- Auzoko gau beltzean beraien seme-alabekin kalera irtetea moztortuta eta lagunei esatea ideia denak batera irtetzeko eta urtetik urtera ohitura hau handitzen joan dadila.
- Haciendo un Teatro divertido
- Txoko ezberdinak antolatzen: Aurpegiak margotu, kalabazak apaindu...
- Txokoak antolatzen

- Egingo dituzten ariketan
- Mozorrotutak, "pertsonaiean" papera betetzen.
- Umeei istorioak kontatu, hemengo Gau Beltzaren inguruko ipuin bat idatzi eta zabaltu
- Transmisioa etxean, mozerro sinple bat eginez seme-alabei.
- Aportando la comida en la merendola final
- Encuestas como esta
- Denean
- Ekintzen antolaketan eta prozesuan
- Gaur egin dugun ekintzan bezala, txoko ezberdinak antolatzen: Adibidez, aurpegia margotzen, txokolatea egiten eta banatzen.

13.7 HIRUGARREN FASEA: ESKOLEN BALORAZIOAK

Gau Beltza ipuinaren lanketa burutu da Josu Ozaita idazlearekin hiru eskoletan: Mujika eskola, Atxuri eskola eta Deustuko ikastola. Ikastetxe hauetan, idazlea joan aurretik, LH5 eta LH6 geletan lanketa burutu dute gaiaren inguruan: "Gau Beltza" ipuina irakurri eta galderak prestatu dituzte.

Ekimen honen bitartez, hainbat helburu lortu dira:

1. Gau Beltza ohitura ezagutu eta gehiago jakitea.
2. Ospakizun hau aisialdian praktikara eramateko oinarria eskaintzea.
3. Irakurle taldea: euskal idazleekin hurbiltasuna eta balioan jartzea.

Idazlea bi geletan egon da eskola bakoitzean. Argazki eta bideo laburrak lagun, Gau Beltzaren inguruko ikerketa azaldu du modu hurbilean. Ostera, ikasleekin tertulian aritu da, euren galdera eta esperientziak jasoaz. Honekin batera, idazketaren inguruan eta liburua egiteko prozesuari buruz hitz egin dute.

13.7.1 Atxuri eskola balorazioa:

Idea jaso zutenean zer pentsatu zenuten?

Oso ideia polita umeeekin irakurketa zaletasuna bermatzeko eta euskal kultura ezagutzeko.

Zein lanketa burutu duzue gelan?

Irakurketa esperientziak eta debateak. Bukatzean, elkarrikketa egitura landu dugu galderak prestatu ahal izateko.

Ikasleak nola sentitu dira lanketarekin?

Gustora, gogotsu aritu dira.

Josu idazlea bertaratzearen esperientzia nolakoa izan da?

Oso polita, jatorra eta interesgarria.

Laburpen txiki batekin balorazio orokorra eta irakasleak nola sentitu zireten:

Irakurketa zaletasuna sustatzeko jarduerak oso egokia iruditu zaigu. Liburuaren gaia umeentzat oso interesgarria da eta beraz, lanketa egiteko oso inplikatuak egon dira. Beraz, irakasle moduan, hurrengo urtera begira errepikatzeko aproposa ikusten dugu.

13.7.2 Deustuko ikastola balorazioa:

Ikasle kopurua: 2 talde, guztiz 41 ikasle (21+20)

Saioak: talde bakoitzean 45 minutu

Eskatutako puntuak:

- **Idea jaso zutenean zer pentsatu zuten.**

Beti gaude zabalik idazlea ezagutzeko aukera ematen duten liburuak irakurtzeko proposamenetara, gainera irakurzaletasuna sakonki lantzen dugu.

- Zein lanketa burutu duten gelan.

- ❖ Egunero lehenengo 15 minutuak irakurketa bakarka, liburua irakurri arte
- ❖ Bigarren irakurketa bikoteka(geletan dislexia dutenak, hizkuntza zailtasunak eta atzerritik etorri berriak daude) elkarri laguntzeko.
- ❖ Kapitulu bakoitzean ahoz eta idatziz laburpena egin
- ❖ Ondo ulertuta dagoela baieztatzen dugunean , aztertu ditugu eta guztion iritzia eman dugu puntu hauetan:

- pertsonaiak
- gertakariak
- ohiturak
- ❖ Norekin identifikatu diren idatzi eta azaldu zergatia
- ❖ Idazlearen infografia bat egin
- ❖ Saiorako galderak prestatu

- Ikasleak nola sentitu diren lanketarekin.

Ez da izan erraza lanketa, baina gustura sentitu dira.

- Josu idazlea bertaratzearen esperientzia nolakoa izan den.

Idazleak ekarritako bideoak interesgarriak izan dira Euskadiko zenbait herritan nola ospatzen den ikusteko, baina irakurtzeko motibazioa transmititu eta idaztera animatu teknikaren bat egin ondoren faltan bota dugu.

- Laburpen txiki batekin balorazio orokorra eta irakasleak nola sentitu diren.

Liburua adinerako egokia izan da eta gaia gustatu zaie. Kultura, ohiturak, jarrerak,...lantzeko oso ona izan da. Esperientzia aberasgarria planteatu ditugun gelako jarduerekin.

13.7.3 Mujika eskola balorazioa:

- Ideia jaso zutenean zer pentsatu zuten

Ikasleak oso gustura hartu zuten gau beltza lantzearen idea. Egia da ezagutza oso gutxi zituztela, Halloween ospatzera ohituta daude eta.

- Zein lanketa burutu duten gelan.

Liburua irakurtzeaz gain, Gau Beltza web orrialdean dagoen informazioa irakurri genuen eta bideoak ikusi genituen.

- Ikasleak nola sentitu diren lanketarekin.

Oso gustura egon dira gaia lantzerako orduan, interes handia piztu die.

- Josu idazlea bertaratzearen esperientzia nolakoa izan den.

Idazlearekin solasaldia egitea oso esperientzia aberasgarria izan da, berari zuzenean galderak egin ahal izatea. Horrez gain, Josuk erabilitako bideoak eta argazkiak pila bat gustatu zaizkie.

- Laburpen txiki batekin balorazio orokorra eta irakasleak nola sentitu diren.

Ikasleak oso gustura sentitu dira eta gaia oso interesgarria iruditu zaie. Asko ikasi dute ohitura honen inguruan eta liburua irakurtzeko gogoz egon dira, asko gustatu zaie.